


URTEKO TXOSTENA

2008



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

20



Defensor del Pueblo
de Navarra
Nafarroako Arartekoa

NAFARROAKO
FORU KOMUNITATEKO
ARARTEKOA

**URTEKO TXOSTENA
2008**

Izenburua: **2008ko urteko txostena**

Argitaratzailea: Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundea

© 2009ko, Maiatza

Diseinua eta maquetazioa: Carlos Fernández Prego

Inprimatzailea:

Lege gordailua:


%100 birziklatua, erabat klororik gabea eta bizi ziklo osoan ingurumen inpaktu gutxikoa den paperean inprimatua, ondoko ziurtagiriak dituena: Blauer Engel, Nordic Swan eta Europako Batasuneko etiketa ekologikoa.



aurkibidea

2008

aurkibidea



2008

AURKEZPENA.....	3
-----------------	---

SARRERA.....	23
--------------	----

I. KAPITULUA. KEXEN ESTATISTIKA OROKORRA	29
--	----

1.1. Datu orokorrak.....	29
1.2. Onartutako kexak	33
1.3. Beste parlamentu batzuetako ordezkariari helarazitako kexak	36
1.4. Baietsitako kexak	36
1.5. Kexen banaketa, gaiaren arabera	38
1.6. Kexak sorrarazi dituzten administrazio publikoak	40

II. KAPITULUA. KEXEN EBALUAZIOA.....	49
--------------------------------------	----

2.1. Sarrera	49
2.2. Aurkeztutako kexak, gaiaren arabera.....	50
2.2.1. Nekazaritza	50
2.2.2. Gizarte Ongizatea	51
2.2.3. Elebitasuna.....	56
2.2.4. Merkataritza.....	58
2.2.5. Kultura	59
2.2.6. Hezkuntza eta irakaskuntza	60
2.2.7. Atzerritarrak	63
2.2.8. Funtzio publikoa	65
2.2.9. Ogasuna	71
2.2.10. Eskubideak sustatzea – Herritarren eskubideen bermea administrazio publikoekiko harremanetan	75
2.2.11. Industria	78
2.2.12. Barne arloa	78
2.2.13. Justizia	81
2.2.14. Gazteria eta Kirola.....	83
2.2.15. Ingurumena	83
2.2.16. Herrilanak	86
2.2.17. Osasuna	88
2.2.18. Gizarte Segurantza	92
2.2.19. Zerbitzu publikoak	94
2.2.20. Lana	96
2.2.21. Trafikoa.....	97
2.2.22. Turismoa.....	98
2.2.23. Hirigintza	98
2.2.24. Etxebizitza	101
2.2.25. Besterik	106

III. KAPITULUA. EBAZPENAK	111
3.1. Balorazio orokorra	111
3.2. Onartu diren ebazpenak	117
3.2.1. Nafarroako foru komunitateko administrazioak onartutako ebazpenak	117
3.2.2. Toki entitateek onartutako ebazpenak	128
3.2.3. Beste administrazio eta entitate publiko batzuek onartutako ebazpenak	138
3.3. Onartu ez diren ebazpenak	139
3.3.1. Nafarroako foru komunitateko administrazioak onartu ez dituen ebazpenak	139
3.3.2. Toki entitateek onartu ez dituzten ebazpenak	143
3.4. Beste arrazoi batzuegatik 2008an itxitako ebazpenak	145
3.4.1. Nafarroako foru komunitateko administrazioa	145
3.4.2. Toki entitateak	146
3.5. 2008ko abenduaren 31n erantzun gabe zeuden ebazpenak	147
3.5.1. Nafarroako foru komunitateko administrazioa	147
3.5.2. Toki entitateak	154
3.5.3. Beste administrazio eta entitate publiko batzuk	162
3.6. 2007ko abenduaren 31a baino lehen emandako ebazpenak, administrazioaren erantzunaren zain geratu zirenak	163
3.6.1. Onartu diren ebazpenak	163
3.6.1.1. Nafarroako foru komunitateko administrazioa	163
3.6.1.2. Nafarroako toki entitateak	167
3.6.2. Onartu ez diren ebazpenak	171
3.6.2.1. Nafarroako foru komunitateko administrazioa	171
3.6.2.2. Nafarroako toki entitateak	172
3.6.3. Beste arrazoi batzuegatik itxitako ebazpenak	173

IV. KAPITULUA. ERAKUNDEAK BERE KABUZ EGINIKO IKERKETAK

4.1. Erakundeak bere kabuz eginiko jarduerak	177
4.2. Gaien arabeko laburpena	187
4.3. Laburpena, administrazio publikoen arabera	189
4.4. Nafarroako haurren eta nerabeen egoerari buruzko informazioa	191

V. KAPITULUA. ZERBITZU PUBLIKOAK HOBETZEKO PROPOSAMENAK

5.1. Egindako proposamenak	201
5.2. Laburpena, administrazio publikoen arabera	206

VI. KAPITULUA. GOMENDIO ETA IRADOKIZUN NAGUSIAK211

6.1. Sarrera.....	211
6.2. Gomendioak eta iradokizunak arloka	212
6.2.1. Nekazaritza	212
6.2.2. Gizarte ongizatea	213
6.2.3. Elebitasuna	217
6.2.4. Hezkuntza	219
6.2.5. Funtzio publikoa	223
6.2.6. Ogasuna	226
6.2.7. Eskubideen sustapena – administrazio publikoekiko harremanetan herritarren eskubideak bermatzea	227
6.2.8. Barne arloa	229
6.2.9. Justizia	229
6.2.10. Ingurumena	230
6.2.11. Herri lanak	231
6.2.12. Osasuna	232
6.2.13. Lana	235
6.2.14. Trafikoa	236
6.2.15. Turismoa	237
6.2.16. Hirigintza	238
6.2.17. Etxebizitza	239
6.2.18. Bestelakoak	241

VII. KAPITULUA. NAFARROAKO ADMNISTRAZIO PUBLIKOEN ARARTEKOAREKIN EGINDAKO ELKARLANA. ERAKUNDE ETA ENTITAE EZ-LAGUNTZAILEAK245

7.1. Nafarroako administrazio publikoen arartekoari laguntzeko duten betebeharra	245
7.2. Laguntzeko betebeharraren betetze-maila.....	247
7.2.1. Ikerketa-fasean Arartekoaren eskakizunei erantzun ez dieten administrazioak eta oztopotzat hartzen direnak.....	249
7.2.2. Gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorazapenei erantzun ez dieten administrazioak edo arrazoia egoki justifikatu gabe baztertu dituztenak	249
7.3. Administrazio publiko nagusien onarpen-maila	257

VIII. KAPITULUA. TXOSTENAK261

8.1. Txosten bereziak	261
8.2. Nafarroako administrazio publikoen eskatutako txostenak	263

IX. KAPITULUA. ERAKUNDEAK HERRITARREKIN ETA GIZARTE ZIBILAREKIN IZAN DUEN ZUZENEKO HARREMANA.....	267
9.1. Informazio bulegoa.....	267
9.2. Gizarte zibilarekin izandako harremana	271
X. KAPITULUA. KALITATEAREN EBALUAZIOA ETA HOBEKUNTZA.....	275
10.1. Herritarrek erakundearen baliagarritasunari eta eraginkortasunari buruz duten iritzia	275
10.2. Kexak izapidetzeko batez besteko epeak	283
ERANSKINA	287
I. Erakundearen 2008ko aurrekontuaren likidazioa.....	287
II. Erakundearen lan-talde organikoa eta langileak.....	296

aurkezpena

2008

aurkezpena



2008



lana treit

Francisco Javier Enériz Olaechea
Nafarroako Arartekoa

Beste behin, zuzentzeko ohorea dudan Nafarroako Arartekoaren erakundeak egindako txosten orokorra Nafarroako Parlamentuari eta gizarteari aurkezteko pribilegioa daukat. Bertan, herritarrekiko eta Nafarroako administrazio publikoekiko harremanetan aurrera eraman duen lana azaltzen da.

13

2008ko jarduera horren azpimarratzeko moduko alderdi garrantzitsuenen artean, nabarmen agertzen da herritarrek aurkeztu dituzten kexen kopurua, zeina handiena izan baita erakundea 2000n sortu zenetik. 647 izan dira, aurreko urtean baino berrehun gehiago. Horrek % 44,7ko igoera suposatzen du 2007an aurkeztutakoekin alderatuta.

Kexen igoera hori zor zaio, funtsean, joan den urtearen hasieran aurrera eramandako kanpainari, hain zuzen ere herritarrek erakundea hobeki ezagutzea bilatzen zuena. Horrekin, zenbait komunikabidetako iradokizunak bildu genituen, haien arabera jendeak ez baitzuen behar bezala ezagutzen ez erakundea, ez eta pertsoneri laguntzeko haren eginkizuna ere.

Kexa kopuruaren aipatu igoera erakundeak 2008rako zeuzkan eta lortu dituen beste helburu batzuei gehitu behar zaie: pertsona eta elkarte guztiei erakundera jotzeko bidea erraztea

(lau kexa bakoitzetik bi zuzenean aurkeztu dira, aholku pertsonala bilatuz, eta laurden bat baliabide elektronikoen bitartez); kexa-espedienteen tramitazioa erraztea, beharrezkoak ez ziren urratsak kenduz; kexen tramitazioaldiak ahal den guztian gutxitzea, pertsonen arazoei eman beharreko erantzuna arintzeko; hobekuntza jarraituko mekanismoak aktibatzea (hilerro adierazle batzuk landuz eta argitaratuz; adierazle horiek zuzenean eta gardentasun osoz kontsultatu daitezke interneten); eta herritarrei argitasunez informazioa ematea, urtean zehar haien kezkei erantzuteko garatu ditugun ekintzei buruz.

Helburu horiek guztiak bete ditugula egiaztatzeak ematen duen pozaz gainera, 2008an kasuan kasu erakundeak egindako esku-hartzeari buruz herritarrek egin duten balorazio orokorra dago, zeinak hobera egin baitu 2007koarekin alderatuta. Herritarrek 2008an eginiko balorazioaren batez bestekoa 7,5era iritsi da; aurreko urtean, berriz, 7koa izan zen.

2008an aurkeztutako kexen zatirik handiena honako arloei buruzkoak izan dira: administrazio publikoek herritarrei informazioa emateko duten legezko betebeharra, eskabideak eta aurkeztutako errekurtsioak ezarritako epean ebazteko betebeharra, eta errespetuzko eta gizalegezko tratua hartzeko eskubidea; azken batean, herritarren gaien administrazio zuzenerako eskubidearekin lotutakoak. Bigarrenik, kexa gehien aurkeztu diren gaia funtzio publikoa izan da, bai bertara sartzeko gaiei dagokienez, bai kasuan kasua aplikatzeko den araubide juridikoari dagokionez ere. Hirugarren tokian, gizarte ongizateko gaiekin lotutako gaiak daude; gehienak prestazio sozialei buruzkoak dira, baina zehaztu beharra daukagu, atsegin handiz, beste autonomia erkidego batzuetako arartekoekin koordinatzeko jardunaldietan jakin dugunaz bestera, Nafarroan gutxi izan direla Autonomia pertsonala sustatu eta menpekotasuna

du ten pertson e i laguntze ari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen (Menpekotasunari buruzko Legea izenaz ezagutzen dena) aplikazioa dela-eta aurkeztutako kexak.

2008an, ia lehenagokoen maila berean geratu dira osasunari eta etxebizitzari buruzko kexak; izan ere, bi kezka horiek funtsezkoak dira herritarrentzat; kexen kopuruari erreparatuta, berriz, beste arlo batzuetan baino erreklamazio-maila txikiagoa agertzen da haiek direla eta. Jabetzak eskuratzeari eta osasun prestazioei buruzko arazoak dira zabaltasun handiena dutenak.

Elebitasunari buruzko kexak, berriz, seigarren tokian daude, eta nabarmen hazi dira 2007. urtearekin alderatuta. Igoera horren arrazoia da "Hizkuntza Eskubideen Behatokia" izeneko fundazioak euskararen erabilera dela-eta Nafarroan jaso dituen kexak erakunde honi igorri dizkiola. Ogasunaren eta hezkuntzaren arloko kexen kopuruek, halaber gora egin du, eta zazpigarren eta zortzigarren tokiak betetzen dituzte, hurrenez hurren.

15

Aitzitik, behera egin dute, aurreko urtekoekin alderatuta, ondoko gaiei buruzko kexak: ingurumena, hirigintza, justizia, trafikoa, barne arloa eta gazteria.

Erakundeak 779 kexa (2007an baino 123 gehiago) kudeatu ditu; horietatik, 692 ebatzi ditu (% 89) eta 2008ko abenduaren 31n 81 kexa geratu ziren ebatzi gabe.

Kudeatutako kexetatik, hamarretik bederatzi onartu egin dira. Horrek ongi adierazten du zeinen erraza da erakunde honetara jotzea, nolako azterketak egiten diren kexa onartu edo ez onartu aurretik, baina baita ere herritarrek gero eta hobeki ezagutzen dutela erakundea eta erakundearen jarduera-eremua. Hori, izan ere, erraz ondoriozta daiteke alderdi hori aurreko ekitaldiekin alderatuz gero. Halaber,

onartutako bederatzi kexatetik bat beste norabait bideratu da: gehienetan Gorte Nagusietako arartekoaren bulegora, Estatuko administrazioarekin zerikusia duen gairen bat izateagatik, edo, kopuru txikiagoan, antzeko eginkizuna duen beste autonomia erkidegoren bateko parlamentu-ordezkaritari, haren eskumeneko gaiak izateagatik. Horrekin, Nafarroako Arartekoaren erakundea Espainiako arartekoarengana jotzeko bulego ere bilakatu da, hari bideratzen baitizkio bere erabaki-esparruan dauden herritarren kexak eta harrekin modu eraginkorrean koordinatzen da inongo arazorik gabe. Izan ere, horrekin, Estatuko erakundearen eta foru erakundearen arteko lankidetzeta leiala areagotzen da.

Onartu ez diren kexak, hamarretik bat, gehien bat kexa garaiz kanpo aurkezteagatik izan da, edo kexen izaera juridiko-pribatuarengatik edo epailearen erabakiaren zain dauden auziak izateagatik.

Gainera, 2008. urtean, ia lehenagoko mailari eutsi zaio kexen baiespenaren ehunekoan: erakundeak aztertutako bi kexetatik bat. Aldi berean, igo egin da kexa espedienteetan emandako ebazpenen ehunekoa: 241 kexa aurreko urteko 170 kexen aldean (% 40 gehiago).

Halaber, nabarmentzekoa da Nafarroako administrazio publikoek erakutsitako lankidetzaren portzentaje handia, eta hori goraipatzekoa eta eskertzekoa da. Administrazio publikoek, izan ere, arintasun handiagoz bidali dituzte ikerketa espedienteetan eskatutako txostenak, eta kasuen % 85,5ean gomendioak eta bitartekaritzak onartu dituzte. Kopuru hori oso altua dela esan daiteke, nahiz eta, % 100era iristen ez denez, perfektionatzeko modukoa izan.

Erakundeak 27 aldiz jardun du ofizioz, gehienetan gizarte ongizatearekin, hezkuntzarekin, osasunarekin eta zerbitzu publikoekin loturiko gaietan. Jardun horiek balio izan dute

zerbitzu publikoen nahiz itunduen funtzionamendu-maila egiaztatzeko –batzuetan maila handikoa, izan ere– eta haiek hobetzearren iradokizunak egiteko.

Halaber, zerbitzu publikoak hobetzeko proposamenak egin dira, 63 hain zuzen ere. Horietako asko herritarrek aurkeztutakoak dira eta batzuk oso onarpen ona izan dute botere publikoen aldetik, eta arau-aldaketak ere ekarri dituzte, horietako batzuk legegintzari dagozkionak. Horrekin demostratu da erakunde hau herritarren eta erakunde eta administrazio eskudunen arteko bitartekaritzarako ente bat izan daitekeela.

Eta horrela, Nafarroako Arartekoaren eginkizun proaktiboa indartzen jarraitu dugu: Hain zuzen ere, ez baitugu nahi erakunde hau mugatuta egotea herritarren kexak jasotzera eta ebaztera, horixe izan arren legez duen eginkizuna; aitzitik, zabaldu egin nahi dugu Nafarroako administrazio publikoen jarduna hobetzeko gomendioak eta proposamenak egitera, zerbitzu publikoak hobeki eman ditzaten eta jarduera pribatua kontrolatzeko edo sustatzeko xedez. Izan ere, 2008an, 446 gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorarazpen egin zitzaizkien Nafarroako administrazio guztiei; aurreko urtean, aldiz, 244 baizik ez zitzaizkien egin. Aurten, beraz % 83 gehiago izan dira.

17

Bestalde, zazpi txosten berezi egin eta Nafarroako Parlamentuari aurkeztu zaizkio; guztira, 118 proposamen (gomendioak eta iradokizunak) biltzen dituzte, Nafarroako administrazio publikoei zuzenduak. Ez ditugu horiek guztiak txosten honetan berriz adieraziko, propio eginiko dokumentu edo liburu batean bildu baititugu guztiak. .

Merezi du nabarmentzea Informazio Bulegoak aurten egin duen lana. Zenbait aldiz jada adierazi izan dudana bezala, bulego horrek berebiziko garrantzia duen eginkizuna du

herritarrei laguntzeko eta aholkua emateko beren eskubide subjektiboak hobeki ezagutzeko eta hobeki gauzatzeko. Horixe bilakatu da, izan ere, erakunde honek gure mundu gero eta konplexuagoan hartu duen eginkizun garrantzitsuenetako bat, herritarrek konplexutasun horretan ez-jakitearen eta defentsa-ezaren sentipena izaten baitute maiz askotan. Arlo horretantxe lortu du erakundeak gizartearen aitorten altuena, eta horrela jasotzen da kontsulta egin ondoren egiten ditugun inkestei ia herritar guztiek emandako erantzunetan. Izan ere, jotzen dute erakundea baliagarria edo oso baliagarria dela, halako punturaino non asebetetze-mailari dagokion puntuazioaren batez bestekoa bederatzia gainditzen baitu. Bada, 2007an 990 kontsulta jaso bagenituen, 2008an, berriz, 1.529 izan dira (% 54 gehiago). Horietatik 277k administrazio publikoren baten jardueraren aurkako kexaren bat aurkeztea ekarri zuten.

Ez dut ahaztu nahi erakundearen jardunari buruzko datu orokorren hobekuntza 2007ko langile berekin lortu dela, eta, gainera, aurreko urtearekin alderatuta gastu publikoa nabarmen gutxitu dela, % 15 hain zuzen ere. Meritua, bada, erakundearen zerbitzuan lan egiten duten guztiena da horrenbestez, egunero-egunero beren profesionaltasunarekin zerbitzu publiko honi eutsi eta hura hobetzen baitute eta herritarrei laguntzen baitiete. Akatsik baldin badago, erakunde baten eginbeharren alderdi guztietan bezala, erakundea ordezkatzeko duenari egotzi beharko zaizkio, hura baita arduradun nagusia, hain zuzen ere lerro hauek izenpetzen dituen.

Azkenik, eskerronen kapitulu luze bat zabaldu beharrean nago: herritarrei, erakunde honi aitorten gero eta hobeagoak egin eta harengan konfiantza gero eta handiagoa jartzen baitute –horietako askori barkamena eskatu behar diet beren itxaropenak zapuztu ditudalako eta gai zail eta pertsonaletan laguntza handiagorik eman ez diedalako; Nafarroako

Parlamentuari, erakunde honengan urte osoan jarri duten konfiantzarengatik eta eman dioten berotasunarengatik: horri esker indarra lortu dugu gure eskuetan utzitako lana hobetzen joateko; Nafarroako Gobernuari eta toki entitateei, beren agintari eta langile guztiei, gero eta laguntza handiagoa ematen baitiote erakunde honi –eta hori urtean-urtean nabaritzen da–: egiten dizkiegun gomendioei arreta eskaintzen dietelako, egin behar izaten dugun ikuskapen funtzioetan erakutsi duten pazientziarengatik (zeina neronek egiazta baitezaket), eta erakunde honi laguntza emateari lehentasunezko tokia eskaintzen dietelako. Guzti-guztiei mila esker.

Iruñean, 2009ko martxoaren 2an

Francisco Javier Enériz Olaechea
Nafarroako Arartekoa

sarrera

2008

sarrera



2008

Txosten honen helburu nagusia da Nafarroako Arartekoaren erakundeak 2008an garatu duen jarduerari buruzko datuak Nafarroako Parlamentuari aurkeztea.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 36. artikulua ezartzen du arartekoak urtero emanen diola egindako kudeaketei buruzko txostena Nafarroako Parlamentuari eta txosten hori ohiko bilkura-aldian aurkeztu beharko diola.

Bestalde, foru lege horren 37.1 artikulua zehazten du urteko txostenean Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak azalduko dituela aurkeztutako kexen kopurua eta motak, eta horietatik zenbat utzi diren alde batera eta zergatik; baita zenbat gai ikertu diren eta ikerketa horien emaitzak ere. Gainera, administrazioak onartu dituen ohar, iradokizun, gogorazpenak edo gomendioak zehaztuko ditu.

Txostenean, aurreko urteko egiturari eutsi diogu, metodologian aldaketa txiki bat egin arren. Hamar kapitulutan banatuta dago.

23

Lehendabizikoan, aurkeztutako kexen kopurua eta mota adierazten dira, bai eta gaien araberako sailkapena, ikerketa prozesuetan parte hartzen duten administrazioak eta prozeduren izapidetze-egoera eta ondorioak ere. Bigarren, hirugarren eta laugarren kapituluetan informazio hori osatu egiten da, haietan azaltzen eta aztertzen baitira herritarrek beren kexetan planteatzen dituzten sakoneko arazoak.

Hirugarren kapituluan, kexa-espedienteetan emandako ebazpenei buruzko informazioa ematen da. Halaber, egindako gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorazpenen kopurua azaltzen da, bai eta Nafarroako administrazio publikoek haiek noraino onartu edo errefusatu dituzten ere. Ez dugu bertan jaso emandako ebazpenen eduki osoa, erakundearen web atarian <http://www.defensonavarra.com> eskuratu baitaiteke, "Ebazpenak" izeneko atalean.

Ofizioz eginiko jarduerak eta ikerketak, berriz, laugarren kapituluan jaso ditugu. Kapitulu horren aurkezpena aldatu egin da aurreko urtekoarekin alderatuta, kontsulta errazagoa izan dadin. Izan ere, ofizioz eginiko jardueretako gomendioak eta iradokizunak ez dira kapitulu horretan jasotzen, baizik eta seigarren kapituluan, non batera biltzen baitira 2008an emaniko iradokizun eta gomendio nagusiak, bereizi gabe kexa espedienteetakoak diren, ofiziozko ikerketakoak diren edo herritarren proposamenen ondoriozkoak diren. Gainera, haurren eta nerabeen egoerari buruzko balorazioari buruzko datuak eman ditugu, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 14. artikuluan ezarritako moduan.

Bosgarren kapituluan, 2008an inauguratutako lan arlo berri batean garaturiko jardueraren berri ematen dugu: hain zuzen ere herritarrek zerbitzu publikoak hobetzeko helarazten dizkiguten proposamenak jaso eta tramitatzea.

Jada adierazi dugun bezala, seigarren kapituluan modu proaktibo eta eraikitzailean aipatzen ditugu erakunde honek administrazio publikoei, beren zerbitzuak eta funtzioak hobetzeko, eginiko iradokizun eta gomendio nagusiak.

Zazpigarren kapituluan, kexa-espedienteen ondorioz ikuskatu ditugun administrazio publikoek erakutsitako lankidetzagradua ebaluatzen dugu.

2008an eginiko txosten bereziak zortzigarren kapituluan aipatzen ditugu, baina berariazko asmo bat izan dugu: haien edukia berriz ere ez ematea, hura jada Nafarroako Parlamentuan eginiko aurkezpenetan agertzera eman baikenuen.

Bederatzigarren eta hamargarren kapituluak, hurrenez hurren, Informazio Bulegoari buruzkoak dira. Izan ere, bulego horren lanak 2008an nabarmentzeko moduko hazkundera izan baitu.

Herritarrek erakundeari buruz egiten duten balorazioa ere kapitulu horretan jasota dago.

Azkenik, txostenak eranskin bat dauka, non aurrekontuaren likidazioa eta erakundearen lan-taldea jasotzen baititugu, Nafarroako Arartekoaren erakundea arautzen duen uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak ezartzen duen moduan.

1 _ kexen estatistika orokorra

2008

1 _ kexen estatistika orokorra



2008

I. KAPITULUA

KEXEN ESTATISTIKA OROKORRA

1.1. DATU OROKORRAK

Kapitulu honen bidez kexen analisi estatistikoa egingen dugu baina, aurrez, zehaztu beharra dago datuen azterketa Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak kexen inguruan ematen duen definizioan oinarritzen dela. Zehatz-mehatz, 4/2000 Foru Legearekin bat, herritarrek aurkezten dituzten erreklamazioak hartu behar dira kexatzat.

Ñabardura esanguratsua da hori. Izan ere, arartekoaren ohiko jarduna, herritarren kexak aztertzeaz gain, bere kabuz esku hartu eta ikertzea ere bada. Nafarroako Parlamentuaren eta Nafarroako administrazio publikoen eskaerari jarraiki besteak beste, eta herritarrek Nafarroako administrazio publikoen zerbitzu publikoak hobetzeko aurkeztutako proposamenei jarraituz. Hain zuzen ere, kexen esparruaz kanpoko esku-hartzea txosteneko IV. eta V. kapituluetan landuko dugu.

29


Honako hauek dira kexei beraiei buruzko daturik nabarmen-garrienak:

1. Herritarrek 2008an **aurkeztutako kexen kopurua** 647koa izan zen. Hau da, % 44,7ko hazkundera izan zen 2007aren aldean, 447 kexa aurkeztu baitzituzten orduan. Hazkundera oso nabarmena izan da, eta haren ondorioz 2008.a izan da kexa gehien aurkeztu diren urtea, zenbaki absolutuetan, erakundera sortu zenetik; izan ere, sortu zen unetik 3.380 kexa aurkeztu baitzaizkio arartekoari.

Hazkundera eragin duten arrazoietakoa bat izan da erakundearen existentzia herritarren eta administrazio


publikoen artean zabaltzeko egin diren ahaleginak, hain zuzen ere ezagutua izan dadin.

Aurkeztutako kexak 2008-2007




2. Erakundeak 2008an kudeaturiko kexen kopuruari dagokionez, 779 izan ziren guztira; izan ere, 2008an aurkeztutakoez gainera, aurreko urteetako 132 kexa tramitatu baitziren.

Kudeatutako kexak 2008-2007




2008ko abenduaren 31n, 692 espediente ebatzi ziren; hau da, kudeatutakoen ia % 90 (107 espediente gehiago aurreko urtean baino; hau da, % 18,3).



Gainerako 87 kexak 2008ko abenduaren 31n –ekitaldia itxeko data– ebazteko daude.

- Herritarrek **kexak aurkezteko gehien erabilitako bidea** zuzenekoa izan zen: kexen % 54 Nafarroako arartekoaren bulegoan zuzenean aurkeztu ziren. kexen % 21 posta elektronikoaz edo erakundearen webaren bitartez aurkeztu ziren. Ehuneko bera posta arruntaz igorri zen. Azkenik, % 4 fax bidez aurkeztu ziren.

Ikusten denez, bulegora bertara joatea da oraindik ere gehien erabiltzen den bidea. Izan ere, dena delako gaiari buruz interesa duten pertsonak bertatik bertara lortzen dute informazioa horrela eta, gainera, aholkulariek eta teknikariek kexa idazten laguntzen dituzte.



4. Aurkeztutako 647 kexetatik, 564 banakakoek aurkeztu zituzten, eta 83, aldiz, talderen batek, pertsona multzo batek alegia. Taldeen arabera banaketa ez da funtsean aldatu aurreko urteetakoarekin alderatuta.
5. Kexa sustatu duen pertsonaren profilari dagokionez, gizona gehiago daude emakumezko baino. Zehazki, banakoen kexen % 53 gizona aurkeztu zituzten, eta % 47, aldiz, emakumezkoek. Aurreko urteko portzentaje ia berdina dira.
6. 2008an, gora egin zuen euskaraz edo elebitan (euskaraz eta gaztelaniaz) aurkeztutako kexen kopuruak. 53 kexa aurkeztu ziren euskaraz (% 8,2); 2007an, berriz, 4 baizik ez ziren izan.

1.2. ONARTUTAKO KEXAK

Onartutako kexak (herritarrak aurkeztutako sakoneko gaiari buruz erakundeak alde bateko zein besteko iritzia eman zuenekoak) 598 izan ziren. Kudeatutako kexa guztien (779) % 77 egiten dute.



33

2008an 100 izan ziren tramitera edo bideratzeko onartu ez ziren kexak. % 12,8 egiten dute, kudeatutako kexen guztizkoan. Horrenbestez, hamar kexa bakoitzeko ia bat ez zen onartua izan.

Kasuen % 17an (17 kexatan), bideratzeko ez onartzea arrazoi subjektiboengatik izan zen; esate baterako, kexaren promotoreak datuak ez ematea (5 kasutan gertatu zen hori), interesdunak berak kexa bertan behera eskatzea (8 kasutan gertatu zen) eta kexaren izate anonimoa (3 kasutan).

Nabarmentzekoa da, kexa bat horietako arrazoiren bat dela-eta (bereziki, daturen bat ez emateagatik edo Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru


Legeak forma aldetik xedatzen duen eskakizunen bat ez betetzeagatik) ez onartzea erabaki aurretik, erakundeak antzematen duen gabezia betetzeko askotariko aukerak ematen dizkiela herritarrei, hainbat bidetatik gauza ditzaten. Alde horretatik, arartekoa formalismoaren kontrakoa da berez eta ez da oso burokratikoa baina, zenbaitetan, ahaleginak ahalegin, herritarrek ez dituzte ematen espedientea bideratzeko beharrezko datuak eta, hortaz, amaitutzat eman behar dugu.

Arrazoi subjektiboez gain, badira arrazoi objektiboak direla-eta onartzen ez ditugun kexak. 2008an, esaterako, 83 kexa ez genituen onartu arrazoi objektiboengatik, eta egileak aholkatu egin genituen aurrez.


Arrazoi objektiboak honako hauek dira, besteak beste: batetik, kexa garaiz kanpo aurkeztea –Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak urtebeteko epea ematen du gehienez ere, eta hamar kexa berandu helarazi zituzten– eta, bertzetik, arartekoak ebazteko proposatzen den auzia ezin ikertzea, dela alor juridiko pribatukoa delako (14 kasu), dela epaitegietako prozedura baten gaia delako (13 kasu), dela gai jakinik ez duelako (2 kasu) edo dela administrazio eskudunari planteatzeko betebeharra bete ez eta zuzenean arartekoari planteatzen diotelako (13 kasu).

Azkenik, hamasei espediente ez genituen onartu amaitutzat emandako gai bati buruzkoak zirelako, eta hamalau, arartekoak ez zuelako haiek bideratzeko eskumenik.

Arrazoi subjektiboak



Arrazoi objektiboak aholkuarekin



1.3. BESTE PARLAMENTU BATZUETAKO ORDEZKARIEI HELARAZITAKO KEXAK

2008an, 81 kexa (kudeatutako guztien % 10) helarazi genizkien guztira Nafarroaz kanpoko parlamentuek herritarren eskubideak babesteko izendatutako goi ordezkariiei. Horrenbestez, erakunde honetan jasotako hamar kexa bakoitzetik batean hura ebazteko eskumena ez da Nafarroako arartekoarena, baizik eta beste herrialde edo esparru bateko antzeko beste erakunde batena.

81 kexa Gorte Nagusiek hautatutako arartekoari igorri genizkion, eta bi, beste autonomia erkidego batzuetako arartekoei; kexak banatzeko irizpidea izan zen nori zegokion gaia aztertzeke eskumena.

Datu horretatik ondorioztatzen denez, nafar gehienek oso-oso ondo dakite arartekoaren eskumenen esparruaren berri; izan ere, zuzenean jotzen du harengana.


1.4. BAIETSITAKO KEXAK

Onartutako kexen azterketa eta analisia egin ondoren, espedienteen % 48an arrazoa eman zaio erreklamazioa aurkeztu duenari (288 kasutan). Horrenbestez, Nafarroako arartekoak haien sakoneko gaiari buruz erabaki behar izan zuen.

Aipatu 288 kasuetatik, ikuskatutako administrazio publikoak hirutik bitan (189 espediente) erakundearen erabakia onartu zuen.


Onartutako beste 223 espedientetan –guztizkoaren % 37an–, erreklamazioa arrazoiak emanez ezetsi zen, aztertu eta ondoren.

Onartutako kekak (598)



- Erreklamazioak arrazoiak aurkeztutakoak
- Bideratu eta onartu gabeko erreklamazioak
- Ebazteke daudenak
- Atzera egindakoak eta errepikatutakoak

Erreklamazioak arrazoiak duela jo diren kekak



- Administrazioak onartutakoak
- Administrazioak onartu gabekoak
- Erantzunaren zain dago ebazpena

1.5. KEXEN BANAKETA, GAIAREN ARABERA

Arloei erreparatuta, 2008an aurkeztutako kexak honela bana daitezke:

Jardun arloak	2008		2007		Aldea	
Eskubideen sustapena	70	% 10,82	19	% 4,25	51	% 268,42
Funtzio publikoa	65	% 10,05	54	% 12,08	11	% 20,37
Gizarte ongizatea	60	% 9,27	49	% 10,96	11	% 22,45
Osasuna	49	% 7,57	34	% 7,61	15	% 44,12
Etxebizitza	49	% 7,57	38	% 8,50	11	% 28,95
Elebitasuna	37	% 5,72	0	% 0,00	37	% 100,00
Ogasuna	36	% 5,56	16	% 3,58	20	% 125,00
Hezkuntza eta irakaskuntza	34	% 5,26	18	% 4,03	16	% 88,89
Zirkulazioa	32	% 4,95	33	% 7,38	-1	% -3,03
Gizarte segurantzza	28	% 4,33	18	% 4,03	10	% 55,56
Ingurumena	26	% 4,02	33	% 7,38	-7	% -21,21
Hirigintza	25	% 3,86	33	% 7,38	-8	% -24,24
Barne arloa	25	% 3,86	26	% 5,82	-1	% -3,85
Zerbitzu publikoak	23	% 3,55	15	% 3,36	8	% 53,33
Nekazaritza	17	% 2,63	9	% 2,01	8	% 88,89
Herri lanak	15	% 2,32	10	% 2,24	5	% 50,00
Justizia	13	% 2,01	16	% 3,58	-3	% -18,75
Besteri (toki entitateen funtzionamendua eta jco- pdas)	11	% 1,70	4	% 0,89	7	% 175,00
Merkataritza	11	% 1,70	3	% 0,67	8	% 266,67
Atzerriartasuna	9	% 1,39	5	% 1,12	4	% 80,00
Lana	4	% 0,62	5	% 1,12	-1	% -20,00
Industria	3	% 0,46	1	% 0,22	2	% 200,00
Kultura	2	% 0,31	2	% 0,45	0	% 0,00
Gazteria eta kirola	2	% 0,31	5	% 1,12	-3	% -60,00
Turismoa	1	% 0,15	1	% 0,22	0	% 0,00
Guztira	647	% 100,00	447	% 100,00	200	% 44,74

Kexa gehienak Administrazio publikoek **informazioa eman eta espedienteak legediak xedatzen duen epean ebazteko betebeharrari buruzkoak eta tratu txarra edo deskoresia jokabideei buruzkoak dira**. Kexen % 10,8 egiten dute; aurreko urtean, berriz, % 4,8 izan ziren.

Funtzio publikoari buruzko kexak bigarren tokian daude, baina ehunekoan behera egin dute: 2007ko % 12tik 2008ko % 10era.

Kexen hirugarren multzoa **gizarte ongizatearen** arlokoek betetzen dute: % 10,9 izatetik % 9,2 izatera pasa dira.

Osasunari buruzko kexek % 7,6 egiten dute guztizkoan, joan den urtean bezalaxe.

Antzeko mailari eusten diete, jaitsiera txiki batekin, **etxebizitzari** buruzko kexak, % 8,5etik % 7,5era pasa baitira.

Seigarren tokian, igoera handi samarrarekin, **elebitasunari** buruzko kexak daude: guztizkoaren % 5,7 izan dira 2008an; 2007an, aldiz, 3 kexa baizik ez ziren aurkeztu.

Ogasunaren eta **hezkuntzaren** arloko kexek gora egin dute, bai kopuruan bai ehunekoan: lehenbizikoek guztira aurkeztutakoen % 5,5 egiten dute, eta bigarrenek % 5,2.

Gainerako arloak ez dira aurkeztutako kexa guztien % 5era iristen.

1.6. KEXAK SORRARAZI DITUZTEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

2008an aurkeztutako kexa gehienak Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari aurkeztu zitzaizkion, beren departamentu edo erakunde publikoen jardunarengatik. Horixe da 314 kexaren kasuan –gutzizkoaren % 48,5 egiten dute–. Horrenbestez, kexen ia erdia foru administrazioaren egitateei buruzkoa da.

Toki entitateen jardunari buruz, berriz, 212 kexa aurkeztu ziren –gutzizkoaren % 32,7.

Zazpi kasutan, kexek Foru Komunitateko administrazioa eta toki administrazioa batera ukitu zituzten.

Nafarroako Parlamentuko langileen kudeaketari buruzko kexa bakarra aurkeztu zen.

Estatuko administrazioari buruzko 84 kexa aurkeztu ziren.

Administrazio judizialari buruz, berriz, 4 kexa.

Beste 8 kexa sozietate publikoen eta lanbide elkargoen jardunari buruzkoak izan ziren.

2 kexa hauteskunde-administrazioari buruzkoak izan ziren.


Beste 7 kexa Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatei buruzkoak izan ziren, nagusiki Nafarroako Unibertsitate Publikoari buruzkoak.

Kexa bat aurkeztu zen beste autonomia erkidegoetako arartekoen jardunari buruz; 4 kexa, azkenik, ente pribatuen eta zehaztu gabeko gizabanakoen jardunari buruzkoak izan ziren.

KEXEN BIDEZ GAITZETSITAKO ADMINISTRAZIO EDO ERAKUNDE PUBLIKOAK		
	Kexa kop.	%
Foru administrazioa	314	% 48,53
Toki administrazioa	212	% 32,77
Foru eta toki administrazioa	7	% 1,08
Nafarroako parlamentua	1	% 0,15
Estatuko administrazioa	84	% 12,98
Beste autonomia erkidego batzuetako adm.	3	% 0,46
Adm. Judiziala	4	% 0,62
Sozietateak + lanbide elkargoak	8	% 1,24
Hauteskunde administrazioa	2	% 0,31
Beste aut. Erk. Batzuetako arartekoak	1	% 0,15
Nafarroako unibertsitateak	7	% 1,08
Zehaztu gabe	4	% 0,62
GUZTIRA (*)	647	% 100,00


(*) 318 kexetatik, 4tan toki administrazio bat ere ukituta dago

Kexen bidez gaitzetsitako administrazio edo erakunde publikoak



Honako hauek dira, departamentuka, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioari buruz aurkeztutako kexak:

DEPARTAMENTUAK	Kexa kop.	%
Osasuna	72	% 22,64
Familia, Gazteria, Kirola eta Gizarte Gaiak	55	% 17,30
Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza	46	% 14,47
Lehendakaritza, Justizia eta Barnea	38	% 11,95
Hezkuntza	34	% 10,69
Landa Garapena eta Ingurumena	28	% 8,81
Ekonomia eta Ogasuna	26	% 8,18
Berrikuntza, Enpresa eta Enplegua	9	% 2,83
Herri-lanak, Garraioa eta Komunikazioak	6	% 1,89
Toki Administrazioa	2	% 0,63
Kultura eta Turismoa - Vianako Printzea Erakundea	2	% 0,63
GUZTIRA	318	% 100,00



Toki entitateei erreparatuta, Iruña (64 kexa), Etxarri – Aranzat (17), Lizarra (7), Tutera (6), Fitero (4) eta Berriozar (4) izan ziren kexa gehien jaso zituztenak.

2008an gora egin zuten Nafarroako kontzejuen jardunari buruz aurkeztutako kexak. Hartara, 2008an, 7 kontzejuren jardunari buruzko 9 kexa aurkeztu ziren; 2007an, berriz, 4 kontzejuri buruzko 6 kexa aurkeztu ziren.

15 kexa aurkeztu ziren mankomunitateen jardunari eta kudeaketari buruz; kopuru hori 2007an aurkeztutako hiru halako da.

Xehetasun gehiago izateko, hona datuei buruzko taulak eta grafikoak.

NAFARROAKO TOKI ENTITATEEI

UDALAK	GUZTIRA
ABAURREPEA	1
ALLO	1
ALTSASU	1
ANDOSILLA	2
ANTSOAIN	3
AGOITZ	1
ARANGUREN	1
ARBIZU	1
ARESO	1
ARROITZ	1
ATETZ	1
AZAGRA	2
BARAÑAIN	1

BAZTAN	1
BERRIOZAR	4
BUÑUEL	2
BURLATA	3
CAPARROSO	2
CASCANTE	2
KASEDA	1
CASTEJÓN	2
ZIZUR ZENDEA	1
CINTRUÉNIGO	3
ZIRITZA	3
CORELLA	3
CORTES	2
DESOIO	1
DEIKAZTELU	1
EGUESIBAR	3
LIZARRA	7
ETAIO	1
ETXARRI ARANATZ	17
EZKABARTE	1
FITERO	4
FUSTIÑANA	1
GOIZUETA	1
UHARTE	2
IRURTZUN	1
LESAKA	1
LODOSA	1
IRUNBERRI	1
MAÑERU	1
MARTZILLA	1
MENDABIA	2
MENDIGORRIA	3
MILAGRO	2
MIRANDA-ARGA	1
NOAIN	3
OBANOS	1

ERRIBERRI	2
IRUÑA	64
AZKOIEN	2
ERROMANTZATUA	1
SAN ADRIÁN	2
ZANGOZA	0
TAFALLA	2
TUTERA	6
UNTZUE	1
URDAZUBI	1
ATARRABIA	1
DEIERRI	1
ESA	2
ZIZUR NAGUSIA	3
UDALAK, GUZTIRA	191

KONTZEJUAK

ARBEITZA	1
ARLEGI	3
BEUNTZA	1
DOMEÑU	1
GARTZARON	1
GAZOLATZ	1
SORAUREN	1
KONTZEJUAK, GUZTIRA	9

MANKOMUNITATEAK

MALERREKAKO ZERBITZU OROKORRETAKO MANKOMUNITATEA	1
MAIRAGAKO MANKOMUNITATEA	1
IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA	8
JURRAMENDIKO MANKOMUNITATEA	1
MONCAYOKO MANKOMUNITATEA	1
UHARTEKO ETA ESTERIBARKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA	1
BARDEAKO UREZTATZAILEEN 1. KOMUNITATEA	1
ANDIA ZERBITZU ADMINISTRATIBOEN MANKOMUNITATEA	1
MANKOMUNITATEAK, GUZTIRA	15
GUZTIRA	215

(*) 215 kexetatik, 3tan Nafarroako Foru Komunitatearen Ad-
ministrazioa ere ukituta dago

2 _ kexen ebaluazioa

2008

2 _ kexen ebaluazioa



2008

II. KAPITULUA KEXEN EBALUAZIOA

2.1. AITZINSOLASA

2008an, herritarrek aurkezturiko kexen kopuruak % 44,7 egin zuen gora 2007ko urtearekin alderatuta. Urte bukaerako datuei begiratuta, erakunde hau sortu zenetik kexa kopuru handiena iritsi zaigu 2008an. Hazkunde horretan, gai zehatz bati ezin egotz dakiokkeen arren, eragin handiagoa izan dute interesdunen eskariei eta errekurtsoei behar den epean erantzuteko betebeharrari buruzko kexek, zeinak 2008an 2007koen hiru halako izan baitira. Eragin handia izan dute, halaber, administrazio publikoek euskara erabiltzeari buruzko kexek, zeinak 3 izatetik 37 izatera iritsi baitira. Bestela, 2008ko analisiak ematen dituen datuek agertzeraz ematen dute arlo ia guztietan gora egin duela kexen kopuruak. Salbuespenak ingurumena, hirigintza, justizia, lana, trafikoa eta barne arloak dira.

Kapitulu honen xedea denez urte osoan aurkezturiko kexei buruzko informazioa ematea, kexak gaiaren arabera bildu ditugu, erakunde honek kexa-espedienteetan egin dituen iradokizunak eta legezko betebeharren gogorazpenak aipatu gabe, horiei buruzko informazioa III eta VI kapituluetan ematen baitugu.

Azken batean, helburua da informazioa ematea herritarrek planteatzen dituzten arazoei buruz, alde batera utzita erakunde honek kasu zehatz bakoitzean esku hartzeko dauzkan aukera errealak, eta alde batera utzita, halaber, zein izan den kexa bakoitzari eman zaion tramitea edo gure jardunak amaieran zein emaitza izan duen. Bilatzen duguna da informazio hori baliagarria izatea Nafarroako Parlamentuari, administrazioei eta komunikabideei –iritzi publikoaren isla direlako–, bai eta txosten irakurtzen duten guztiei ere, modu eraginkorrean transmititzeko nolako kezkak dituen Nafarroako gizartearen zati batek.

Gaiaren araberako aurkibidea ordena alfabetikoan ematen dugu, kapitulu honen kontsulta errazteko.

2.2. AURKEZTUTAKO KEXAK, GAIAREN ARABERA

2.2.1. Nekazaritza

2008an 17 kexa aurkeztu ziren nekazaritzaren arloari buruz; 2007an, berriz, 9 izan ziren.

Oro har, kexa horiek erregistraturiko kexa guztien % 2,6 egiten dute. Portzentaje hori 2007koaren ia berdina da, orduan % 2,1 izan baitzen. Horrenbestez, esan dezakegu arlo horretan ez dagoela erakunde honek esku hartzeko eskari askorik.

Kexa ia guztiak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari buruzkoak dira.

Honako hau da kexa aipagarrien aurkibidea:

- Desadostasunak eta erreklamazioak lur sailen berrantolamenduko prozesuetan adjudikatutako ordezeko finkengatik edo haien azalerarengatik.
- Lur sailen berrantolamenduko prozesuetan erantzunik edo informaziorik ez jasotzea.
- Desadostasuna Nafarroako eremu batean ezarri beharreko ureztaketa-programarekin.
- Prozedurazko akatsak Europar Batasuneko Nekazaritza Politikaren laguntzen eskari baten tramitazioan.

- Desadostasuna nekazari gazte gisako lehen instalazioan lortutako laguntza baten ordainketaren eskariarekin.
- Desadostasuna herri-lurretako lur sailen zozketa batean adjudikatutako lur sailekin.
- Departamentu eskudunak ez erantzutea herritar batek herri-lurren aprobetxamenduei buruz aurkezturiko zenbait idazkiri.
- Desadostasuna abeltzaintza-ustiategi batean Bruzelosi probaren emaitza bati emandako kalifikazioarekin, eta haserrea departamentu eskudunak interesdunak aurkezturiko idazkiei ez erantzuteagatik.
- Abeltzaintza-ustiategi batean saneamendu proba ofizialak egiterakoan abere bati eragindako kalteengatik eskatutako ordaina ukatzea.
- Tuterako eskualdeko hiltegiaren egungo egoera ekonomiko eta fisikoaren azalpena.

2.2.2. Gizarte Ongizatea

2008an 60 kexa aurkeztu ziren; 2007an, berriz, 49 izan ziren. Kexa hauek aurkeztutako kexa guztien % 9,2 egiten dute; 2007an, berriz, % 10,9 egiten zuten. Ondoko gaiei buruzko kexak izan dira: pertsona zaharrei laguntzeko eta babesteko premiari buruzko 15 kexa; adingabeei buruzko 7 kexa; ezgaitasunari buruzko 17 kexa; familiari eta familia eta lana bateratzeari buruzko 8 kexa; Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen aplikazioari buruzko 7 kexa, eta gizarte premiako beste egoera batzuei buruzko 6 kexa.

Honako hau da kexen aurkibidea, gaiaren arabera:

Zaharrak

- Desadostasuna zaharrentzako egoitzen sarbiderako eta egonaldietarako baldintzekin; zehazki honakoei dagokienez:
 - Egoiliarraren herritik urrun dauden egoitzetan plaza ematea.
 - Egoitzetako egonaldiengatiko prezioek eta tarifek gora egitea.
 - Egoitza itunduetan plazarik ez egotea.
- Egoitza bateko egonaldi batean sorturiko zorrari buruzko informazio falta eta ordainarazpena.
- Departamentu eskudunak ez ebaztea egoitza bateko egonaldi baten kostua ordaintzeko laguntzaren eskaria.
- Beharrik gabeko geroratzeak Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionaleko Nafarroako Zuzendaritza Probintzian eskatutako alarguntasun eta umezurtza pentsioak ematerakoan, hitzarmen hispano-mexikarrak babestuta
- Espainiak San Frantziskon (Estatu Batuak) duen kontsulatuan buruturiko administrazio-prozedura batean, erretiro pentsio bat aitortzeko, ebazpena aldekoa ez izatea.
- Alarguntasun pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko laguntza ez ordaintzea.

- Desadostasuna departamentu eskudunak 65 urte betetzerakoan ematen dituen prestazio ekonomikoen beherakadarekin.
- Lan eta Gizarte Ministerioak ukatzea etxebizitza alokatu batean ohiko bizilekua duten kotizaziorik gabeko pentsiodunentzat ezarritako pentsio-osagarriaren eskaria.

Adingabeak

- Seme-alabak, egoitza batean harrera-egoeran daudenak, familiaren etxera itzultzeko eskaria ukatzea.
- Desadostasuna aldi baterako harrera-egoeran dauden hiru seme-alaben bisita-ordutegia aldatu delako.
- Adingabe baten familia-harrerako eskariaren izapidean aurka esku hartzea.
- Adingabe baten adopzio-prozesuaren aurka esku hartzea.
- Familia-bitartekotzaren zerbitzuak pertsona baten aurka zuzengabe jotzea.

Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren jokabideari buruzko kexa horiez gainera, ondoko biak aurkeztu ziren:

- Andaluziako arartekoak ez ebaztea eskola-jazarpena dela-eta aurkeztutako kexa bat.
- Desadostasuna mankomunitate batek adingabeei “Joan eta etorri” gaueko garraio-zerbitzua eskaintzearekin.

Ezinduak

- Desadostasuna aitortutako minusbaliotasun graduarekin edo haren berrazterketarekin.
- Desadostasuna aitortutako minusbaliotasun gradua atzeraeraginik gabekoa izateari buruzko erabakiarekin.
- Buruko gaixotasunen bat duten pertsonak egoitzetan sartzeko eta egoteko baldintzak.
- Ezgaituentzat egokitutako garraio-zerbitzuen funtzionamendua eskasa eta behar adinakoa ez izatea.
- Minusbaliotasuna aitortua duten pertsoneri aparkatzeko txartelak ukatzea.
- Ezgaitasuna duten pertsonak lanera garraiatzeko zerbitzurik edo laguntzarik ez izatea.
- Ezgaitasun bat duten pertsonentzako oztopo fisikoak egotea.
- Kuxin ortopediko bat erosteko laguntza ukatzea.
- Ezgaitasun psikiko txikia duten gazteen kolektiboak lanaren munduan sartzeko dituzten zailtasunei buruzko salaketa, eta Foru Komunitateko administrazioak kolektibo horrentzat berariazko jardunbiderik ez izatea.

Familia eta familia eta lana bateragarri egitea

- Foru Komunitateko administrazioak familia eta lana bateragarri egiteko neurriak ez ezartzea (lanaldia zortziren batean murrizteko aukera ematea, bularra emateko baimena lanaldi osotan pilatzea).

- Haurtzaindegiko kostua ordaintzeko emandako laguntzaren ordainketa atzeratzea.
- Desadostasuna premiako ondasun bat erosteko aparteko laguntza ez ematearekin.
- Desadostasuna Gizarte Gai, Familia, Gazteria eta Kirol Departamentuak ahalmena edukitzearekin generoko indarkeriaren biktima izateari buruzko ziurtagiriak emateko, zigor arloko auzian kasua arxivatu denean.
- Desadostasuna emakume langile bati laguntza bat ukatzearekin.
- Geroratzea seme-alabentzako hezitzaile baten kostua ordaintzeko prestazio ekonomikoa jasotzerakoan.
- Eskatzailearen premia larri batean, esku hartzeko eta laguntza emateko eskaria.

Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen aplikazioa.

- Norberaren etxean zainketak lortzeko laguntza ukatzea.
- Desadostasuna menpetasun handiaren aitortpen bati atzeraeraginak izateari ezezkoa ematearekin, eta, horrenbestez, norberaren etxean zainketa-zerbitzuak lortzeko jaso ez den laguntzaren zenbatekoa ez ordaintzearekin.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzu bat ematen duten pertsonen koordinazio eza.
- Desadostasuna “Mendekotasun moderatua, 2. maila” aitortpenarekin.

- Desadostasuna kexa aurkezten duen pertsonak ezindutzat eta menpeko handitzat deklaraturako senide batengatik diru-ekarpen bat ordaindu behar izatearekin.
- Ezezkoa ematea menpetasun egoera bat aitortzeari eta laguntza publikorik ez izatea behar den laguntzaren kostua ordaintzeko.
- Menpetasun handiko egoeran dagoen pertsona baten zainketarako laguntza ekonomikoa ukatzea.

Kexa horiek guztiak Foru Komunitateko administrazioaren jardunari buruzkoak izan ziren.

Pobrezia eta gizarte bazterketa

- Etxez aldatzeko eskaria, etxebizitza aurri egoeran egon eta behera etorri delako.
- Udalak ezezkoa ematea gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsona baztertuei laguntza emateko zentro bat jartzeari.

2.2.3. Elebitasuna

Elebitasunarena da 2008an kexa-hazkunde handiena izan duten arloetako bat. Arlo horretan, 37 kexa aurkeztu dira; 2007an 3 baizik ez ziren izan (bi funtzio publikoaren arloan erregistratuak eta beste bat hauteskunde-administrazioaren arloan). Horrenbestez, 2008an aurkezturiko kexa guztien % 5,7 egiten dute; 2007an, aldiz, % 0,6 baizik ez ziren. Hazkunde horren arrazoi nagusia da Behatokia Fundazioak arartekoaren erakundeari igorri izana Nafarroako administrazio publikoek hizkuntza-eskubideen balizko urratzeari buruz herritarrek fundazio horri igorritako kexak.

Aurkeztutako kexetatik, 10 egoitza eta eremu publikoetako errotulazioari buruzkoak ziren; 5 inprimakien eta dibulgazio-materialen argitalpenei buruzkoak; 21 herritarrekiko komunikazioei buruzkoak, eta 1 administrazio publikoko lanpostuetan hizkuntza-profilak zehazteari buruzkoa.

Honako hau da kexen aurkibidea, gaiaren arabera:

- Eskualde mistoko udal batean, kale eta erabilera publikoko eremu batzuetako errotuluak soilik gaztelaniaz jartzea.
- Foru Komunitateko administrazioeko egoitza batzuetako errotuluak soilik gaztelaniaz jartzea.
- Eskualde euskaldunetan lan egiten duen Foruzaingoaren ibilgailu baten errotuluak soilik gaztelaniaz egotea.
- Eskualde mistoko udal batek jaiei buruz argitaraturiko liburuxketako informazioa gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez egotea, baina ez euskaraz.
- Nafarroako Tributu Ogasunaren 2007ko errenta kanpainari buruzko informazio afixak soilik gaztelaniaz egotea.
- Foru erkidego osoan egitekoa zen lehiaketa bateko triptikoak eta afixak soilik gaztelaniaz ematea D ereduko ikastetxe bateko ikasleei.
- Eskualde euskalduneko udal batzuek kontribuzioari buruzko ordainagiriak euskaraz ez igortzea.
- Desadostasuna errentaren aitopeneri buruzko proposamena soilik gaztelaniaz jasotzearekin.

- Eskualde euskaldunean bizi direnek sendagilearen zitazioak soilik gaztelaniaz jasotzea.
- Nafarroako eskualde euskalduneko egoileei osasun bakarko txartelaren euskaraz bidalpen falta.
- Foru Komunitateko administrazioaren departamentuetan euskaraz ez erantzutea hitz egiteko hizkuntza hori hautatzen duten herritarrei.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko 2008ko ikasturterako masterretarako eta doktoretza ikastaroetarako aurrez izen emateko inprimakiak euskaraz ez egotea (inprimakiak Unibertsitateko web orrian jarri ziren).
- Eskualde mistoko ikastetxe publiko bateko zerbitzu anitzetako lanpostu baterako euskaraz jakitea eska dadin exijitzeko eskaria.

2.2.4. Merkataritza

Merkataritzaren arloan 11 kexa aurkeztu dira guztira (guztien % 1,7 egiten dute); 2007an, aldiz 3 izan ziren (guztien % 0,6).

Kexen edukian kontsumitzailearen babesarekin loturiko gaiak azaltzen dira. Honako hau da gai horiei buruzko laburpena:

- Desadostasuna turismo-azoka bateko bidaiarako zozketan jarraitutako prozedurarekin.
- Arreta eskasa, informazio falta eta arazo batzuk, energia-potentziaren aldaketa bat dela-eta konpainia elektriko batekin sortutakoak.

- Telefonia konpainia batek fakturazioa behar bezala ez egitea.
- Konpainia elektriko batek fakturazioa behar bezala ez egitea.
- Transferentzia bidez ondasun baten kostua ordaindu ondoren, ardo-enpresa batek ondasun hori ez ematea.
- Aseguru-enpresa bati kalteak erreklamatzeari.
- Erreklamazio bat, banku-entitate batek kontuei buruzko informazioa ez emateagatik.
- Establezimendu bati kopuru bat ezin erreklamatzeari, itxi delako.
- Organo eskudunak kontsumoaren arloko erreklamazio batean erantzunik ez ematea.
- Departamentu eskudunak ezer ez egitea ustezko iruzurrezko publizitateko kasu batean.

2.2.5. Kultura

2008an, bi kexa aurkeztu ziren arlo honetan: bata kultur kolektibo batek emandako ikastaroetarako matrikulazio prezioen eta urteko kuotaren igoerari buruzkoa; eta bestea arloan eskuduna den departamentuak arte-ikasketak zabaltzeko beka bat ukatzeari buruzkoa beka ukatzearen arrazoia izan zen deialdian parte hartzeko eskaria aurkezteko unean baldintza bat ez kreditatzea.

2.2.6. Hezkuntza eta irakaskuntza

Arlo honetan, 34 kexa aurkeztu ziren 2008an; 2007an, berriz, 18 aurkeztu ziren. Guztira aurkeztutako kexen % 5,2 egiten dute; joan den urtean, berriz, % 4 egiten zuten. Kexen kasuistika era askotakoa izan zen, eta hezkuntzaren maila guztietan izan zuen eragina.

Eduki zehatzari dagokionez, honakoa da gaien aurkibidea:

Haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak (0 – 3 urteko zikloa)

- Desadostasuna udal titularitateko haur eskola bateko harrera-prozesuari buruz, lehentasunezko zerrenda bat egoteagatik udalean errolatutakoentzat.
- Desadostasuna haur eskola publikoetan sartzeko baremoarekin, uste baita enplegu egonkorra duten pertsonen mesede egiten diela eta ez dituela aintzat hartzen aldi baterako lanak dituztenen inguruabarrak.
- Udal bateko haur eskola publikoetan lan egiten duten langileen aldarrikapenei babesa ematea.
- Desadostasuna udal bateko haur eskoletako harrera prozesuari buruz.
- Udal batek udalaren eskolako ordutegia ez egokitzea Hezkuntza Departamentuak haur hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen funtzionamendurako onetsi zituen arauetara.

Haur hezkuntzako bigarren zikloa eta derrigorrezko irakaskuntzak

- Ikastetxe pribatu bateko jantokian behar adina toki ez egotea.
- Ikastetxe publiko bat funtzionamenduan jartzea hura eraikitzeke obrak behin betiko bukatu baino lehenago.
- Desadostasuna eskola publiko bateko ikasleak beste eskola publiko batera eramatearekin eraikinean obrak egiteko.
- Eskualdeko ikastetxe publiko bateko patioan ebakuazio-eskaileretan arazoak egotea.
- Pirinio aldean beste ikastetxe publiko bat eraiki beharra, oraingoaren egoera txarrarengatik.
- Ikastetxe pribatu bateko eskola jantokian hezkuntza premia bereziak dituen neska batentzako zaintzailea falta izatea.
- Desadostasuna departamentu eskudunak ikasle bat eskolaz aldatzeko eskariari ezezkoa eman izatearekin.
- Berdintasun eza funts publikoekin mantendutako ikastetxeetarako sarbidean, antzinako ikaslearen irizpide osagarria aplikatzearen ondorioz.
- Ikastetxez eta hizkuntza ereduaz aldatzeko eskari bati buruz behar adina informazioa ez ematea.
- Departamentu eskudunak irizpide homogeneorik ez edukitzea ikastetxe itunduetan ikasgela bakoitzeko ikasleen gehieneko kopurua zehazteko eta handitzeko garaian.

- Departamentu eskudunak ez erantzutea hizkuntza ereduaz aldatzeko eskari bati.
- Desadostasuna ikastetxe publiko bateko D eremuan ezarritako eskola ordutegiarekin, eskola-autobusaren ordutegiarekin bat ez datorrelako.
- Ikastetxe pribatu batean ikasle bati tratu bidegabea eman izateari buruzko salaketa.
- Irregularitasunak ikasle baten diziplina-espeditentea tramitatzera (espeditentearen ebazpen formala egin aurretik ezarritako zehapena betearaztea).
- Desadostasuna oinarrizko hezkuntzarako testuliburu finantziario sistemari buruz; zehazki, guraso batzuek doakoak izan beharko luketen liburuen kostua ordaindu behar izateagatik.

Bestelako irakaskuntzak

- Hizkuntza Eskola Ofizialeko ikasleak ados ez egotea hizkuntza irakaskuntzetako ikasmilak gainditzeko deialdi bikoitza (ekaina-iraila) desagerraraztearekin.
- Desakordia musika proba batean (jazz tronpeta) lortutako kalifikazioarekin, eta haserrea irakasleengandik jasotako tratuegatik.
- Erdi mailako irakaskuntzetarako ikasketa-beka bat ukatzea.
- Desadostasuna musika ikasketen seigarren mailara sartzeko proba bat exijitzearekin.

Unibertsitateko irakaskuntza

- Unibertsitatean ikasteko beka bat ez ematea, eskatzailearen per capita errenta deialdiak ezarritako gehienekoa baino handiagoa zela eta.
- Ezezkoa ematea baliogabetutako matrikula bateko diruzenbatekoa itzultzeari.
- Desadostasunak doktoretza-tesietako zuzendariekin eta tesiak ezin aurkeztea zuzendari horiek baimena ez emateagatik.

Tituluen baliokidetasuna eta homologazioa

- Estatuko administrazio orokorrean sartzeko ikasketa batzuk baliokidetzat hartzeko eskariari ezezkoa ematea.
- Adostasunik eza Portugalen lorturiko titulu bat ez homologatzearekin, eta horren ondorioz ezinezkoa izatea Estatuko administrazio orokorrean sartzeko hautapen prozesu batean parte hartzea.

2.2.7. Atzerritarrak

Atzerritartasunaren inguruko gaietan 9 kexa aurkeztu ziren 2008an; 2007an, berriz, lau baizik ez ziren aurkeztu. Kexa guztien kopuruarekin alderatuta, portzentajea bera da, % 1,4 inguru. Gehienak, zegozkion eskumen esparruari erreparatuta, Gorte Orokorrek izendatutako arartekoari igorri zitzaizkion.

Edukiari dagokionez, hola laburpena:

- Familia birbiltzeko bisatu bati ezezkoa ematea.

- Espainiak Bogotan daukan Kotsulatu Orokorrak turista bisatu bati ezezkoa ematea.
- Espainiak Algerren daukan Kotsulatuak bi turista bisaturi ezezkoa ematea.
- Erregistro zibil zentrolean ezezkoa ematea Marokon eginiko ezkontza koraniko bat inskribatzeari.
- Errumaniak Espainian duen kotsulatuan zailtasunak aurkitzea pasaportearen kopia bat lortzeko.
- Egoitza-baimenik ez ematea zigor-aurrekariak edukitzeagatik.
- Desadostasuna lurralde nazionaletik kanporatzeko eta hartan hiru urtez sartzeko debekatzeko ebazpenarekin.
- Zailtasunak pasaportea eta egoitza-txartel iraunkorra berritzeko.
- Marokoko adingabe atzerritar batek egoitza-baimena izateko zailtasunak.

2.2.8. Funtzio publikoa

2008an funtzio publikoaren arloan erregistraturiko espedienteek gora egin zuten bigarren urtez jarraian. Aurreko urtean 54 izan ziren eta 2008an 65. Hala eta guztiz ere, arlo honetako kexen kopurua, kexa guztiekin alderatuta, 2007an % 12 izatetik 2008an % 10 izatera pasa da.

Jasotako 65 kexetatik, erdia baino gehiago, 35 kexa hain zuzen, lanpostuetara sartzeko eta lanpostuak betetzeko prozedurei

buruzkoak izan ziren; 2 kexa mugikortasunari buruzkoak; 12 kexa ordainsarien araubideari eta karrera administratiboari buruzkoak; 6 kexa funtzionarioen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak; 2 kexa diziplina araubideari buruzkoak eta 8 kexa eskubide pasiboari eta gizarte segurantzari buruzkoak.

Honako hau da arlo honetako kexa aipagarrien aurkibidea:

Lanpostuak esleitu eta betetzea

- Adostasunik eza Nafarroako administrazio publikoetan sartzeko deitutako hautapen prozesuetan izendatutako epaimahaiek emandako puntuazioekin.
- Desadostasuna Nafarroako Foruzainguan sartzeko prozesuan onartutako izangaien izenak argitaratzearekin.
- Desadostasuna suhiltzaileen kidegoan sartzeko deialdian ezarritako gehieneko adinaren mugarekin.
- Adostasunik eza farmaziako teknikaria titulua (erdi mailako lanbide heziketa) ez aintzat hartzearekin Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Ospitale Farmaziako zerbitzuetan lan egiteko.
- Zenbait lanpostu huts merezimenduen lehiaketaren bidezko leku-aldatzeaz betetzeko onartutako deialdi batean parte hartu ondoren lortutako lanpostuaren jabetza-hartzea gerarazita egotea.
- Hasiera batean lanposturik gabe geratu ziren lehenbiziko bi parte-hartzaileei lanpostua ez ematea, lekualdatze lehiaketan lanpostuak adjudikatu eta adjudikazioa lortutakoek lanpostuen jabetza ez hartu eta gero.

- Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak deitutako hautapen prozesuetan aurkeztutako gora jotzeko helegiteen ebazpena geroratzea.
- Adostasunik eza Maisu-maistren Kidegoan sartzeko deialdi batean hautaprobak gainditutakoen zerrendatik kanpo geratzearekin, beste izangai batek aurkeztutako gora jotzeko helegitea baiestearen ondorioz.
- Desadostasuna udal batek ethez etxeko laguntza zerbitzua kudeatzeko enpresa publiko bat sortzeko erabakia hartu izanarekin.
- Adostasunik eza departamentu bateko bulegoburu eta atalburu lanpostuak betetzeko irizpideekin eta moduekin.
- Desadostasuna nekazaritza-ingeniarria titulua zuten pertsonak ez onartzearekin Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak nekazaritzako ingeniari teknikoko lanpostua betetzeko egindako deialdietan.
- Entzunaldia izateko eta defendatzeko eskubideak urratzea oposizio-lehiaketa bidezko barne sustapen murriztuko prozesu bateko ebazpenaren aurka aurkeztutako gora jotzeko helegite bat baiesteak ukitutako pertsonen.
- Desadostasuna aldi baterako kontratazio baterako izangaien hiru zerrenda egiteko deialdian eskatutako baldintzekin.
- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko lanpostuak betetzeko deitutako prozedura batean Nafarroako Parlamentuko Mahaiari aurkeztutako helegite bat ez onartzea.

- Adostasunik eza administrazio teknikaria titulua ez eskatzeagatik Nafarroako administrazio publikoetako administrari laguntzaile lanpostuetan sartzeko.
- Desadostasuna Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren zerbitzuko lanpostuak betetzeko oposizio-lehiaketa batean izangaiak hautatzeko aurreikusi ziren proba fisikoen edukiarekin.
- Zenbait hautapen prozesutan probak berrikusteko ezintasuna eta epaimahaien gardentasunik eza.
- Bazterkeria zenbait irakaskuntza kidegotan sartzeko deitutako hautapen prozeduran, autonomia erkidego batean lan egiten ari diren behin-behineko funtzionarioek ezin aurkezteagatik ezagutzak baloratzen dituen kasuko administrazioaren txosten bat ariketa bat egin beharrean.
- Adostasunik eza Espainiako edo Europar Batasuneko estatu bateko nazionalitatea eskatzeagatik lan araubideko aldi baterako lanpostu bat betetzeko hautapen prozeduran parte hartzeko.
- Mugikortasuna
- Ezezkoa pertsona bati bere baldintza fisiko eta sanitarioen arabera lanpostu batean birkokatzeko.
- Desadostasuna Nafarroako toki entitate batzuetako idazkari lanpostu hutsak betetzeko prozedurarekin, urriaren 29ko 11/2004 Foru Legean jasotako aurreikuspenen arabera.
- Adostasunik eza funtzionario irakasle baten orientatzaile gisako zerbitzu bereziak luzatzeari ezezkoa ematearekin.

Ordainsarien araubidea

- Nafarroako Mendekotasun Agentziari atxikitako osasun diplomatuak lanbide karreraren sistematik kanpo geratzea (maiatzaren 30eko 8/2008 Foru Legea).
- Gizarte Gai, Familia, Gazteria eta Kirol, Lehendakaritza, Justizia eta Barne eta Hezkuntza departamentuei atxikitako erizaintzako diplomatuak lanbide karreraren sistematik kanpo geratzea (maiatzaren 30eko 8/2008 Foru Legea).
- Gizarte Ongizate eta Hezkuntza departamentuei atxikitako Fisioterapiako osasun diplomatuak lanbide karreraren sistematik kanpo geratzea (maiatzaren 30eko 8/2008 Foru Legea).
- Ezezkoa ematea lan arriskuen prebentziorako arloko langileak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboetarako aurreikusitako lanbide karreraren sisteman sartzeko eginiko eskariari.
- Gradua, antzinasuna eta seme-alabengatiko laguntza ez aitortzea Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan administrazio-kontratua duten langileei.
- Seme-alabengatiko laguntza jasotzeko eskubidea ez aitortzea.
- Ezezkoa ematea toki entitate batean lanpostu bati gehitutako eginkizunengatik ordainsariak ordaintzeko eskariari.
- Aparteko lan orduen konpentsazioa atsedeen-denboran eta ez dirutan gauatzeko eskariari ezezkoa ematea.

- Atzerapena Nafarroako Foru Komunitateko bi bekadunei zegozkien ordainsarien ordainketan.
- Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratatutako irakasleei antzinasuna ez aitortzea.

Eskubideak eta eginbeharrak

- Bularra emateko baimena lanaldi osotan pilatzeko eskariari ezezkoa ematea.
- Hezkuntza Departamentuak ezezkoa ematea seme-alaben zainketarako lanaldi murrizketa egiteari eskatzailearen lanposturako ordezkoa aurkitu bitartean.
- Desadostasuna borondatezko eszedentzia bati ezezkoa ematearekin.
- Adostasunik eza lan kontratudun langileen amatasun baimena funtzionarioena baino laburragoa izateagatik.
- Desadostasuna Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen jokabidearekin, erizaintzako langileen greba baterako ezarritako gutxieneko zerbitzuak aplikatzeko garaian.
- Desadostasuna burutza kargu batetik kentzeagatik.

Diziplina araubidea eta kargutik bereiztea edo kentzea

- Udal administrazioak ezer ez egitea aurkeztutako tratu profesional txarreko salaketen aurrean.

Eskubide pasiboak eta gizarte segurantzza

- Bere garaian aitortutako ezgaitasun gradua berrikusteko eskariari ezezkoa ematea, Nafarroako Foru Komunitateko

administrazioaren ustetan ezgaitasun iraunkorreko deklarazioak, larriagotze edo akats diagnostikoko kasuetan, ezin direlako berrikusi 10/2003 Foru Legearen aurreko sistemari atxikitako langile funtzionarioen eskubide pasiboen araubidean dauden funtzionarioen kasuan.

- Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legean aurreikusitako eskubide pasiboen sisteman sartzearabaki duten funtzionarioak sistema horretan sartzeko akordioa berandu hartzea.
- Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legean aurreikusitako eskubide pasiboen sistema berrian ez onartzea.
- Antzintasunaren ondorioetarako zerbitzu militarrean emandako denbora ez aitortzea.
- MUFACEn arreta txarra ematea.
- Funtzionarioen Montepioan edo Gizarte Segurantzanzartzeko tramitazioa ez egitea.
- Erretiroaren ondorioetarako, ez aitortzea ezgaitasun bat lan-istripu batetik nahiz lanbide-gaixotasun batetik heldu dela.
- Hezkuntzaren Lege Organikoan aurreikusitako erretiro aurreratuen osagarria ez ematea.

2.2.9. Ogasuna

Ogasunaren arloko kexek nabarmen egin dute gora. Izan ere, 2008an erregistratutakoak 36 izan ziren; 2007an erregistratutakoak, berriz, 16 baizik ez. Guztizkoan egiten duten portzentajea, berriz, % 3,6 izatetik % 5,5 izatera pasa da.

Kexen edukiaren araberako ondoko aurkibidea egin dugu:

Foru Ogasunaren tributua

- Desadostasuna higiezin baten balorazioarekin, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren ordainketari dagokionez.
- Desadostasuna tributu-zor batek sortutako interesekin.
- Ez onartzea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren auto-likidazioaren zuzenketa bat, banakako tributu-ordainketaren aukeraren alde egiteko.
- Desadostasuna zor-deklarazioarekin eta tributu-ikuskapen baten ondoren ezarritako zehapenarekin.
- Desadostasuna Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren deklarazioko likidazio-oinarrian ez jartzeagatik minusbaliotasunagatiko eta aurrekoengatiko familien gutxienekoen kenkaria.
- Desadostasuna etxebizitza-kontu batean eginiko ekarpenengatik aplikatutako kenkariak –gehi interesak– itzultzeko erreklamazioarekin. Erreklamazioa egin zen kontutik dirua atera zelako adjudikatutako etxebizitza baten ordainketak egiteko, baina kontratuari ez zitzaion bisatua eman.

- Desadostasuna Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarrian ezin ketzeagatik deklaraturako diru-sarrerak lortzeko sorturiko gastuak.
- Bikote bateko bi kideen artean, bereizi eta ondoren, tratu fiskalean gertatzen den desadostasunari buruzko salaketa.
- Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren likidazioarekin ados ez egotea, Nafarroan dagoen ondasun higiezin baten salmenta dela eta.
- Tributu-zorraren erreklamazioarekin ados ez egotea.
- Ados ez egotea aurreko ekitaldietako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren deklarazioekin.
- Desadostasuna BEZarengatiko zor baten erreklamazioarekin.
- Kexa zergadunek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako % 0,7aren erabilerarekin, hain zuzen ere zergadunek zerga horren aitopenean aukeran dutena.
- Desadostasuna Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioen aldaketarekin.
- Desadostasuna Oinordetzen gaineko Zergaren ordainketa dela-eta Tributu Ogasunak exijitzen duen ordainarazpen aldiko errekgarekin.
- Desadostasuna Nafarroako Tributu Ogasunak bere aldeko diru-atxikipen batzuk direla-eta izan duen jokabidearengatik, formulario jakin bat falta izateagatik.

- Desadostasuna Tributu Ogasunak egindako erreklamazio batengatik, Ondare Eskualdaketan gaineko Zerga garaiz kanpo deklaratzegatik.
- Desadostasuna Tributu Ogasunak eginiko bahitura batengatik.
- Zailtasunak Foru Ogasunarekin lotutako izapide telematikoak egiteko.
- Desadostasuna bere sozietatea erkidego barneko operatzaileen erregistroan ez sartzegatik.
- Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergan ahaidetasun gradu desberdinetan aplikatu beharreko karga-tasari buruzkoa.

Toki zergak

73

- Desadostasuna udal batek hiri-lurzoruen balio-igoeraren gaineko zergaren ordainketa zatikatzeko ematen duen epe laburrarengatik.
- Desadostasuna mankomunitate batek erreklamatzegatik zaborren bilketako eta hiri hondakin solidoen tratamenduko tasaren kobrantza.
- Udalak ezezkoa ematea itzultzeari egoiliarrentzako aparkatze txartelean baja emateari zegokion diru-kopurua.
- Udal igerilekuen erabilerarengatik udalak ezartzen duen tratu-desberdintasuna, errolda-tokiaren araberakoa.
- Desadostasuna kontzeju-batzar batek kanalizatze obra baten exekuzioaren aurrekontutik kopuru bat kobratu nahi izategatik.

- Desadostasuna udal batek hirigintza kontsultengatik tasa bat ordaintzea exijitzearekin.
- Desadostasuna udal batek 2008ko ibi-tasaren ordainketa exijitzearekin.
- Desadostasuna udal batek hirigintza-kuota bat kobratu nahi izatearekin.
- Desadostasuna ureztatzaileen elkarte batek eginiko bahiturarekin.
- Desadostasuna udal batek abiatutako bahitura-eginbidearekin.

Estatuko Tributu Agentzia

- Desadostasuna agentziaren ebazpen batekin. Eskatzen zen aldeztatik ordaintzea 2003ko Pertsona Fisikoen gaineko Zergako amatasun-kenkaria. Ezezkoaren arrazoia ezarritako baldintzak ez betetzea izan zen.
- Desadostasuna premiamendu-probidentzia batekin.

2.2.10. Eskubideak sustatzea – Herritarren eskubideen bermea administrazio publikoekiko harremanetan

Arlo honetan 70 kexa aurkeztu ziren. 2008an, kexetan igoera handiena gertatu den arloa da. 2007an, 19 kexa erregistratu ziren. Kexa guztien kopuruan % 10,8 egiten dute, eta aurreko urtean % 4,25 baizik ez zuten egiten. Hori dela eta, 2008an kexa gehien aurkeztu diren arloa da.

Epigrafe honetan, herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan dauzkaten eskubideekin lotutako keak sartzen dira; esate baterako, informaziorako eskubide orokorra, zentro eta bulegoetara sartzeko eskubidea, arreta egokia hartzeko eskubidea, erantzuna jasotzeko eskubidea (administrazio isiltasuna), herritarren parte-hartzea, kudeaketaren gardentasuna, berme-sistemen grapena eta eskubideak bultzatzeko bestelako ekintzak.

Herritarrek aurkezturiko keak ondoko gaiei buruzkoak izan dira:

Informaziorako eskubidea eta administrazioek erantzuteko daukaten betebeharra

- Udal batek informaziorik ez ematea lurralde- eta hirigintza-gaiei buruzko zenbait eskari egin ondoren.
- Desadostasuna Defentsa Ministerioak emandako erantzunarekin, ahaide baten gradu militarri buruz egindako galdera baten ondoren.
- Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren departamentu batzuetan informazioak eskatu eta erantzunik ez jasotzea.
- Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren departamentu batek administrazio-espediente baten dokumentazioa ikusten ez uztea.
- Osasun-etxe batean ahaide baten heriotzari buruz informazio eskasa ematea.
- Udal batzuetan aurkezturiko informazio-eskarietan eta helegiteetan erantzunik ez ematea.

- Nafarroako Administrazio Auzitegiak gora jotzeko errekurso baten ebazpena geroratzea.
- Udal baten artxibo administratiboan kontsulta egiteko eskari bati erantzunik ez ematea.
- Udal batzuek erantzunik ez ematea herritarren ondare-erantzukizunarengatik aurkeztutako kalte-ordainen eskariei.
- Kontzeju batzuen jarduera eza, eskariak behin eta berriz aurkeztu arren.
- Udal baten jarduera eza, ingurumenaren zainketaren arloko eskari baten ondoren.
- Mankomunitate batek informazio eskari bati ez erantzutea.
- Udal batek lur sailen berrantolamenduko prozesu batean aurkezturiko eskariari ez erantzutea.

Herritarren parte-hartzea eta gardentasuna

- Desadostasuna kontzeju batek ezezkoa emateagatik “eskariak eta galderak” tartean baliatuta hitz egiteari.
- Salaketa udal baten irregulartasun administratiboengatik.
- Udal batek bazterkeriaz jokatzeko udal kiroldegiko lokalen kudeaketa adjudikatzeko garaian.
- Kexa udal batek bere jai-egitarauan izen handiko musika talde batek joko zuela jartzeagatik. Emanaldia, azkenean, ez zen egin.

Beste batzuk

- Desadostasuna TVE telebista kateak zezenketak emateagatik.

2.2.11. Industria

Industriaren arloan, aurreko urteetako ildoari jarraituz, 2008an oso kexa gutxi aurkeztu ziren, hiru baizik ez (2007an, bakarra aurkeztu zen). Kexa horien portzentajea ez da urtean erregistratutako guztien % 1era iristen.

Honako hau da kexen aurkibidea:

- Eguzki plakak jartzeko diru-laguntza emateko prozeduran akatsak izatea.
- Energia aurrezteko eta eraginkortasun energetikoa sustatzeko jarduketetarako diru-laguntzen deialdia ebatzi gabe geratzea.
- Informaziorik ez ematea ziklomotoreetarako aldizkako ikuskapen teknikoaren derrigortasunari buruz.

2.2.12. Barne arloa

Barne arloan erregistraturiko kexen kopurua 2007koaren ia berdina izan zen. 2008an, 25 aurkeztu ziren, aurreko urtean baino bat gutxiago. Hala eta guztiz ere, arlo hau kexen guztizkoan % 5,8 izatetik % 3,8 izatera pasa da.

Arlo honen barrenean, 6 izan ziren espetxe administrazioari buruzko kexak. Kexa horiek Gorte Nagusietako arartekoari igorri zitzaizkion, zeren eta Nafarroako arartekoaren erakundearen jarduketa-eremua Nafarroako Foru Komunitateko administrazioetara mugatuta baitago. Espetxe arloko legediaren betearazpenean Foru Komunitateak eskumenak dituen arren, Estatuko administrazioak oraindik ez dizkio eskumen horiek Nafarroako Foru Komunitateari transferitu.

Honako hau da kexen datuei buruzko aurkibidea:

Herritarren segurtasuna

- Plaza publiko bat gaizki kontserbatzea, zaintza eta kontrol polizialik ez dagoelako.
- Udal batek abiarazitako zehapen prozedurekin ados ez egotea.

Espetxeen administrazioa

- Desadostasuna Iruñean espetxe berrirako aukeratu den tokia dela eta.
- Salaketa Iruñeko oraingo espetxean amentzako modulurik ez egoteagatik.
- Informazio falta bikotekidea atxilotu izanari buruz.
- Desadostasuna seme bati ez aplikatzeagatik espetxetik atera ahal izateko neurriak, zigorraren hiru laurdenak bete ondoren.
- Desadostasuna preso bat beste espetxe batera eramateagatik.

Polizia jarduketak

- Erakundeak esku hartzeko eskaria, Prozedura Kriminaleko Legearen babesean emandako agindu judizial baten arabera Estatuko segurtasun indar eta kidegoek eginiko atxiloketengatik.
- Erakundeak esku hartzeko eskaria, Prozedura Kriminaleko Legearen arabera atxilotu batzuei aplikaturiko inkomunikazio neurri bat dela eta.
- Kexa foruzainek labana bat dekomisoan hartu izateagatik.
- Kexa udaltzaingoko agenteek emandako tratuairengatik.
- Kexa Foruzaingoaren istiluen aurkako agenteek emandako tratuairengatik.
- Desadostasuna Foruzaingoaren agenteen jarduerarengatik, senarraren objektu pertsonalak, trafiko-istripu batean hil ondoren, anaia-arrebei emateagatik.
- Kexa Guardia Zibileko agenteek emandako tratuairengatik.
- Kexa Polizia Nazionaleko agenteek trafiko kontrol batean emandako tratuairengatik.
- Kexa Foruzaingoak eginiko erregistroarengatik eta nortasunaren egiaztapenarengatik.
- Kexa Poliziako agenteek identifikatzeko eskatzeagatik eta bere gauzak miatzeagatik, merkataritza gunen bateko segurtasun arduradunak eginiko identifikazio-akats baten ondorioz.

- Kexa Poliziaren Goi Buruzagitzaren eta Polizia Nazionaleko Kidegoaren Atzeritartasunerako Brigada Probintzialaren jarduketarengatik.

Tramite administratiboak

- Adingabe baten pasaporteak tramitatzean geroratzea.

2.2.13. Justizia

Justizia administrazioaren arloan, 13 kexa erregistratu ziren, 2007an baino hiru gutxiago hain zuzen. Kexa horiek 2008an aurkeztutako kexa guztien % 2 egiten dute.

Kexen edukiari dagokionez: 4 Justizia administrazioaren funtzionamenduari buruzkoak izan ziren; 3 doako justiziari eta lanbide elkargoen jarduerari buruzkoak; 3 erregistroen funtzionamenduari buruzkoak; 2 hauteskunde administrazioari buruzkoak, eta 1 Generoko indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren edukiari buruzkoa.

Jada aurreko txostenetan jakitera eman dugun bezala, Justizia administrazioaren funtzionamenduari buruzko kexak Estatuaren eskumen eksklusiboa dira. Hala eta guztiz ere, gai horretan, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 3/2000 Foru Legeko 13. artikulua ezarri zuen erakundeak berriaz islatuko zituela bere urteko txostenean Foru Komunitateko Justizia administrazioaren funtzionamenduari buruz jasotzen zituen kexak.

Bestalde, Justizia Ministerioaren menpe dauden erregistroen funtzionamenduari buruzko kexak Gorte Nagusietako arartekoari igorri zitzaizkion, hura baita haiek ikuskatzeko erakunde

eskuduna, erregistro horiek Estatuaren administrazioaren zeregina direlako.

Honako hau da arlo honetako erregistraturiko kexen aurkibidea:

Justizia administrazioa

- Bidegabeko geroratzea prozedura judizialen tramitazioan.
- Desadostasuna bere etxebizitza miazteko aginduarekin.
- Desadostasuna oinordekoen deklarazio batekin.

Abokatuen eta lanbide elkargoen jardun profesionala

- Desadostasuna Nafarroako Abokatuen Elkargoak ezetz esan izateagatik doako justizia izateko eskariari, Europar Batasuneko justizia auzitegi batean aurkeztutako auzi batean.
- Ofizioz izendatutako abokatuaren jardun profesional txarra.
- Notario baten akatsa eta hark eragindako kalteak.

Erregistroak

- Desadostasuna Espainiako nazionaltasuna lortzean deiturak ordenaz aldatzearekin.
- Desadostasuna ezkotzeko gaitasuna ukatzearekin.
- Polizia Nazionaleko Erregistro Zentralean zigor-aurrekariak oker jasota egotea.

Hauteskunde prozedura

- Desadostasuna Eskualdeko Hauteskunde Batzarrak ezezkoa eman diolako hauteskunde mahai batean parte hartzeko betebeharretik salbuesteko eskariari, bularreko alabari arreta eskaini behar ziolako.
- Hauteskunde erroldan jasotako datu pertsonalak alderdi politikoei edo sindikatuei ematearen aurka azaltzea.

Beste batzuk

- Desadostasuna Generoko indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzko abuztuaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan aurreikusitako neurriekin.

2.2.14. Gazteria eta Kirola

Gazteriaren eta kirolaren arloan, 2 kexa aurkeztu ziren. Kopuru hori, agi denez, oso baxua da. Kexa horiek guztizkoaren % 0,31 baizik ez dute egiten; 2007an, berriz, % 1,12 egin zuten, 5 kexa aurkeztu baitziren.

Honako hau da aurkibidea:

- Elkarte bat Nafarroako gazteria entitateen zentsuan inskribatzeari ezezkoa ematea.
- Iruñeko igerilekuetarako abonua emateko prozedurarekin ados ez egotea, bereziki adjudikazioen publizitate eskasarengatik.

2.2.15. Ingurumena

Ingurumenaren arloari buruzko 26 kexa aurkeztu ziren. Kexa guztien % 4 egiten dute. Arlo honetan beherakada bat gertatu da 2007an erregistraturiko kexen kopuruarekin alderatuta, orduan 33 baitziren –gutzizkoaren % 7,3–.

Edukiari dagokionez, kexak ondoko gaiei buruzkoak izan ziren:

Ingurumenaren arloko informazioa lortzea eta ingurumen arloko erabakietan parte hartzea.

- Herritarrek Nafarroako Abiadura Handiko Trenaren ezarpen-proiektuan parte hartzeko biderik ez egotea.
- Ukitutako administrazioek informaziorik ez ematea “HARAGIAREN HIRIA” “Izarbeibarko Jarduera Ekonomikoen Eremuan” ezartzeko aukerari buruz.
- Eremu esperimental bat ezartzeko ingurumen-afekzioen baimen-prozedurari aurkezturiko alegazioak ezestea.

Nekazaritza eta abeltzaintza ustiategiak

- Etxe ondoan kokaturiko abeltzaintza ustiategi batek eragindako enbarazua.

Kutsadura akustikoa

- Udal batean dauden “peñen gelek” sorturiko enbarazuak eta udalak arazoari konponbidea emateko ezer ez egitea.
- Etxe azpian haurrentzako parke bat edukitzeak sorturiko enbarazuak.

- Hurbileko futbol zelai batean eta haren ondoko frontoietan garatzen diren jarduerak enbarazu egitea.
- Eskobatzeko makinek udal bateko alde zaharrearain gauen sortzen duten zaratak enbarazu egitea.
- Berokuntzako/aire egokituko ekipo batek sorturiko zaratak eta udalak arazo horri konponbidea emateko ezer ez egitea.
- Supermerkatu batean instalaturiko motor-konpresore baten zaratak eragindako enbarazua.
- Kafetegi bateko zaratek sorturiko enbarazua.
- Taberna moduan diharduen lokal batean eragindako zaratak enbarazu egitea.
- Supermerkatu bateko makineriaren zaratak enbarazu egitea.
- Txakurrek eragindako enbarazua.

Ingurumena babestea

- Departamentu eskudunak ez zaintzea eta ezer ez egitea basoberritutako lur batzuetan sorturiko kalteengatik.
- Bardeatik heldu den erreka bateko drainatze ubidea ez garbitzea.

Hondakinen tratamendua

- Mankomunitate batek neurririk ez hartzea ur beltzak bide publikora ateratzeak sortzen duen arazoaren aurrean.

Antenak eta bestelako elementuak jartzea

- Salaketa herri batean telefonia mugikorreko antena bat egoteagatik.
- Antena parabolikoen instalazioari buruzko arauak ez betetzea eta udalak horri buruz ezer ez egitea.
- Desadostasuna transformagailu elektriko bat jartzearekin.
- Desadostasuna motor elektriko bat jartzearekin.

Arau-hausteengatiko zehapenak

- Desadostasuna udal batek ingurumenaren arloko arau-hauste batengatik ezarritako zehapenarekin.
- Desadostasuna arrantzarako lizentziarik gabe arrantzan aritzeagatik ezarritako isunarekin.

Faunaren babesa

- Animalia basatiak AP-15 eta A-68 autobietan bat-batean sartzeagatiko arriskua, lubetatan ezarri diren untxien plagarengatik.
- Salaketa AP 30 autobidetik hurbileko lur sail batean dauden zaldien egoerarengatik.

Beste hainbat

- Nafarroatik kanpoko txakurtegi batean animaliak abandonatzea eta haiei tratu txarra ematea.

2.2.16. Herrilanak

Herrilanen arloan, 15 kexa aurkeztu ziren. Kexa guztien % 2,4 egiten dute. Portzentajea 2007koaren antzekoa da, ordukoa % 2,2 izan baitzen. Halere, ekitaldi horretako kexak 2008koak baino sei gutxiago izan ziren.

Honako hau da kexen aurkibidea:

- Desadostasuna bere jabetzan eragina duen bide bat eraikitzearekin.
- Udalak ezezkoa ematea herriko kale batean abiadura seinaleak eta ibilgailuen pisua erregulatzeari.
- Desadostasuna lur sail baten afekzioarekin, saihezbide bat egiteko proiektu batean.
- Desadostasuna herriko kale bat berriz urbanizatzeko jardurekin.
- Desadostasuna udal batek eginiko obren ondorioz bere jabetzarako sarbiderik gabe geratu delako.
- Udalak finka bat modu bidegabean okupatzea.
- Herrilanen eta lur sailen urbanizazio lanen ondorioz batetik bestera joateko enbarazuak eta zailtasunak.
- Etxebizitza bateko sarbidearen zaintze-egoera okerra.
- Iturburu bateko hodi baten kontserbazio egoera okerra lur sail batetik iragaten den zatian.
- Desadostasuna udal batean eginiko zolaberritze lanekin, etxebizitza batean eragina izan dutelako.

- Herrilanen ondorioz errepidean dagoen lokatza dela-eta aurkeztutako salaketa bati erantzunik ez ematea.
- Desadostasuna desjabetze espediente batean ezarritako balio justuarekin.
- Desadostasuna lur sailen balizko desjabetzearekin, Abiadura Handiko Trenerako behar diren azpiegiturak direla eta.
- Desadostasuna espaloiaaren kontserbazio egoera txarrak eragindako eroriko baten ondorioz pairatutako kalteengatiko ondare-erantzukizunaren erreklamazioa ezestearekin.

2.2.17. Osasuna

87

Arlo honetan, 49 kexa aurkeztu ziren. Guztizkoaren % 7,6 egiten dute, 2007an bezalaxe, urte hartan 15 kexa gutxiago erregistratu ziren arren.

Edukiari erreparatuta, kexak honela sailkatu ditugu:

Osasun prestazioak eta gastuen itzulketa

- Prestazio, protesi eta farmako batzuk ez egotea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zerbitzu-zorroan edo prestazioen katalogoan, eta osasun produktuak guztiz ordaindu behar izateak dakarren zama ekonomikoa.
- Gastuak ordaintzeari uko egitea, edo jasotako osasun laguntza nahiz produktu sanitarioa ez daudelako zerbitzuen zorroan edo prestazioen katalogoan, edo

interesdunak ez dituelako bete gastuaren itzulketarako eskubidea izateko eskatzen diren baldintza formalak.

- Desadostasuna Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bitartez jasotako laguntza sanitarioaren fakturazioarekin.
- Desadostasuna tratamendu medikoa eten zaiolako bestelako aukerarik eskaini gabe.
- Desadostasuna Prestazio eta Itun Zerbitzuak tratamendu mediko bati ezezkoa eman diolako.
- Tratu desberdintasuna laguntza farmazeutikoan, Nafarroako Foru Komunitateko osasun laguntza publikoaren unibertsalizazio araubideari atxikitako pertsonen eta Gizarte Segurantzako erretiratuen edo pentsiodunen artean.
- Desadostasuna fidantza moduan egin beharreko ordainketa batekin; hain zuzen ere, arnas aparaturoko terapiak egin beharreko gaixoei, Nafarroako Foru Komunitateko kanpora bidaiatzen dutenean, beren tratamendurako behar duten tresneria medikoarengatik ordaindu beharrekoa.
- Aragoiko Osasun Zerbitzuak osasun laguntzarako banakako txartela emateko zailtasunak, eskatzailea Nafarroako Tokiko Funtzionarioen Montepioari atxikita dagoelako.

Laguntza kliniko orokorra

- Osasuna babesteko esku hartzen duten agenteen baldintza estrukturalak eta lan baldintzak hobetzeko eta arrazionalizatzeko, “etorkizunari begira” egin beharreko jardueri buruzko analisi bat egiteko premia.

- Gaixo batzuei laguntza mediko eskasa ematea eta diagnostikoa berandu ematea.
- Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bidez Nafarroan haurdunaldiaren borondatezko etetea egiteko ezintasuna.
- Desadostasuna bularreko minbiziaren diagnostiko goiztiarreko programatik kanpo uzteagatik, kasuko pertsonak 70 urte bete dituelako.
- Laguntza psikiatriko eskasa.
- Informazio falta eta osasun laguntza eskasa ugalkortasun tratamenduetarako.
- Desadostasuna Nafarroako Osasun Zerbitzuak ebakuntza kirurgiko bat egin nahi ez izatearekin.

Osasun publikoa

- Tabakismoaren aurkako neurri sanitarioei buruzko abenduaren 26ko 28/2005 Legea eta Tabako kontsumoaren prebentzioari, arnasteko airea babesteari eta tabakoaren aurrean osasuna sustatzeari buruzko otsailaren 14ko 6/2003 Foru Legea ez betetzea.
- Udal batek labe-zomorroen plaga baten aurrean ezer ez egitea.

Osasun sistemako erabiltzaileen eskubideei dagokienez

- Salaketak kasuko osasun prestazioa edo prestazio klinikoa beranduegi jasotzeagatik; zehazki, azterketa urologiko batean, test neuropsikologiko batean, digestio aparatuko azterketa batean eta endokrinoaren kontsulta batean pairatutako itxaronaldi luzeengatik.

- Salaketa historia kliniko bateko datu kliniko babestu batzuk datu horiek eskuratzeko baimenduta ez zeuden hirugarrenei emateagatik.
- Desadostasuna familiako medikoa eta osasun etxea aldatzearekin.
- Osasun etxe batek tele-erradiografia bat uzteari uko egitea.
- Zentro pribatu batera behar baino beranduago aldatzea.
- Laguntza prozesuan zehar informazio kliniko eskasa jaso izatea.
- Osasun sistemako erabiltzaileari informaziorik ez ematea osasun etxe baten egun bateko irekitzeko eta ixteko ordutegiari buruz.
- Adin gabeko umeorde osasun bakarko txartela izateko elkarbizitzako ziurtagiriaren beharkizunarekin ezadostasuna.

Osasun garraioa eta larrialdietako laguntza

- Larrialdietako zerbitzu medikoak laguntzarik ez ematea, meningitisaren sintomak eta aurrekariak zituen gaixo bat anbulantzian eraman nahi ez izateagatik.
- Laguntza medikoa berandu hartzea, anbulantzia geroratu zelako.
- 112 telefonoko langileek arreta txarra ematea.
- Desadostasuna Nafarroako Osasun Zerbitzuak tratamenduetara eta errebisioetara joateko osasun-garraiorik ez errazteagatik.

Farmaziak irekitzea

- Desadostasuna farmazia bat irekitzeko baimenik eman ez delako.

2.2.18. Gizarte Segurantzza

2008an 28 izan ziren Gizarte Segurantzari buruz jasotako kexak; 2007an, berriz, 18 izan ziren. Kexa horiek erregistratutako guztien % 4,3 egiten dute, ia 2007an bezalaxe.

Gizarte Segurantzari buruzko kexak, gehienak, beren edukia dela eta, Gorte Nagusiek izendatutako arartekoari igortzen zaizkio.

Honako hau da kexen edukiari buruzko laburpena:

Pentsioak:

- Eskaria zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren (SOVI) ezintasun edo zahartzaroko pentsioetara zabal dadin Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legeko 67. bis artikuluan aurreikusitako kenkari fiskala, araubide horretan egon eta alargun pentsioak jasotzen dituztenentzat.
- Alargun pentsioaren laguntza osagarri bat jasotzeari ezezkoa ematea.
- Ados ez egotea erretiro pentsioaren igoera txikiarekin.
- Ados ez egotea guztizko ezintasun iraunkorreko pentsioan egiten diren atxikipenekin.

- Desadostasuna Gizarte Segurantzak ezezkoa ematearekin guztizko ezintasun pentsioa osatzeari.
- SOVIren pentsioa aitortzeko eskaria.
- Desadostasuna Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren Nafarroako Zuzendaritza Probintzialak jarraitutako prozedurarekin, behar ez bezala jasotako prestazioak itzultzeko eskatu baitu.
- Desadostasuna erretiro pentsioak kalkulatzeko moduarekin.
- Ezintasun iraunkor batetik eratorritako pentsio baterako eskubidea ez aitortzea.
- Erretiro pentsioa lortzeko behar den gutxieneko epean benetan egindako lana aitortzeko eskaria.
- Desadostasuna Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza Probintzialak erretiratzeko arrazoiaren egitatekin erretirorako adin efektiboa bete arte iragaten den denbora kontuan hartzeko egiten duen ponderazioarekin.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak bere diru-sarreretan egindako bahiturarengatik. Diru-sarrerak langabeziaren subsidiokoak eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak emandako osagarriarenak ziren.

Ezintasunak onartzeko prozesuak

- Desadostasuna ezezkoa emateagatik ezintasun iraunkorra aitortzeri.
- Desadostasuna Nafarroako Gizarte Segurantzaren Institutuko Zuzendaritza Probintzialeko ezintasunen ekipo medikoak egindako balorazioekin.

- Justifikaziorik gabeko desberdintasuna diabeteseko gaixoen ezintasuna aitortzeko baremo desberdinak aplikatzeagatik, arlo horretako arauetan 1999an gertaturiko aldaketaren ondorioz.
- Desadostasuna Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak lanean jarduteko gaitasunari buruz eginiko errebisioekin.

2.2.19. Zerbitzu publikoak

23 kexa aurkeztu ziren 2008an; 2007an, berriz, 15 izan ziren. Kexa horiek % 3,5 egiten dute kexen guztizkoan, aurreko urtean bezalaxe.

Honako hau da kexen aurkibidea:

93

- Ados ez egotea Mankomunitateak jarduteko moduarekin, ordainagiri batzuk ez ordaintzeagatik. Izan ere, hornikuntza eta saneamendu kontratua eten egin zuen.
- Salaketa udal bateko hustubideen egoera txarrarengatik.
- Udalak eginiko obra baten exekuzioa bat ez etortzea proiektuan jasotakoarekin, eta partikular bati eragindako kalteak.
- Gune urbanizatu bateko zerbitzu propioak ez ematea (argiteria egokia, fosa septikoaren eta iristeko errepedearen egokitzea).
- Zailtasunak ur edangarriko hornikuntza zerbitzua lortzeko.
- Garraio publikoko erabiltzaileentzako markesinak ez jartzea.

- Behar adinako autobus zerbitzua ez egotea herri batetik Iruñera joateko.
- Gabeziak Nafarroako Foru Komunitatean banda zabaleko azpiegituren planaren exekuzioan.
- Desadostasuna elektrizitate tarifak ezartzearekin eta Espainiako Gobernuak prezioen gorakadan esku hartzearekin.
- Udal batek ezer ez egitea telekomunikazioen azpiegitura bat jartzeko herritarrek egindako eskariak jaso ondoren.
- Telebista kateen estaldura falta udal batean: Localia Canal 4 Navarra, Canal 6 Navarra eta Popular Televisión Navarra.
- Desadostasuna konpainia elektriko batekin kontratatutako potentziaren aldaketarekin, abenduaren 29ko 1634/2006 Errege Dekretuaren laugarren xedapen iragankorra aplikatuz.
- Udal batek ezezkoa ematea hiri-bideetatik garbiketa makinak kentzeko eskariari.
- Udal batek ezer ez egitea etxebizitza batean behin eta berriz izandako uholdeen aurrean.
- Udal batek ez zaintzea eta ez kontrolatzea gizarte laguntzako zentro batek ematen duen zerbitzua.
- Udal batek ezezkoa ematea udalaren hilerrian hilobiratze bat egiteari.

Ondare erantzukizuna

- Akatsa sozietate publiko batek lege-urratze baten subjektu arduraduna identifikatzerakoan.
- Udal batek ez ematea espaloia gaizki egotearen ondorioz gertaturiko eroriko baten kalteengatik ordainak.
- Mankomunitate batek ezezkoa ematea uraren eteteak sortutako kalteengatik eskatutako ordainak ordaintzeari.

2.2.20. Lana

Arlo honetan 4 kexa aurkeztu ziren soilik (guztien % 0,5), ia 2007an bezalaxe, orduan 5 kexa erregistratu baitziren (gutzizkoaren % 1).

95

Ondokoa izan zen kexen edukia:

- Enpleguaren Institutu Nazionalak oker jokatzeari langabeziaren prestazioa horretarako izendatutako kontuaz beste batean ingresatzeagatik.
- 52 urtez gorakoentzako langabeziaren subsidioa emateko eskaria.
- Enpleguaren arloko eskumenak dituen erakunde publiko batek bere eginkizunetan eraginkortasunik ez izatea.
- Desberdintasun egoera, entitate publiko bateko langileei lan hitzarmen desberdinak aplikatzeagatik.

2.2.21. Trafikoa

Arlo honetan, 32 kexa aurkeztu ziren, 2007an baino bat gutxiago. Hala eta guztiz ere, kexa hauek guztizkoan 2007ko % 7tik 2008ko % 5era jaitsi ziren.

Honako hau da kexen aurkibidea:

- Desadostasuna trafikoaren arloan ezarritako zehapenekin.
- Babesgabetasuna, agintaritzaren agenteek egiazaturiko egitateen ustezko egiazkotasunari gehiegizko norainokoa emateagatik.
- Desadostasuna zehapen prozeduretako zenbait alderdirekin; zehazki, zehapenen motibazio faltarengatik, prozeduran informazioa falta izateagatik eta proba bat ukatzeagatik.
- Informazio falta udaltzaingoko agenteek eginiko salaketa batek puntuen galera ekarriko duen jakiteko.
- Desadostasuna ezgaitasuna duten pertsonen aparkatzeko txartela ukatzeagatik, eta ukapen hori motibatu gabe egotea.
- Udal batek ezezkoa ematea ezgaitasuna duen pertsona batentzako aparkatzeko toki bat sortzeari.
- Probintziako Trafikoko Buruzagitzak akats bat egitea gidatzeko baimena tramitatzerakoan.
- Desadostasuna udal batean ezgaituentzako aparkatze-txartel bat erretiratzeko jarraitutako prozedurarekin.

- Desadostasuna ibilgailu bat abandonatzeagatik eginiko erreklamazioarekin.

2.2.22. Turismoa

Turismoaren arloan kexa bakarra aurkeztu zen, departamentu eskudunak higiezin bat landa etxe moduan ez sailkatzeagatik.

2.2.23. Hirigintza

Hirigintzaren arloan 25 kexa aurkeztu dira. Arlo honetan, beraz, kexen kopuruak behera egin du 2007. urtearekin alderatuz gero. Zehazki, 8 kexa gutxiago aurkeztu dira, eta aurkeztutakoen % 7,3 izatetik % 3,8 izatera pasa dira.

97

Zehazki, honakoak izan ziren kexak:

Hirigintzaren plangintza

- Hirigintza antolamenduko plan orokor baten eta barne erreformako plan berezi baten aldaketa puntualean, ez mugatzea exekuzio unitate bakoitzaren batez besteko aprobetxamendua.
- 2003tik udal plan bat ez aldatzea, akats bat duela jakinda ere.

Hirigintza kudeaketari dagokionez

- Atzerapena udalaren plaza publiko bat urbanizatzean.

- Udal bati kexa bat aurkeztu zaio hirigintza antolamenduko plan orokorreko unitate bat birzatzitzeko proiektu berria ez onesteagatik.
- Udal batek ezezkoa ematea jabe batek aurkeztutako eskariari. Hartan eskatzen da urbanizazio bat egiteko aurreikusitako konpentsazio sistematik kanpo uzteko.
- Udal batek informaziorik ez ematea pergola bat jartzeko bete beharrekoei eta kostu ekonomikoari buruz.
- Desadostasuna konpentsazio batzar batek hartutako erabakiekin.
- Udal batek etxe-aldarazpena ukatzea, errentariaren etxebizitza zaharberritzen den bitartean.
- Udal batek eginiko permuta batean eskritura publikoa ez formalizatzea.

Legezkotasunaren eta hirigintza-diziplinaren babesa dela eta

- Udal batek ezer ez egitea bide publikoan lore-ontzi batzuk jartzeari buruz aurkeztutako salaketaren ondoren.
- Desadostasuna ibai parke batean eginiko urbanizazio lanekin, hiriaren antolamenduari buruzko udal plan orokorraren eta plan partzialaren araberakoak ez izateagatik.
- Udal batek ezer ez egitea transformagailu elektriko bat lizentziarik gabe eraiki eta mantentzearen aurrean.
- Udal plan orokorrik ez duen kontzeju batean obren lizentzia tramitatzeko prozedura ez betetzea.

- Desadostasuna konpentsazio batzar bateko estatutuak behin betiko onestearekin, exekuzio unitate bati esleitutako azalera dela-eta ados ez egoteagatik.
- Udal batek obretarako lizentzia ukatzea.
- Desadostasuna udal batek eginiko errekerimenduarekin, obretarako lizentziarik gabe eraikitako teilape bat desmuntatu beharra dela eta.
- Administrazioak herri bateko zoruaren erabilera batzuk toleratzea.
- Udal batek ezer ez egitea legez kanpoko etxebizitza bat eraiki ondoren.
- Udal batek oker jokatzea obra batzuen exekuzioa dela eta.
- Udal batek ezer ez egitea eraikin bat lizentziarik gabe eraikitzeari buruzko salaketa bat dela eta.
- Desadostasuna trenbide bat industrialde batean ezarritako enpresa baten bazter gune batekin lotzeagatik.
- Udal batek obretarako lizentziarik ez ematea bere jabetzapeko patio bat ixteko.
- Desadostasuna udal batek ikuskapen-jarduera bati hasiera emateari buruzko informazioa ez emateagatik.
- Udal batek ezer ez egitea egurra erretzeko tximinia bat egiteagatik.

2.2.24. Etxebizitza

Arlo honetan, 49 kexa aurkeztu ziren, 2007an baino 11 gehiago. Kexa horiek guztizkoaren % 7,5 egiten dute; 2007an, berriz, % 8,50 egiten zuten.

Honako hau da arlo honetako kexen laburpena:

Etxebizitza babestuen adjudikazioa

- Babes publikoko etxebizitza baten salerosketa-kontratua bisatzeari ezezkoa ematea, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan deklaraturakoak baino diru-sarrera handiagoak lortzeagatik.
- Eskaria jabetza-araubidean adjudikatu zaion babes ofizialeko etxebizitzaren eskaintza onartu eta horren truke alokairuko etxebizitza bat adjudika dakion.
- Eskaria adjudikatutako salneurri tasatuko etxebizitza batekin batera datozen eranskinei –bi garaje eta trasteleku bat– uko egiteko baimena eman dakion.
- Desadostasuna administrazio eskudunak jabetzan daukan etxebizitzari buruz egiten duen balorazioarekin, babes publikoko beste bat erosi ahal izateko.
- Udal batek eta departamentu eskudunak koordinaziorik ez izatea etxebizitza babestu bat lortzeko bete beharreko baldintzei buruz emandako informazioa dela eta.
- Babestutako etxebizitza baten salerosketa kontratua ez bisatzea, eskatzailearen diru-sarrerak legez eskatutako urteko gutxienezkora ez iristeagatik.

- Ados ez egotea familia unitate bateko kideen kopuruak kontuan izatearekin etxebizitza publiko babestuak adjudikatzeko baremoan.
- Datuen publizitate falta etxebizitza babestuen kanpainetan, bai jabetzako araubidekoetan, bai alokairuko araubidekoetan ere.
- Desadostasuna babes ofizialeko etxebizitza bat ukatu zaiolako diru-sarrera baxuak izateagatik.
- Babes publikoko etxebizitza baten salerosketa kontratua ez bisatzea, azken bost urteetan bere etxebizitza saldu ez izatearen betebeharra ez betetzeagatik, eta datuak ezkutatzea.
- Desadostasuna babes publikoko etxebizitza bat adjudikatzeko prozesuan familiako diru-sarrerengatik emandako puntuazioarekin.
- Etxebizitzak alokairuko araubidean adjudikatzeko prozeduretan etxebizitzaren premia determinatzen duten inguruabarrak kreditatzeko irizpideak malgutzeko eskaria, zeren eta ez baitira kontuan hartzen pertsonak alokairu-kontraturik gabe etxebizitza bateko gela batean bizitzea bezalako kasuak.
- Babespeko etxebizitza bateko salerosketa kontratua ez bisatzea, haren adjudikazio-hartzailea izateko bete beharreko postua ez betetzeagatik.
Espedientea 08/289A

Gaia: Eskubideen sustapena

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Herritar batek aurkeztutako informazio-eskari bati ez erantzutea.

Espedientea 08/408

Gaia: Zerbitzu publikoak

Mota: Gomendioa (Iruñerriko Mankomunitateari gomendio bera egin zaio)

Gaia: Mendillorri auzoan markesinarik ez jartzea.

Espedientea 08/435

Gaia: Eskubideen sustapena

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Herritar batek diru-zenbateko bat itzultzeko egin duen eskariari ez erantzutea.

Espedientea 08/525

Gaia: Trafikoa

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena eta gomendioa (Lendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuarentzako legezko betebeharren bi gogorazpen ere badaude)

Gaia: Egitate berengatik, zehapen espediente bikoitza egotea: Iruñeko Udalarena eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuarena.

Zangozako Udala

Espedientea 08/358

Gaia: Funtzio publikoa

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena (Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuarentzako legezko gogorazpen bat eta gomendio bat ere badaude)

Gaia: Funtzionario baten Funtzionarioen Montepioan edo Gizarte Segurantzaz sartzeko tramitazioa ez egitea.

Tafallako Udala

Espedientea 08/252

Gaia: Eskubideen sustapena

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Herritar batek aurkeztutako eskari bati ez erantzutea.

Tuterako Udala

Espedientea 08/409

Gaia: Barne arloa

Mota: Iradokizuna

Gaia: Tuterako geltokiaren plazako aldea gaizki kontserbatuta egotea eta bertan zaintza eta kontrol falta egotea.

Espedientea 08/481

Gaia: Eskubideen sustapena

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Diligentzia eta arreta falta herritar batek etxebizitza bateko teilatutik puskak erortzeagatik behin eta berriz aurkeztutako erreklamazioak direla eta.

Untzueko Udala

Espedientea 08/90

Gaia: Ogasuna

Mota: Gomendioa

Gaia: Desadostasuna udalak urbanizazio kuota kobratzeko duen asmoarekin.

Urdazubiko Udala

Espedientea 08/425

Gaia: Herri lanak

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Etxe baterako sarbiderik ez egotea.

Esako Udala

Espedientea 08/434

Gaia: Eskubideen sustapena

Mota: Iradokizuna

Gaia: Bazterkeria kiroldetiko lokalak adjudikatzerakoan.

Arlegiko Kontzejua

Espedientea 07/414

Gaia: Eskubideen sustapena

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena eta gomendioa

Gaia: Dokumentu eta artxibo administratiboak ezin kontsultatzea.

Espedientea 08/370

Gaia: Eskubideen sustapena

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Dokumentu bat jaso eta erregistratzeari ezezkoa ematea.

Azteraingo Kontzejua

Espedientea 08/148

Gaia: Ingurumena

Mota: Gomendioa (Zizurko Udalarentzako gomendio bera ere badago)

Gaia: Desadostasuna transformagailu elektriko bat jartzearekin.

Beuntzako Kontzejua

Espedientea 08/376

Gaia: Eskubideen sustapena

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Erantzunik ez ematea obretarako hirigintza-obra bat lortzeko aurkeztutako eskariei.

Iruñerriko Mankomunitatea

Espedientea 08/408

Gaia: Zerbitzu publikoak

Mota: Gomendioa (Iruñeko Udalarentzako gomendio bera ere badago)

Gaia: Mendillorri auzoan markesinarik ez jartzea.

Espedientea 08/503

Gaia: Zerbitzu publikoak

Mota: Gomendioa

Gaia: Ezezkoa ematea uraren eteteak sortutako kalteengatik eskatutako ordainak ordaintzeari.

Mairagako Mankomunitatea

Espedientea 08/59

Gaia: Herri lanak

Mota: Gomendioa

Gaia: Iturburuetatik heldu den hodi baten kontserbazio egoera txarrean egotea.

3.5.3. ADMINISTRAZIO ETA ENTITATE PUBLIKO BATZUK

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Espedientea 08/453

Gaia: Elebitasuna

Mota: Gomendioa

Gaia: 2008ko ikasturterako masterretarako eta doktoretza ikastaroetarako aurrez izen emateko inprimakiak, web orrian jarritakoak, euskaraz ez egotea.

Espedientea 08/483

Gaia: Hezkuntza

Mota: Iradokizun normatiboa

Gaia: Tesia aurkezteko ezintasuna, doktore-izangaiaren eta zuzendariaren arteko desadostasunengatik.

Espedientea 08/484

Gaia: Hezkuntza

Mota: Iradokizun normatiboa

Gaia: Tesia aurkezteko ezintasuna, doktore-izangaiaren eta zuzendariaren arteko desadostasunengatik.

160

3.6. 2007ko ABENDUAREN 31a BAINO LEHEN EMANDAKO EBAZPENAK, ADMINSTRAZIOAREN ERANTZUNAREN ZAIN GERATU ZIRENAK

Atal honetan 2007an zehar gomendio, iradokizun nahiz legezko betebeharren gogorazpena eman baina 2007ko abenduaren 31n erantzunik jaso ez zuten kexa espedienteen itxierak jaso ditugu.

3.6.1. ONARTU DIREN EBAZPENAK

3.6.1.1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua

Espedientea 05/162

Gaia: Gizarte ongizatea

Mota: Gomendioa

Gaia: Etxebizitzetan apopilo bizi diren buruko gaixoak ez gainbegiratzea eta ez kontrolatzea.

Espedientea 07/14

Gaia: Gizarte ongizatea

Mota: Gomendioa

Gaia: Etxebizitzetan apopilo bizi diren buruko gaixoak ez gainbegiratzea eta ez kontrolatzea.

Espedientea 07/92

Gaia: Gizarte ongizatea

Mota: Gomendioa

Gaia: Mugikortasuna errazteko garabi mekaniko bat erosteko laguntzari ezezkoa emateko motibazioa desegokia izatea.

Espedientea 07/263

Gaia: Gizarte ongizatea

Mota: Gomendioa

Gaia: Desadostasuna minusbaliotasun gradua gutxitzeagatik.

Espedientea 07/287

Gaia: Merkataritza

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Desadostasuna kontsumitzaile gisa dituen interesen defentsan irekitako espedientea artxibatzearekin.

Vianako Printzea Erakundea – Kultura eta Turismo Departamentua

Espedientea 06/413

Gaia: Kultura

Mota: Gomendioa

Gaia: Zentro nazionaletan eta atzerriko zentroetan ikasketa artistikoak zabaltzeko laguntzetarako deialdia ez egitea.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua.

Espedientea 06/80

Gaia: Ingurumena

Mota: Gomendioa

Gaia: Harrobi baten ustiatzeak eratorritako arriskuak eta enbarazuak.

Hezkuntza Departamentua

Espedientea 07/317

Gaia: Funtzio publikoa

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Zerbitzu eginkizunei ezezkoa ematea.

162

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua

Espedientea 07/308

Gaia: Funtzio publikoa

Mota: Gomendioa

Gaia: Desadostasuna kargu-uzte baten ondorioz aurkeztutako errekurtoa ezetsi izanarekin.

Osasun Departamentua-Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua

Espedientea 07/309

Gaia: Funtzio publikoa

Mota: Gomendioa

Gaia: Ezezkoa ematea Nafarroako Gobernuak lanerako terapeuta izateko deitutako oposizio-lehiaketako

epaimahai kalifikatzaileak eginiko merezimenduen balorazioa gainbegiratzeari.

Espedientea 07/315
Gaia: Funtzio publikoa
Mota: Legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: Hautapen prozesu baten ebazpena ateratzeko gehiegi geroratzea.

Espedientea 07/331
Gaia: Osasuna
Mota: Iradokizuna
Gaia: Nafarroako Ospitalean osasun laguntza eskasa ematea.

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua

Espedientea 07/277
Gaia: Etxebizitza
Mota: Legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: VINSA sozietate publikoak etxebizitza babestuen 2007ko kanpainan egindako irregulartasunak, 1.800 etxebizitza salerosketa araubidean eta 270 etxebizitza alokairu araubidean esleitzerakoan.

Espedientea 07/303
Gaia: Etxebizitza
Mota: Gomendioa
Gaia: Babes ofizialeko etxebizitzetan eraikuntza akatsak egotea eta administrazioak horren aurrean ezer ez egitea.

Espedientea 07/314
Gaia: Etxebizitza
Mota: Legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: Desadostasuna administrazioak etxebizitzari buruz egiten duen balorazioarekin, babes

ofizialeko etxebizitza bat salerosketa araubidean adjudikatzeko prozesuan.

Espedientea 07/323
Gaia: Etxebizitza
Mota: Iradokizuna
Gaia: Esleitutako etxebizitza babestu bateko salerosketa kontratua ez bisatzea, uste izateagatik egungo etxebizitza desegokitzat jotzeko behar den minusbaliotasun gradua duela.

Espedientea 07/379
Gaia: Etxebizitza
Mota: Gomendioa
Gaia: Adjudikatu zitzaion babes ofizialeko etxebizitzan eraikuntza-akatsak egotea.

3.6.1.2. Nafarroako toki entitateak

Aranoko Udala

Espedientea 07/209
Gaia: Hirigintza
Mota: Legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: Bide publikoa okupatzea.

Barañaingo Udala

Espedientea 07/270
Gaia: Ingurumena
Mota: Gomendioa
Gaia: Udalak higiezinako etxabeetako batean garatzen duen jarduerari buruzko kexa. Izan ere, bertan, udaltzaingoaren ibilgailu erretiratuen biltegia dago.

Baztango Udala

Espedientea 06/415

Gaia: Ingurumena

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Merkataritza-jarduerak sorturiko kutsadura akustikoa.

Berriozarko Udala

Espedientea 06/425

Gaia: Ingurumena

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Lokal bateko makineriak sorturiko kutsadura akustikoa.

Bulatako Udala

Espedientea 07/328

Gaia: Ingurumena

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Ingurumenari buruz eskatutako informazioa ez ematea.

Caparrosoko Udala

Espedientea 07/212

Gaia: Ingurumena

Mota: Gomendioa

Gaia: Etxe ondoan kokaturiko abeltzaintza ustiategi batek eragindako enbarazua.

Castejóngo Udala

Espedientea 07/356

Gaia: Hirigintza

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Enpresa bati bide publikoa okupatzeko emakida bat adjudikatzeagatik aurkezturiko kexa.

Corellako Udala

Espedientea 05/100

Gaia: Herrilanak eta Zerbitzuak

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Ezezkoa ematea kolektore orokorrera sarbidea izateari.

Eguesibarko Udala

Espedientea 07/228

Gaia: Kirola

Mota: Gomendioa

Gaia: Bazterkeria Sarrigurengo igerilekuetara sartzeko garaian, udal horretan erroldatuta ez egoteagatik.

Lizarrako Udala

Espedientea 06/365

Gaia: Herrilanak eta Zerbitzuak

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Urbanizazio bateko sarbidea kontserbazio egoera txarrean egotea.

Espedientea 07/10

Gaia: Ingurumena

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Higiezin batean aisialdiko jarduerak egiteak sorturiko enbarazua.

Funesko Udala

Espedientea 07/264

Gaia: Ingurumena

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: "Piperoak" deitutako lokaletako jarduerak sorturiko kutsadura akustikoa.

Elizagorriko Udala

Espedientea 07/368

Gaia: Hirigintza

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Desadostasuna partikular baten obra hitzez eta motibaziorik gabe geraraztearekin.

Irunberriko Udala

Espedientea 06/394

Gaia: Eskubideen sustapena

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Erantzunik ez ematea udalaren alderdi batzuei buruzko informazio eskariei.

Milagroko Udala

Espedientea 07/271

Gaia: Ingurumena

Mota: Gomendioa

Gaia: "Diskoteka mugikor" bat jartzeak sorturiko kutsadura akustikoa.

167

Olorizko Udala

Espedientea 07/316

Gaia: Hirigintza

Mota: Gomendioa

Gaia: Etxebizitza baten ondoko herri-lurretan eginiko eraikuntza.

Iruñeko Udala

Espedientea 06/94

Gaia: Ingurumena

Mota: Gomendioa

Gaia: Zilbeti Monasterioa kaleko aisialdiko lokal batek sorturiko kutsadura akustikoa.

Espedientea 07/214
Gaia: Herrilanak eta Zerbitzuak
Mota: Legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: Eroriko baten ondorengo ondare-erantzukizuneko espediente batean, erantzun beharreko epean erantzunik ez ematea.

Espedientea 07/281
Gaia: Hirigintza
Mota: Legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: Huts teknikoak higiezin bat zaharberritzeko lanetan, eta udalak huts horiek egiaztatzeko ezer ez egitea.

Espedientea 07/396
Gaia: Eskubideen sustapena
Mota: Legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: Erruki Etxean dauden adineko pertsonei San Ferminetan enbarazu egitea, zarata dela eta.

Atarrabiako Udala

Espedientea 06/347
Gaia: Herrilanak eta Zerbitzuak
Mota: Legezko betebeharren gogorazpena
Gaia: Urbanizazio bateko bidea egoera txarrean egotea.

3.6.2. ONARTU EZ DIREN EBAZPENAK

3.6.2.1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa

Hezkuntza Departamentua

Espedientea 07/269

Gaia: Funtzio publikoa

Mota: Iradokizuna

Gaia: Desadostasuna deialdi batean, familia premiengatik, zerbitzu eginkizunetan irakasle gisa jarduteko deialdi batean ezin parte hartzearekin.

Osasun Departamentua-Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua

Espedientea 07/13

Gaia: Osasuna

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Zentro pribatu bateko osasun laguntzako gastuak itzultzeko eskaria ezestea.

169

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua

Espedientea 07/180

Gaia: Etxebizitza

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: Desadostasuna babes ofizialeko etxebizitza bat, salerosketa araubidean, adjudikatzeko, Nafarroako udaletan etenik gabeko antzinasuna exijitzearekin.

Oharra: Kexa hau 2008an ireki zen berriz.

3.6.2.2. Nafarroako toki entitateak

Azagrako Udala

Espedientea 06/32

Gaia: Ingurumena

Mota: Legezko betebeharren gogorazpena

Gaia: "Pipero" batek sorturiko enbarazua.

Oharra: Kexa hau 2008an ireki zen berriz. Gaia epaileak erabakitzeke dago oraindik.

Barañaingo Udala

Espedientea 06/441

Gaia: Ingurumena

Mota: Gomendioa

Gaia: Aisialdirako lokak batek sorturiko kutsadura akustikoa.

Iruñeko Udala.

Espedientea 07/326

Gaia: Gizarte Ongizatea

Mota: Gomendioa

Gaia: Minusbaliatu bati aparkatzeko txartela ez ematea.

Artatzako Kontzejua

Espedientea 07/284

Gaia: Hirigintza

Mota: Gomendioa

Gaia: Kontzejuak ez betetzea plan partziala egiteko partikular batekin itundutako urbanizazio-baldintzak (lurren depositua eta obra-hondakinak).

3.6.3. BESTE ARRAZOI BATZUENGATIK ITXITAKO EBAZPENAKS

Mendabiako Udala

Espedientea 07/66

Gaia: Trafikoa


Mota: Gomendioa

Gaia: Administrazioak trafikoko arau-hauste baten
aurrean ezer ez egitea.

4 _ erakundeak bere kabuz eginiko
ikerketak

2008

4 _ erakundeak bere kabuz eginiko
ikerketak



2008

IV. KAPITULUA

KAPITULUA. ERAKUNDEAK BERE KABUZ EGINIKO IKERKETAK

4.1. ERAKUNDEAK BERE KABUZ EGINIKO JARDUERAK

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 16 b) artikuluan esaten da Arartekoari dagokiola organo eskudunen eta administrazio publikoen zerbitzuko langileen legezko betekizunak zuzentzea, iradokitzea edo gogoraraztea. Hartara, legez lanpoko ekintzak edo ekintza bidegabeak zuzentzeaz gain, administrazioaren zerbitzuak hobetzen dira.

Arau horren c) letran Arartekoari esleitzen zaio lege-urritasunak adierazteko eskumena. Alegia, iradokizunak egin behar ditu, administrazioaren eta zerbitzu publikoen jarduerak objektibotasuna eta eraginkortasuna izan dezaten administratuen eskubideak bermatzean.

175

Gainera, foru-lege horretako 18.1 artikulua erakundeari eskumena ematen dio edozein ofiziozko ikerketa has eta jarrai dezan, pertsona bati edo gehiagori eragiten ahal dioten administrazio publikoen ekintzak, ez-egiteak eta ebazpenak argitzeko.

2008. urtean, erakundeak ofiziozko 16 jarduera gauzatu zituen. Horietako baten amaieran Nafarroako kontzejuen eskumenei buruzko txosten berezia egin zuen Nafarroako Arartekoak; bestea, haurtzaroaren eta nerabezaroaren 2007ko egoerari eta balorazioari buruzkoa, ekitaldi hartako urteko txostenean islatu zen. Honakoak dira Nafarroako Arartekoak bere kabuz egin zituen gainerako jarduerak:

1. Babestutako etxebizitza publikoa adjudikatzeko baremoaren azterketa.

Administrazio eskuduna: Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua.

Gaia: Etxebizitza

Emaitza: Etxebizitza Departamentuari zuzendutako iradokizuna, Etxebizitzari Babes Publikoa emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Legeko 22. artikuluaaren aldatzekoa.

2. Minusbaliatuentzako aparkatze-txartelak emateko arauak ezarriko duen ordenantza bat egitea.

Administrazio eskuduna: Iruñeko Udala.

Gaia: Gizarte Gaiak. Ezgaitasuna.

Emaitza: Iruñeko Udalari iradoki zitzaion aipatu ordenantza onesteko.

3. Larraonan eta Iguzkitzan abiadura handiko Interneterako konexioa lortzeko eta telefono deiak egiteko zailtasun teknikoak.

Administrazio eskuduna: Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua.

Gaia: Zerbitzuak publikoak ematea. Telefonía.

Emaitza: Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari zuzendutako iradokizuna, esku hartu eta zailtasun horiei konponbidea eman diezaien.

4. Adopzio prozesuetan egokitasun-ziurtagiriak berandu ematea.

Administrazio eskuduna: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua.

Gaia: Gizarte gaiak. Adingabeak.

Emaitza: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari eginiko iradokizuna, egokitasun ziurtagiriak emateko epea laburtu dezan, halako moduan non ez den sei hilabete baino gehiago beharko.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak arretafaltaren eta hiperaktibitatearen nahastea (TDH-A) duten haurrak eta nerabeak detektatzeko, tratatzeko eta jarraitzeko hartutako neurrien azterketa.

Administrazio eskudunak: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua; Osasun Departamentua; Hezkuntza Departamentua; eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua.

Gaia: Osasuna, Hezkuntza. Gizarte Gaiak. Adingabeak.

Emaitza: Aipatu departamentuei zenbait hobekuntza egiteko zuzendutako iradokizunak.

6. FM-ko euskarazko irrati baterako baimen administratiboa eskualde mistorako.

Administrazio eskudunak: Erakunde Harremanetarako Departamentua eta Hezkuntza Departamentua.

Gaia: Zerbitzuak publikoak ematea. Irratia

Emaitza: Erakunde Harremanetarako Departamentuari igorritako iradokizuna, Nafarroako Parlamentuak 2005eko abenduaren 23an irrtati baimen hori ematearen alde hartutako erabakia betetzeari buruzkoa.

7. Familia giroko gatazka-egora (anaia batek arrebari tratu txarra ematea).

Administrazio eskuduna: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua.

Gaia: Barne arloa. Tratu txarren biktimak babestea.

Emaitza: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari esku hartzeko eginiko eskaria.

8. “Izarbeibarko Jarduera Ekonomikoen Eremua” ezartzea eta hurbileko populazio guneeetatik gorde beharreko distantziak.

Administrazio eskuduna: Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua.

Gaia: Lurraldearen Antolamendua.

Emaitza: Egiaztatzea aplikatzekoak diren arauetan ezarritako distantziak errespetatzen diren.

9. Gizarte Zerbitzuen Zorroa aplikatzeko behar beste langile jartzea.

Administrazio eskudunak: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua.

Gaia: Gizarte gaiak. Gizarte zerbitzuak.

Emaitza: Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari zuzendutako iradokizuna, bigarren departamentu horretan behar adina langile jartzeko Gizarte Zerbitzuen Zorroaren onespentak ekarritako eskariei erantzun ahal izateko.

10. Hezkuntza zentroen izaera ez duten haurtzaindegiak behar adina erregulaturik ez egotea.

Administrazio eskuduna: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua.

Gaia: Gizarte gaiak. Adingabeak.

Emaitza: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari zuzendutako iradokizuna, foru dekretu batez haurtzaindegiek bete beharreko gutxieneko baldintzak arau dezan.

179

11. Nafarroan azken hamar urteetan eginiko gastu sozialari buruzko azterlan bat egiteko beharra.

Administrazio eskuduna: Comptos Ganbera.

Gaia: Gizarte gaiak. Gastu sozial publikoa.

Emaitza: Eskariari ezin erantzutea, behar adina giza baliabide ez edukitzeagatik.

12. Tuterako posta zerbitzuan antzemandako gabeziak.

Administrazio eskuduna: Sustapen Ministerioa.

Gaia: Zerbitzuak publikoak ematea. Posta komunikazioak.

Emaitza: Gorte Nagusietako arartekoari jakinarazi zaio egoera, eta arren eskatu zaio esku hartzeko.

- 13. Sarrigurengo ekohiria eta Mendillorri auzoa lotzen dituen tartean, oinezkoentzako pasabide bat egiteko premia, tarte horretan gertatzen diren istripuak direla eta; zehazki oinezko bat harrapatuta hiltzearen ondorioz.**

Administrazio eskuduna: Eguesibarko Udala.

Gaia: Herri Lanak.

Emaitza: Eguesibarko Udalak pasabidea eraikitzeko dauden aurreikuspenei buruzko informazioa igorri du.

- 14. Nahaste psikikoak dituzten pertsonen borondatez kontrako tratamendu ambulatorioa arautuko duen foru lege bat egiteko proposamena.**

Administrazio eskuduna: Osasun Departamentua.

Gaia: Laguntza psikiatrikoa.

Emaitza: Osasun Departamentuarekin eta Ministerio Fiskalarekin (Nafarroako Fiskaltza Nagusia) zenbait urrats egin ditugu landutako proposamena jakinarazteko eta azaltzeko.

- 15. Eskolako jazarpenaren (bullying) prebentziorako eta tratamendurako neurriak hobetzea.**

Administrazio eskuduna: Hezkuntza Departamentua.

Gaia: Hezkuntza eta irakaskuntza.

Emaitza: Hezkuntza Departamentuari hogeita bost iradokizun igorri zaizkio.

- 16. Etxebizitza bat ohiko etxebizitza iraunkor gisa partekatzen duten anai-arreben arteko “mortis causa” oinordetza kasuetan aplikatzen den tributazioaren azterketa.**

Administrazio eskuduna: Ekonomia eta Ogasun Departamentua

Gaia: Ogasuna. Zergak.

Emaitza: Ekonomia eta Ogasun Departamentuari zuzendutako iradokizuna. Haren bidez proposatzen zaio Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari buruzko Testu Bategineko 34.1 artikulua aldatzeko, “mortis causa” transmisioetan zerga-tasa murriztu bat ezartzeko.

- 17. Nafarroan Herritartasunerako Hezkuntzaren curriculumaz ezartzen duten foru dekretuen azterketa.**

Administrazio eskuduna: Hezkuntza Departamentua.

Gaia: Hezkuntza eta irakaskuntza.

Emaitza: Ondorioa izan da Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza” ikasgaiko xedeek eta edukiek, aipatu foru dekretuetan finkatutakoek, ez dutela urratzen askatasun ideologiko eta erlijiosorako gurasoek duten eskubidea, Konstituzioaren 16.1 artikuluan bermatua, ez eta oinarrizko lege horren 27.3 artikuluko oinarrizko eskubidea ere.

- 18. Iruñeko Udalean herritarren arartekoaren figura sortzeari buruzko balorazioa.**

Administrazio eskuduna: Iruñeko Udala.

Gaia: Zerbitzuak publikoak ematea.

Emaitza: Idazki bat zuzendu zaio udalari, aipatu figura sortzearen aurkako jarrera azalduz, funtzioetan eta gastu publikoetan bikoiztasuna eraginen lukeelako.

19. Nafarroan harrerako familiei babes handiagoa emateko proposamenak.

Administrazio eskuduna: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua.

Gaia: Gizarte gaiak. Adingabeak.

Emaitza: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari zenbait iradokizun egin zaizkio.

20. Nafarroako irabazi asmorik gabeko egoitzen elkarrekin beren eginkizuna aurrera eramateko dauzkaten zailtasunak.

Administrazio eskuduna: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua.

Gaia: Gizarte gaiak. Hirugarren adina.

Emaitza: Departamentuari zuzendutako iradokizuna, hirugarren adinekoentzako laguntza sozialeko modalitate horri laguntza emateko araubide berezi bat aztertu eta, kasu bada, presta dezan.

- 21. Benidormeko zenbait hotel-establezimendutako ardura-dunek ezgaituen talde batekin bazterkeriaz jokatu izanaren ustea, haien lojamendua kontratatzeari ezezkoa eman ziotelako.**

Administrazio eskuduna: Valentziako Erkidegoko Turismo Kontseilaritza.

Gaia: Gizarte gaiak. Ezinduak.

Emaitza: Espedientea Valentziako Erkidegoko Síndica de Greuges delakoari igorri zaio, esku har dezan eskatuz.

- 22. 2008/2009 ikasturterako irakaskuntza ertaineko eta unibertsitate hezkuntzako beken deialdi orokorraren analisia.**

Administrazio eskuduna: Hezkuntza Departamentua.

Gaia: Hezkuntza. Ikasketa ertain eta unibertsitarioak egiteko beka eskuratzea.

Emaitza: Legezko betebeharren gogorazpena eta iradokizuna egin zaizkio Hezkuntza Departamentuari, kontuan har dezan PFEZaren aitortpena egin ondoren, aparteko inguruabar ekonomikoengatik, diru-sarreretan gerta daitekeen gutxitzea.

- 23. Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta haien laguntza emateari buruzko 39/2006 Legearen garapenari eta aplikazioari buruzko azterketa.**

Administrazio eskuduna: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua.

Gaia: Gizarte gaiak. Menpekotasuna

Emaitza: Legearen aplikazioa zuzena dela egiaztatzea.

24. Organo emateen eta Transplanteen Aholku Batzordearen funtzionamenduari buruzko azterketa.

Administrazio eskuduna: Osasun Departamentua.

Gaia: Osasun Batzordea. Osasun prestazioak.

Emaitza: Osasun Departamentuari iradokizun bat igorri zaio batzordea berrabia dezan eta bertan dauden organismo sozialen parte-hartze handiagoa susta dezan.

25. Hamabi urtez beherako seme-alabak zaintzeko lanaldia murrizteari buruzko arauaren betetzeari buruzko azterketa, irakasleek eskatua.

Administrazio eskuduna: Hezkuntza Departamentua.

Gaia: Funtzio publikoa.

Emaitza: Iradokizuna Hezkuntza Departamentuari, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen lanaldi murrizketa arautzen duen apirilaren 28ko 113/1997 Foru Dekretua bete dezan.

26. Neurri judizialen menpean dagoen adingabe baten egoera.

Administrazioa: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua eta Nafarroako Fiskaltza Nagusia.

Gaia: Gizarte Gaiak. Adingabeak.

Emaitza: Adingabearen eskubideak errespetatzen diren egiaztatzea.

4.2. GAIEN ARABERAKO LABURPENA

Nafarroako Arartekoak bere kabuz eginiko jarduerak ondoko arloetakoak izan ziren:

Gizarte Gaiak: 11

- Ezgaituak: 2
- Adingabeak: 5
- Gizarte zerbitzuak: 1
- Gastu sozial publikoa: 1
- Zaharrak: 1
- Menpekotasuna: 1

185

Hezkuntza eta irakaskuntza: 4

- TDA-H* duten haurrak.
- Herritartasunaren aldeko hezkuntza
- Eskolako jazarpena.
- Irakaskuntza ertain eta unibertsitarioetarako beka.

*TDA-H dutenentzako prebentzio eta tratamendu neurriei buruz Nafarroako Arartekoak bere kabuz eginiko jarduerak Hezkuntza, Osasun eta Gizarte Gaietako arloetan dute eragina.

Funtzio publikoa: 1

- Irakasleen lanaldi murrizketa.

Ogasuna: 1

- Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren Testu Bategineko 34.1 artikula aldatzea.

Barne arloa: 1

- Tratu txarren biktima baten babesa.

Lurraldearen Antolamendua: 1

- Alor ekonomiko bat ezartzeko exijitzen diren distantziak egiaztatzeko.

Herri lanak: 1

- Sarriguren ekohiriaren eta Mendillorri auzoaren artean pasabide bat eraikitzea.

Zerbitzuak publikoak ematea: 4

- Telefonia.
- Telekomunikazioak.

- Posta komunikazioak.
- Herritarren udal arartekoa.

Osasun Batzordea: 3

- Laguntza psikiatrikoa.
- Adingabeak.
- Osasun prestazioak.

Etxebizitza: 1

- Babestutako etxebizitza publikoa adjudikatzeko baremoaren azterketa.

187

4.3. LABURPENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARABERA

Honako hau da erakunde honek bere kabuz eginiko jardueretan administrazio publikoengana jo zuen kasuei buruzko laburpena:

I. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa: 25

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua: 2

Ekonomia eta Ogasun Departamentua: 1

Erakunde Harremanetarako Departamentua: 1

Hezkuntza Departamentua: 6

Osasun Departamentua. 3

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako
Departamentua. 8

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza
Departamentua. 2

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua: 2

II. Udalak: 3

Iruñeko Udala: 2

Eguesibarko Udala: 1

188

III. Comptos Ganbera: 1

IV. Beste batzuk: 3

Sustapen Ministerioa: 1

Nafarroako Fiskaltza Nagusia: 1

Valentziako Erkidegoko Turismo Kontseilaritza: 1

4.4. NAFARROAKO HAUREN ETA NERABEEN EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA

Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko 14. artikulua ezarri zuen Nafarroako Arartekoak haurren eta nerabeen eskubideak babesteaz arduratu behar duela, eta horretarako behar diren neurriak hartu behar dituela; besteak beste, Nafarroako Foru Komunitateko haurrek eta nerabeek duten egoera ebaluatzea urtek txostenean.

Aurreikuspen hori betetzeko, atal honetan arlo material honi buruzko zenbait datu eta balorazio eskaintzen ditugu, betiere funtsezko erreferentziatzat hartuta aipatu foru legean adierazitakoa, adingabearen babesaren arloko esku-hartza administratiboaren buru-buruan dagoen araua delako.

A) Arau- eta plangintza-lana

189

Puntu honetan, nabarmentzekoa da berriki urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretua onetsi eta indarra hartu duela. Izan ere, haren bidez, abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legea hein batean garatzeko erregelamendua onetsi zen. Arauak legearen erregulazioa osatzen du zenbait alderdi garrantzitsutan; esate baterako: arloan esku hartzen duten langileen lanbide profil espezializatuak, Balorazio Batzordea, Administrazioak zenbat jarduera, baliabide eta produktutan izanen duen esku-hartzea, kautelazko neurriak, babesgabetasuneko egoerak, familiako babesa eta babes neurrien jarraipena, aldaketa eta iraungipena.

Arauaren izenetik beretik ondoriozta daitekeen bezala, oraindik ere garatu beharrekoak diren alderdi batzuk falta dira, eta komenigarria litzateke araugintza-lan hori osatzea, legegilearen agindua betez. Hori guztia dela eta, bidezkoa da adieraztea gaur egun tramitatzeko bidean direla Haurren eta Nerabeen

Arretarako Kontseiluaren osaketa, antolamendua eta funtzionamendua arautuko dituen arauaren tramitazioa, eta Foru Komunitatean adopziorako prozedura administratiboa erregulatuko duena.

Horrenbestez, plangintza-jarduerari dagokionez, aurreko Haurrak eta Nerabeak Laguntzak Plana iraungi eta jada ebaluatuta dagoenez, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Lege indardunear ezarritako beste tresna batzuekin ordeztu da: Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa eta Zentroak eta Zerbitzuak Ikuskatzeko Bigarren Plana.

B) Adingabeen eskubideen sustatzea eta zabaltzea

Jakina denez, Haurrentzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko Foru Legearen testuan adingabeen eskubideak eta betebeharrak jasotzen ditu, eta haiek sustatzeko eta jakitera emateko agintzen du. Eginkizun horri dagokionez, Foru Administrazioak jardunaldiak eta tailerrak antolatu izan ditu, eta Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuko intraneten eskubide horiei buruzko informazioa argitaratu du.

Administrazioaren lana aitortzeari utzi gabe, eta ikusita nabarmena dela populazio sektore horrek hain zuzen ere bere eskubideak eta betebeharrak –banakakoak zein sozialak– ezagutzeko dauzkan arazoak, badirudi egokia dela lan horretan has dadin bultzatzea eta bereziki hezkuntza administrazioarekin koordinaturiko ekintzen bitartez indar dadin.

C) Prebentzio jarduerak

Prebentzio jardueren helburua da babesgabetasuneko eta gizarte-gatazkako balizko egoerak saihestea edo ahal den guztian gutxitzea. Administrazio publikoaren esku-hartzea bi alderditan zentratu da funtsean:

- Prestakuntza jarduerak antolatzea: hezkuntzaren, osasunaren eta oinarrizko gizarte zerbitzuen arloko esparru profesionalera zuzenduak. 2008an, 8 prestakuntza ekintza egin ziren.
- Arlo honetan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitateen sustapena. Horretarako, diru-laguntza publikoak ematen zaizkie babesgabetasuneko nahiz gizarte gatazkako arrisku-egoeran dauden adingabeekin jarduerak egiteko. Halaber, lankidetzeta-hitzarmenak sinatzen dira gizarteratze eta laneratze tailerrek lan egin dezaten.

Adingabeen eskubideen eta betebeharren sustapenari eta zabalkundeari buruz esan dugun bezala –izan ere, prebentzioak lotura hertsia du jarduera horrekin–, eta aurrera eramandako ekintzen egokitasuna nabarmenduta, bultza egin nahi dugu arlo horretako jarduerak indar daitezten, ahal den neurrian, kontuan hartuta Foru Legeak lehentasunezko tokia ematen diela. Zehazki, komenigarria dirudi azpimarra jartzea, era berean, familiei laguntza ematearen arloko prebentzio ekintzetan eta gizarte harremanekin eta aisiarekin lotutakoetan, hain zuzen ere legean jasotzen diren horietan.

D) Babes jarduerak

a) Arrisku-egoerak

Babesgabetasuneko egoeren artean, arriskukoak dira intentsitate handiena edukitzen dutenak eta, horrenbestez, esku-hartzetxikiagoa exijitzen dutenak. 2008an, egoera horietan eguneko zentroen bitartez eman da arreta (25 adingabe) bai eta Familietan Esku Hartzeko Programaren bitartez ere (50 familia eta 119 adingabe). Datuek egoera horien igoera arin bat erakusten dute, aurreko ekitaldian antzemandakoekin alderatuta.

Inongo kasutan ere ez da gertatu adingabea familiatik bereizi behar izatea.

b) Babesgabetasun egoerak

Babesgabetasuna intentsitate handiagoaz agertzen den eta adingabearen zaintza hartu beharra dakarten babesgabetasun egoerak dira. 2008an, 20 adingabe babesgabetasun egoeran deklaratu ziren. Kopuru hori aurreko ekitaldikoa (33) baino nabarmen txikiagoa da. Beherakada hori positibotzat jo behar da, neurriaren aparteko eta muturreko izaera kontuan hartuta. Bestalde, 3 adingaberen babesgabetasun egoeraren deklarazioa deuseztatu zen, eta gurasoen zaintzaren menpera itzuli ziren.

c) Familiei laguntzeko jarduerak

Puntu honetan, Administrazioaren babesak jaso dituzten familiak aipatzen dira (babes teknikoa nahiz ekonomikoa), alde batera utzita zain jarduera mota izan den. Administrazioaren babes horren helburua izan da bereiztea saihestea, eta bereizte kasuetan, adingabearen itzultzea bilatzea. Datua aipagarria da, zeren eta ongi islatzen baitu zenbat familiak behar duten Administrazioaren laguntza, eta, horrenbestez, zenbatek dituzten zailtasunak, gutxi-asko trinkoak, adingabeei behar bezalako arreta emateko.

Nafarroako Gobernuko Familia Zuzendaritza Nagusiak ohartarazi digu zaila dela datua zehaztasunez ematea; hala eta guztiz ere, jo dugu 2008an 1.847 familia izan direla egoera horretan; aurreko ekitaldian, berriz, 1.757 izan ziren.

Horrenbestez, esan daiteke laguntza behar duten familia guneen kopurua handia dela. Datu horrek ongi justifikatzen du Administrazio publikoak egin beharreko ahalegin pertsonalak eta aurrekontukoak.

d) Zaintza egoeran dauden adingabeak

Zaintza da babesgabetasun egoerei aurre egiteko aurreikusita dagoen neurri bat, eta harreraren figuraren bitartez gauzatzen da.

2008an, 442 adingabe gertatu dira egoera horretan. Kopuru hori, izan ere, aurreko urtekoa baino txikixeagoa da (464).

e) Tutoretzapeko adingabeak

Tutoretza, administratiboa nahiz arrunta, beste babes-neurri bat da. 207 izan dira 2008an tutoretzapean egon diren adingabeak, ia aurreko urteko kopuru bera (202).

f) Harrera indardun eta formalizatuak

Geriza-gabetasuneko egoeran dauden adingabeen tutoretza eta zaintza harreraren bidez formalizatuko dira. 2008an, 24 adingaberen harrera formalizatu zen. Ondoren adierazitakoak dira harreran dauden adingabeen guztizko kopuruak:

- Harrera egoeran dauden adingabeen kopurua, guztira: 464.
- Familiako eta egoitzako harrerak: 267 eta 197 adingabe, hurrenez hurren.
- Familia zabalean eta beste familia batzuetan gauzaturiko harrerak: 183 eta 84 adingabe, hurrenez hurren.
- Harrera soilak, iraunkorrak eta adopzioaren aurrekoak: 96, 158 eta 16 adingabe, hurrenez hurren.

Horri dagokionez, gogoratu beharra dago foru legeak familiako harrerari ematen diola lehentasuna egoitzako harreraren gainetik; halaber, lehentasuna ematen zaio familia zabalean hartzeko aukerari beste familia batzuetako harreraren gainetik. Eskainitako datuak ikusita, esan daiteke nahiko ongi betetzen ari dela legegilearen helburua; hala eta guztiz ere, gomendatzen dugu familia-harrera indartuko duten neurriak ezartzen jarraitzea, eta egoitzako harrera ahal den guztian gutxitzea.

g) Nazioko eta nazioarteko adopzioak eta egokitasun-deklarazioak

2008an, 4 adopzio nazional eta nazioarteko 74 adopzio gauzatu ziren. Halaber, egokitasuneko 130 deklarazio eman ziren. Kopuruak 2007koak baino txikiagoak dira (12 adopzio nazional, nazioarteko 98 adopzio eta egokitasuneko 130 deklarazio).

Azpimarratu beharra dago prozedurak arintzeko eta errazteko neurriak sustatu behar direla, eta egokitasuneko deklarazioak emate irizpideak eta tramiteak erregulatu behar direla.

h) Gatazka egoeran dauden adingabeak

Puntu honetan babes sisteman egon eta ez-egokitzapen larriko egoeran daudelako beren buruei edo besteei kalte egiteko arriskuan izan daitezkeen adingabeak aipatzen ditugu. 2008an, 217 adingabe zeuden egoera horretan; kopuru hori gutxitzeko ahaleginak egin behar dira, prebentzioaren, hezkuntzaren eta laneratzearen arloko neurriak aplikatuta.

i) Autonomia pertsonaleko programa

Halakotzat jotzen dira 16 eta 18 urte bitarteko adingabeei zuzendutakoak, baldin eta neurri judizial edo administratiboren bat ezarri bazaie, haien gizarteratzea edo laneratzea errazteko.

62 adingabe daude egoera horretan, eta dauden egoitzan helburu hori lortzeko edukiak ikasten ari dira. Horietatik, 27k laguntza ekonomiko bat jasotzen dute, gainera.

Nabarmenezkoa da arlo horretako jarduerak indartzeko beharra dagoela. Erakunde honek jadanik gomendio batzuk eman ditu emantzipaziorako edo helduen bizitzara iragateko programak indartzeko.

j) Helduen laguntzarik gabeko haur atzerritarrak

Bidezkoa da esatea errealitate horren berariazkotasuna ikusita, 2008an txosten berezi bat aurkeztu genuela Nafarroako Parlamentuan adingabe horiek Nafarroan duten egoerari buruz. Positiboki baloratu zen Familia Zuzendaritza Nagusiaren eta entitate laguntzaileen lana. Txostenean, halaber, iradokizun eta gomendio batzuk egin genituen, eta haietara jotzeko eskatzen dugu.

E) Erreforma sistemako jarduerak

Nabarmentzekoa da, Ministerio Fiskalak azpimarraturiko alderdi bat den aldetik, adingabeek eginiko delitu eta faltek nabarmen egin dutela gora. Txosten hau idazteko unean, 335 adingabe barnetegi araubideko nahiz ingurune irekiko neurri judizialak betetzen ari dira. 2008an, 10 adingabe sartu ziren neurri judizialak betetzeko ezarritako zentroan, eta 144 adingabe, berriz, erreformako sisteman sartu zirela neurri horiek ingurune irekian betetzeko.

195


F) Arau-hauste administratiboan araubidea

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak jakinarazi digun bezala, 2008an ez zen inongo zehapen-espeditente administratiborik zabaldu 15/2005 Foru Legaren esparru materialean. Hala eta guztiz ere, Nafarroako Foruzaingoaren 9 salaketa jaso ditugu, une honetan oraindik ere baloratu ez direnak.

5 _ zerbitzu publikoak hobetzeko proposamenak

2008

5 _ zerbitzu publikoak hobetzeko proposamenak



2008

V. KAPITULUA

ZERBITZU PUBLIKOAK HOBETZEKO PROPOSAMENAK

5.1. EGINDAKO PROPOSAMENAK

2008an, erakundean zerbitzu berri bat jarri zen abian. Haren helburua da Nafarroako administrazio publikoek ematen dituzten zerbitzu publikoei buruz herritarrek aurkezten dituzten hobekuntza-proposamenak jaso eta, kasua bada, tramitatzea. Zerbitzu berri horrekin, herritarrek parte hartzeko beste ildo bat artikulatu ahal izan da, Nafarroako administrazio publikoek ematen dituzten zerbitzuei eraginkortasun handiagoa emateko. Horrek guztiak herritarren eskubideak bermatzeko xedea dauka.

Zerbitzu hau eskaini den lehendabiziko urteko esperientzia positiboa izan da; izan ere, herritarren partaidetza handia izateaz gainera, Nafarroako administrazio publikoek eta Nafarroako Parlamentuak aintzat hartu dituzte aurkeztutako proposamenetako batzuk.

199

2008an, 63 proposamen aurkeztu dira, honako gaiei buruz:

ARLOAK	PROPOSAMEN KOPURUA
Etxebizitza	18
Gizarte Gaiak	11
Hezkuntza	6
Elebitasuna/euskararen erabilera	5
Osasuna	5
Komunikazioak eta garraioa	4
Mankomunitateen tasak eta kudeaketa	3
Ogasuna	3
Ingurumena	2
Funtzio publikoa	2
Herri lanak	1
Lanbide elkargoak	1
Justizia	1
Zerbitzu publikoen kalitatea	1

Ikusten denez, proposamen kopuru handiena **etxebizitzaren** arlokoak ziren; gehienak, etxebizitza babestuen adjudikazioari buruzkoak ziren, eta zehazki, etxebizitza publikoak adjudikatzeko baremoari buruzkoak. Baremoa dela-eta kexa gehienak honako irizpideengatik aurkeztu ziren: eskatzaileen adina, familia unitatearen existentzia determinatzeko irizpideak eta, oro har, etxebizitzaren beharra kreditatzeko moduak.

Gainera, proposamen batzuk jaso ziren alokairuko etxebizitza babestua sustatzeari buruz, bai eta haiek adjudikatzeko baremoaren alderdi batzuk hobetzeko ere.

Etxebizitzaren arloko proposamen batean, etxebizitza-kontuan etxebizitza bat erosteko edo zaharberritzeko epea luzatzea planteatu zen, arlo ekonomikoan, arlo fiskalean eta etxebizitza eskuratzearen arloan hartu beharreko presako neurriei buruzko azaroaren 28ko 1975/2008 Errege Dekretuan ezarritakoari jarraituz; izan ere, errege dekretu horretan, Estatuak 2010eko abenduaren 31ra arte luzatzen du ohiko etxebizitza erosteko edo zaharberritzeko epea etxebizitza-kontuaren epemuga 2008ko urtarrilaren 1etik 2010eko abenduaren 30era arte ezarrita zuten pertsonentzat, betiere kenkariak egiteko epea zabaltzeko eskubiderik eman gabe.

Gizarte gaien arloan, proposamenak era askotakoak izan ziren. Nabarmentzekoak dira ezgaitasunari dagozkionak, eta, zehazki, ezgaitasun fisiko edo adimenekoren bat duten pertsonen enplegu publiko nahiz pribaturako sarbidea hobetzea bilatzen zutenak.

Hirugarren adinaren arloan, zenbait proposamen aurkeztu ziren adineko pertsonen arreta eta prestazioak hobetzeko; bestiek beste, alarguntasuneko eta erretiroko gutxieneko pentsioak hobetzeko.

Familiaren arloan, herritarrek bi modutako proposamenak egin zituzten: familia ugarietara tarifetan deskontuak aplikatzeko beharra

eta nazioarteko adopzio-prozesuak sortzen dituen gastuei aurre egiteko laguntzak ezartzeko beharra.

Hezkuntzaren arloan, proposamenak eskolatzeko irizpideei buruzkoak izan ziren; bereziki, osagarri gisa aplikatzen diren irizpideak berraztertze beharrari buruzkoak; halaber, eroldaren datuaren egiazkotasuna konprobatzea bideratuko duten mekanismoak ezartzeko egokitasuna, norberaren etxebizitzaren hurbiltasunari eskolatzeko irizpide gisa dagozkion puntuak emateko.

Gainera, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko ordezkariak proposamen bat egin zuten Araubide bereziko hizkuntzen ikasketen curriculumaren oinarriko alderdiak ezartzen dituen abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuak araututako zenbait alderdiri buruz (arabide bereziko hizkuntzen irakaskuntza Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arautu zuen). Proposamen horretan, estatuaren eskumenekoak diren zenbait alderdi planteatu ziren. Horiek, izan ere, Gorte Nagusiek izendatutako arartekoari igorri zitzaizkion. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eskumenekoak direnak, berriz, Hezkuntza Departamentuaren eskuetan utzi ziren.

Elebitasunaren arloan, aurkeztutako bost proposamenen helburua izan zen eskualde mistoan euskararen erabilera gehiago bultzatzea.

Osasun laguntzarekin loturiko alderdiei buruz jasotako proposamenak honako alderdien gainekoak izan ziren: osasun garraioaren kudeaketa-eredu berria ezartzea; fibromialgia eta neke kronikoaren sindromea direla-eta zenbait neurri hartzeko beharra; haur e4ta gazteen psikiatria espezialitatea sortzeko eskaria; datu klinikoaren isilpekotasuna bermatzeko beharra ondare-erantzukizuneko espediente bat tramitatzen denean; eta Osasun Departamentuak psikiatriako unitateetan borondatez kontrako ospitaleratzeetan jarraitzen duen protokoloa.

Telekomunikazioen arloan, proposamen bat aurkeztu zen WI-FI konexioen zenbait alderdi erregulatzeko.

Gainera, **garraioaren** arloan, zenbait neurri proposatu ziren taxisten egoera hobetzeko; bereziki, taxilarien elkarteei laguntzeko formularen bat bilatzeko aukerari dagokionez, hain zuzen ere enpresa publiko eta pribatuekin zerbitzuak kontratatuz. Halaber, proposamen bat aurkeztu zen Iruña eta Madril arteko aire-komunikazioak hobetzeko.

Ogasunaren arloan, aurkeztutako proposamenetatik bik BEZa kentzeko edo % 7tik % 4ra gutxitzeko aukera aipatzen zuten hirugarren adineko egoitzetan egiten diren zerbitzu eta laguntza sozialeko prestazioetan. Iradokizun hori Gorte Nagusietako arartekoari igorri genion. Halaber, PFEZaren arauak aldatzea proposatu zen, saihesteko gurasoek seme-alabei eginiko dohaintzetan transmititutako ondasunen balio-gehikuntzarengatik tributuak ordaindu behar izatea.

Herritarrek bi proposamen aurkeztu zituzten mankomunitateak tasak ordaintzetik salbuetsita egoteko. Batean proposatzen zen Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitateak tasa txikiagoak ordaintzea, eta bestean Iruñerriko Mankomunitateak hiri hondakinengatiko tasen zenbatekoa zehazteko irizpidea aldatzea. Gainera, herritar batek proposamen bat aurkeztu zuen Jurramendiko Mankomunitateko ur-baliabideen kudeaketari buruz.

Funtzio publikoaren arloan, proposamenak funtzio publikoan sartzeko prozeduren garapena eta gardentasuna hobetzeko beharrari buruzkoak izan ziren.

Ingurumenaren arloan, herritarrek bi proposamen aurkeztu zituzten: lehendabizikoa, telefonia mugikorreko antenen eremu elektromagnetikoen eraginari buruzko azterlan bat egiteari buruzkoa; bigarrena, ehiza-barrutiei buruzko arauak aldatzeari buruzkoa, adingabeak haietara sar ez daitezen.

Herrilanen arloan, hiri-bideetan oinezkoentzako pasabide goratuak kentzea proposatu zen.

Lanbide elkargoen eskumenen esparruari dagokionez, Nafarroako Erizainen Lanbide Elkargoari planteatu zitzaion elkargoari ordaindu beharreko kuota gutxitzea seme-alaben zaintzarako lanbide-murrizketako kasuetan.

Justiziarekin loturiko gaietan, erakunde honi adierazi zitzaion protokolo bat artikulatu beharko litzatekeela abokatu bakarria izendatzeko adingabe baten zigor arloko gai guztietan defentsako eta laguntza juridikoko lanak egiteko.

Azkenik, **politika publikoen kalitateari** dagokionez, Politika publikoen eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko abenduaren 29ko 21/2005 Foru Legean ezarritakoarekin bat, proposatu da udal guztietan sistema edo prozedura bat ezartzea herritarrek “kexak edo proposamenak” aurkeztu ahal izateko.

Berriz nabarmendu behar dugu kapitulu honetan azaldutakoak herritarrek aurkezturiko proposamenak direla, eta erakunde honek administrazio publiko eskudunari igortzen dizkiola, eta ahal den neurrian, haren aurrean defendatzen dituela; bestela, Estatuaren eskumenekoak badira, Gorte Nagusietako arartekoari igortzen dizkio.

5.2. LABURPENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARABERA

Honako hau da erakunde honek administrazio publikoengana jo zuen kasuei buruzko laburpena:

I. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa: 62

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua: 6

Ekonomia eta Ogasun Departamentua: 4

Erakunde Harremanetarako Departamentua: 1

Hezkuntza Departamentua: 8

Osasun Departamentua. 6

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua. 3

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua. 8

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentua: 1

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua: 5

_Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua: 14

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua: 2

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua: 4

II. Toki entitateak: 9

Proposamenetako bat Nafarroako udal guztiei igorri zitzaien.

Iruñeko Udala: 4

Iruñerriko Mankomunitatea: 2

Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatea: 1

Jurramendiko Mankomunitatea: 1

III. Gorte Nagusietako arartekoa: 2

205

IV. Beste batzuk: 1

Erizainen Elkargo Ofiziala: 1

6 _ gomendio eta iradokizun
nagusiak

2008

6 _ gomendio eta iradokizun
nagusiak



2008

VI. KAPITULUA GOMENDIO ETA IRADOKIZUN NAGUSIAK

6.1. SARRERA

Kapitulu honetan 2008ko jarduerari dagokionez gauzatu diren edo gauzatzeko dauden gomendio, iradokizun eta lege-betebeharren gogorarazpen nagusiak jasotzen dira.

Jakina, ez dira egindako gomendio, iradokizun eta gogorarazpen guztiak jasotzen, garrantzi berezikoat jo ditugunak baizik. Guztiak jasotzea lan handia izanen litzateke. Baina, batez ere, kapituluari interesa kenduko lioke eta, are okerrago, Nafarroako Parlamenturako interes gehien izan dezaketen gomendioak identifikatzea saihestuko litzateke.

2008an 446 gomendio, iradokizun eta gogorarazpen egin ziren guztira, honako taula honetan adierazten den moduan:

209

Zenbat	Gomendioak	Legezko Betebeharren Gogorarazpenak	Iradokizunak	Iradokizun normatiboak	Bitartekaritza-ebazpenak	GUZTIRA
Kexetan	97	101	34	8	1	241
Arartekoak						
bere kabuz eginikoetan	-	-	64	-	-	64
proposamenetan	-	-	23	-	-	23
Txosten berezietan	-	-	118	-	-	118
GUZTIRA	97	101	239	8	1	446

Hemen jasota dauden gomendio, iradokizun eta gogorarazpen nagusiak gaiaren arabera sailkatuta daude, eta xede-administrazioa nahiz edukia adierazten dira.

Horrez gain, adierazten da administrazioak gomendia, iradokizuna edo gogorarazpena onartu duen edo oraindik onartzeke dagoen. Ezer esaten ez dugunean, gomendia, iradokizuna edo gogorarazpena Administrazioaren erantzunaren zain dagoela esan nahi du. Hartara, gomendia gaur egun nola dagoen jakin daiteke, Nafarroako Parlamentuak kontrol-ekimenean

bat gauza dezan, hala badagokio.

Gomendio bat onartutakotzat sailkatzeak ez du esan nahi gomendioa gauzatu denik. Erakundeak ondoren egiaztatzen du onarpena gauzatura dagoen.

Azken batean, Erakundeak 2008. urtean gauzaturako jarduera modu eraginkorrean laburbildu nahi da, bai eta administrazioen aldetik jasotako onarpen maila ere. Halaber, Nafarroako Parlamentuari jakinarazi nahi zaizkio onartu ez diren edo onartzeke dauden gomendio eta iradokizunak, botere exekutiboaren gaineko kontrol-ekimenen mekanismoak aktibatu nahi baditu ere.

Gomendioak eta iradokizunak, errazago aurkitzeko, xede duten gaiaren araberako hurrenkera alfabetikoan ematen ditugu.

6.2. GOMENDIOAK ETA IRADOKIZUNAK ARLOKA

210

6.2.1. NEKAZARITZA

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua

- Interesdun batek Europar Batasuneko Nekazaritza Politikaren Informazio Geografikoko Sistemari (SIGPAC) lur sail batzuei esleiturako erabilera aldatzeko eskaria egiten badu, eskari horri behar den moduan eta epean erantzutea, ebazpen espresarekin. Eta interesdunari egintzaren jakinarazpena ematea.
- Lur sailen berrantolamendu prozesuetan, ahal bezain modu zabalean erantzutea interesdunek alegaturako desadostasunei eta akatsei, are gehiago administrazioaren jardun okerrarengatik kalte-ordainak

emateko betebeharra dagoen kasuetan. **Onartua.**

- Nafarroako oihan ondareari buruzko zaintza- eta ikuskapen-ekintzak areagotzea; bereziki, basoberritutako lurren kasuan. **Ez da onartu.**

6.2.2. GIZARTE ONGIZATEA

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua

- Epe ertain eta luzean hirugarren adineko egoitzetako postuen eskaintzari buruzko plangintza bat egitea; bereziki egoitza publikoei dagokienez. Horrekin, izan ere, modua egonen da eskatzaileei beren etxebizitzatik gertu dagoen postu bat emateko. **Onartua.**
- Nafarroako irabazi asmorik gabeko egoitzetako elkarten ordezkariekin hitz egin ondoren, egoitza horiek ordezkatzan duten gizarte-ekimenari laguntza emateko araubide berezia edo berariazkoa artikulatzea, bai alde juridikotik (irabazi asmoa duten egoitzen sustatzaileei exijitzen zaizkien betebeharrak modulaturaz), bai alde ekonomikotik (diru-laguntzen edo onura fiskalen bidez), bai beste modu batzuetatik ere.
- Familia ugariei buruzko 20/2003 Foru Legearen erregelamenduzko garapena sustatzea, familia horientzako babes-ekintza ezartzeko.
- Adopzio nazionaleko prozesuetan, modu exhaustiboan baloratzea adingabearen familia biologikoaren egoera, eta familia adoptatzaileari ekintza judizialek ekar ditzaketen inguruabarrei buruzko informazioa ematea. **Onartua.**

- Ahal den guztietan, adingabeen gainean esku hartzeko neurriak dakartzaten administrazio-jardueretan gurasoen parte-hartzea bideratzeko legezko agindua betetzea.
- Adopzio prozesuetan, egokitasun-balorazio bat ebazteko –eta horrenbestez kasuko ziurtagiria emateko– gehieneko epea ez dadila sei hilekoa baino luzeagoa izan, eskatzailea edo eskatzaileak departamentura lehenengo aldiz jotzen duten unetik aurrera kontatuta.
- Nazioarteko adopzioa aukeratzen duten familia adoptatzaileei laguntzeko behar diren mekanismoak artikulatzea, adopzio prozesuan beren gain hartu behar dituzten gastuak ordaindu ahal izan ditzaten. **Onartua.**
- Familia-harrerari dagokionez:
 - Harrerako familientzako larrialdien telefono bat jartzea.
 - Familia-harrerako kasuen aldizkako jarraipena egitea.
 - Familiaren eta Haurren Zuzendaritza Nagusiari giza baliabide gehiago ematea, adingabe horiei eta beste batzuei laguntza eman ahal izateko.
 - Harrerako familiei diru-laguntzak emateko irizpideak berraztertzea.
- TDA-Hari (arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahastea) aurrea hartzearen eta hura tratatzearen arloan
 - Behar diren laguntza ekonomikoak jartzea tratamendu farmakologikoa hartzen duten haur

hiperaktiboen familiei laguntzeko, zuzeneko laguntzen bitartez, nahiz kenkari fiskalen bitartez.

- TDA-Ha nahastea ezgaitasunerako arrazoia izateko aukerari buruzko azterlan bat egitea. Eta halakotzat jotzen bada, behar diren legezko neurriak eta neurri administratiboak jartzea.

- TDA-Ha duten pertsonen eta familien Nafarroako elkarteei babesa eta laguntza handiagoa ematea.

- Haurtzaindegiak eraikitzeko eta lanean jartzeko berriarazko baldintzak arautzea, halakoak hartuz lehen mailako gizarte zerbitzu baten gisara; izan ere, Haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuan ez baitaude jasota.
- Menpekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeari eta laguntza emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko laguntzak eskatu dituzten pertsonak hiltzen diren kasuetan, senideei ordaintzea heriotza gertatu bitartean emandako zainketa aringarriari dagokien laguntzaren zenbatekoa. **Onartua.**
- Departamentuan behar adina langile jartzea Nafarroako Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroan aurreikusitakoa modu efiziente, eraginkor eta berehalakoan garatuko dela bermatzeko.
- Minusbaliotasuna duten pertsonen lanpostu bat eskuratzen dutenean ezintasun pentsioa txikiagoa ez izan ez dezaten bilatu beharreko konponbideak aztertzea.
- Jokabide erasokorra duten minusbaliatu psikikoentzako zentroak edukitzeko aukera aztertzea.

- Interesdunei informazioa ematea beren eskabideak aurkezteko bete beharreko baldintzei buruz, eta Administrazioak akatsak egin dituen kasuetan, fede onaren eta konfiantza legitimoaren printzipioak errespetatu daitezzen, halako moduan non herritarrak ez dituen bere gain hartu beharko informazio okerrak sorrarazitako ondorio negatiboak.
- Departamentuak ikusten duenean diru-laguntza bat emateko inguruabar determinanteak aldatu direla, interesdunei entzunaldi-epe bat ematea, kasuko ebazpena eman aurretik, egokitzat jotzen dute guztia alegatu ahal izan dezaten.
- Administrazioak prestatzen dituen baldintza administratiboen orrietan, Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legean aurreikusitako aukeraz baliatzea, eta, horrenbestez, legez ezarritako mugaz goitiko ezgaituen kopuru bat kontratatzekeo beharra eta antzeko beste betebeharrak batzuk sar daitezzen. **Onartua.**

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua

- Protokolo bat erabiltzea abokatu bakarra izendatzeko adingabe baten zigor arloko gai guztietan defentsako eta laguntza juridikoko lanak egiteko. **Onartua.**
- Legegintza ekimen bat tramitatzea, Nafarroako administrazio publikoek onesten dituzten deialdietan postu batzuk gorde ahal izan daitezzen adimenerako ezgaitasun arina edo moderatua duten pertsonentzat eta gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunak dituzten beste kolektibo batzuentzat. **Onartua.**

Iruñeko Udala

- Udal ordenantza baten bitartez erregulatzea minusbaliatuentzako aparkatze-txartelak emateko baldintzak. **Onartua.**

Zarrakazteluko Udala

- Aldizka zaharrentzako egoitza publikoaren kudeaketa-kontratuaren betearazpenari buruzko ikuskapen- eta kontrol-ahalmenaz baliatzea, ezertan kendu gabe Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak ikuskatzek eta zehapenak ezartzeko dauzkan ahalmenak. **Onartua.**

6.2.3. ELEBITASUNA

Osasun Departamentua

- Eskualde euskaldunean banakako osasun txartel elebidunak egiteko legezko betebeharra betetzea. **Onartua.**

Erakunde Harremanetarako Departamentua

- Nafarroako Parlamentuaren 2005eko abenduaren 23ko ebazpena betetzea. Izan ere, haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen du, Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak emaniko txostenari jarraituz, irrti-lizentzien etorkizuneko adjudikazioetan, baimena eman diezaiola programazioa euskaraz ematen duen irrti bati, eta horretarako kontuan har dezala azken hamarkadetan

irriaren arloan euskararen alde egindako lana.

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentua

- Eskualde euskaldunetan eta mistoan, gaztelaniazko eta euskarazko argitalpenak bereizirik egiten direnean, hizkuntza bateko eta besteko aleak aldi berean banatzea, aldi berean irits daitezzen herritarren eskuetara, are gehiago banaketa D ereduko ikastetxeetan egitekoa bada. **Onartua.**

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua

- Herritarrek eskualde mistoan dauden bulego eta zerbitzuetara, ahoz nahiz idatziz, euskaraz jotzeko duten legezko eskubidea bermatzea, eta lehendabiziko unean herritarrei laguntza ematen dieten langileek Nafarroako hizkuntza bereki hori ez jakitea ez dadila eragozpena izan eskubide horretaz modu eraginkorrean baliatzeko. **Onartua.**

216

Ekonomia eta Ogasun Departamentua

- PFEZari buruzko kanpaina edo beste foru-tributu batzuei dagokien erakunde-publizitatea elebiduna izatea – gutxienez ere eskualde euskaldunetan, eta ahal den guztian eskualde mistoan–, eta euskarri bakarrean egitea, ez gaztelaniazko eta euskarazko ale bereizietan. **Onartua.**

Hezkuntza Departamentua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa

- Herritarren eskuetan jartzea tramiteak modu telematikoan euskaraz egin ahal izateko behar diren baliabideak.

Onartua.

6.2.4. HEZKUNTZA

Hezkuntza Departamentua

- TDA-H nahastea (arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahastea) antzemateko eta tratatzeko behar diren neurriak ezartzea. Ondokoak bereziki:
 - Osasun Departamentuarekin batera, nahaste horri buruzko gizarte-sentsibilizazioko kanpaina bat egitea.
 - TDA-H nahastearen antzemateari eta tratamenduari buruzko prestakuntza ematea orientatzaileei ez ezik, maisu-maistrei eta Bigarren Hezkuntzak irakasleei ere, nahitaezko moduan.
 - Ikastetxeetan irakasleentzako eta ukitutako familientzako gidak zabaltzea, CREENA Nafarroako Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroak daukan informazioarekin.
 - Gurasoei TDA-H nahasteari eta jokabidearen beste nahaste eta arazo batzuei buruzko mintegiak eskaintzea, susmo-aztarnak identifikatzen eta arazoa lantzen laguntzeko.
 - Hezkuntza Departamentuak (CREENAREN bitartez) sindrome horri buruz eskaintzen duen informazioa errazago eskuratu ahal izatea: haren antzematea, eskatzen duen hezkuntza-erantzuna, daukan ezaugarriak, diagnosis eta ebaluazio psiko-pedagogikoa.

- Osasun Departamentuan eta Hezkuntza Departamentuan gune ahulak detektatzeko dagoen jarduketa-protokoloa ebaluatzea, eta ahal den guztian hobetzea.
- Eskola-porrota izan eta TDA-Ha duten ikasleentzako antolamenduzko proposamen berariazkoak eskaintzeko aukera aztertzea.
- Eskola-jazarpenari aurrea hartzeko eta hura tratatzeko neurriak ezartzea. Honakoak, besteak beste:
 - Azterlan bat egitea eskola-jazarpenak Nafarroako ikastetxeetan duen dimentsioari buruz. Onartua.
 - Ikasleen eskubideak eta betebeharrak erregulatzen dituen araua berrikustea, eta egungo egoeraren eskakizunetara egokitzea. Onartua.
 - Eskolako indarkeria kasuetan esku hartzeko protokoloa hobetzea. Onartua.
 - Ikastetxeetako barne-araubideko erregelamenduak egokitzea, bizikidetasunaren arloko behar diren aurreikuspenak jaso ditzaten. Onartua.
 - Teknologia berrien bitartezko jazarpenaren fenomenoak (“ciberbullying” deitu izan dena) eta hari eman beharreko hezkuntza-erantzuna aztertzea.
- Funts publikoekin mantendutako ikastetxeetan ikasleak onartzeko irizpide osagarri gisa “antzinako ikasleren semea edo alaba” izatearena kentzea, baztergarritzat jotzen delako. Eta egokitzen jotzen bada Hezkuntzaren Lege Organikoak ezarritako lehentasunezko irizpideen irizpide osagarriak ezartzea, foru lege edo foru dekretuz

ezar daitezzen, betiere arrazoi objektibo eta justifikatuei jarraituz. **Ez da onartu.**

- Eskolatze prozesuan eroldari buruzko datuak faltsutzen diren kasuetan, kontroleko mekanismoak eta zigorklausulak ezartzea. **Onartua.**
- Funts publikoekin mantendutako 0-3 urteko ikastetxeetan sartzeko berdintasunezko baldintzak bermatzea, eta ez jartzea lehentasunezko zerrendak ikastetxea kokatuta dagoen udalean errolatuta daudeneztat. **Onartua.**
- Laguntza ekonomikoak ematea entzumenezko ezgaitasuna izan eta beste keinuen hizkuntza tresna-hizkuntza gisa erabiltzen den beste autonomia erkidego batzuetako ikastetxeetara joan behar duten ikasleentzat, Nafarroako Foru Komunitatean halako ikastetxerik ez dagoelako. **Ez da onartu.**
- Ikastetxeak funtzionamenduan ez jartzea harik eta haiek eraikitzeo obrak guztiz bukatu arte eta kasuko lizentziak lortu arte. **Onartua.**
- Nafarroako Pirinio aurreko ibarretako ikasleen derrigorrezkoaren ondorengo hezkuntza planifikatzeko eta finantzatzeko neurriak ezartzea.
- Behar diren jarduerak egitea beharrezkoa bada Erroankari ibarrean beste ikastetxe bat eraikitzeo. **Onartua.**
- Ikasleen eskubideak eta diziiplina prozeduretako bermeak erregulatzeko araua zorrotz betetzen dela begiratzea. **Onartua.**
- Departamentuak ikastetxeak antolatzeko aurreikusitako epeez kanpo irakasleek eskatzen dituzten hamabi urtez

beherako seme-alabak zaintzeko lanaldi murrizketarako baimenak ez egotea eskatzailearen ordezkoa kontratatzearen menpean. **Onartua.**

- Zehaztea zein baldintzatan emanen zaien baimena Nafarroako hizkuntza eskola ofizialei C1 eta C2 mailetako espezializazio ikastaroak emateko, Europako Erreferentziako Esparru Komunean (Bolonia) zehaztutakoaren arabera.
- Nafarroako Parlamentuaren 2008ko apirilaren 23ko Ebazpena betetzea. Izan ere, Haren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarrizko hezkuntzarako testuliburuak finantzatzeko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legeak aipatzen dituen materialen erosketa egitean, liburu-denden sektoreari lehentasuna emateko. **Onartua.**

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

- Nafarroako Unibertsitate Publikoan doktoretza lortzeko arauak aldatzea, halako moduan non baimena emanen baita tesiaren zuzendaritza aldatzeko; eta doktore-izangaiaren eta tesiko zuzendariaren arteko desadostasunak egonez gero, tesi-proiektuaren onargarritasunaren azken erabakia eta balizko defentsa unibertsitate-organo kolegiatu baten eskuetan uztea. **Onartua.**

6.2.5. FUNTZIO PUBLIKOA

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua

- Arauzko xedapen bat sustatzea Nafarroako administrazio publikoetako emakume funtzionarioek bularra emateko

denboraren ordean ordaindutako baimena hartu ahal izan dezaten, dagokien denbora lanaldi osotan metatuz.

Onartua.

- Behar diren legegintza-ekimenak bultzatzea, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko eskubide pasiboan araubideari atxikitako funtzionarioei aitortzen zaien ezgaitasun gradua berrikusi ahal izateko, gaixotasuna larritzen denean edo diagnosian oker bat egon denean.

Onartua.

- Erizainen lanbide karrera ezartzeko foru lege proiektu bat prestatzea. **Onartua.**

- Behar diren neurriak ezartzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langile fakultatiboak eta sanitarioak aplikatzekoak zaien lanbide karreraren sistema Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoetako langileetara eta zabaltzeko, modu metagarrian, baldin eta honako baldintzak betetzen badituzte:

a) Behar den osasun titulazioa edukitzea.

b) Beren osasun arloko eginkizunak Foru Komunitatearen eta haren organismo autonomoen esparruan betetzea.

c) Zerbitzua ematea funtsean osasun arloko eginkizunak dituzten unitate administratiboetan, nahiz eta gaur egun atxikirik ez egon ez Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari, ez Osasun Departamentuari, ez gainerako erakunde autonomoetako bati.

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan sartzeko

hautapen prozeduretan emandako egintza administratiboan aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoak ebazterakoan, Herri Administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidegoaren 30/1992 Legean ezarritako mugak errespetatzea, eta, bereziki, interesdunei entzunaldia emateko tramitea betetzea.

- Hautapen prozeduretan proba psikoteknikoak dauden kasuetan, izangai guztiak psikologo berak edo psikologo berek ebaluatzea. **Onartua.**
- Foru Komunitateko Administrazioak deitutako hautapen prozeduretan, oro har, proba gehienetan, pliken sistema erabiltzea. **Onartua.**
- Hautapen prozeduretan izendatutako epaimahai kalifikatzaileen jardun zuzena zaintzea; bereziki, ondokoei dagokienez: deialdietako oinarriak zorrotz aplikatzea; izangaientzako erreklamazio epeak ezartzea; haiei behar den informazioa ematea, eta eskatzen dutenei azterketak zuzentzeko erabilitako irizpide objektiboak azaltzea. **Onartua.**

Osasun Departamentua

- Urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeko Estamentuen eta Espezialitateen eranskina alda dadin sustatzea, bertan “Farmaziako teknikaria” titulazioa sartzeko, halako moduan non behar adinako titulua izanen baita ospitale-farmaziako zerbitzuetako lanpostuetan sartzeko. **Ez da onartu.**
- Behar diren neurriak ezartzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak deitutako hautapen prozesuetan lortutako lanpostuen jabetza hartzea ez dadin

justifikaziorik gabe gerora.

Hezkuntza Departamentua

- Irakasleen kidegoetara sartzeko deitzen diren hautapen prozeduretan, beste hezkuntza administrazio batzuekin behar diren koordinazio mekanismoak ezartzea ez dadin bazterkeriarik gerta probetako bat Administrazioak egindako txosten batekin ordeztearen alde egiten duten izangaien aurka, eragin horietarako alegatutako irakaslerbitzuak beste autonomia erkidego batean eman direnean. **Onartua.**

Iruñeko Udala

- Epai bat betetzeko emandako arauari jarraituz, ethez etxeko laguntza-zerbitzua kudeatzeko sorturiko enpresa publikoaren administrazio-kontseiluaren bitartez, deialdia egin dezan familiako langileen 35 lanpostuak betetzeko. **Onartua.**
- Langile publikoen lanpostuak betetzeko hautapen prozesuetako deialdien oinarrietan, probetako ahozko azalpenak audioz nahiz bideoz grabatzeko betebeharra ezartzea. **Onartua.**

Corellako Udala

- Lan-kontratua duten langileak hautatzeko prozeduretan, bidea eman dadin Espainian bizi diren atzerritarrek parte hartzeko, Espainiako atzerritarren eskubideei eta libertateei buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 10.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

6.2.6. OGASUNA

Ekonomia eta Ogasun Departamentua

- Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Testu Bategineko 34.1 artikulua aldatzea, hildakoaren ohiko etxebizitza anai-arreba batek edo batzuek “mortis causa” eskuratzen dutenean, zerga-tasa txikieneko tributua ordain dezaten. **Onartua.**
- Aztertzea aukera ba dagoen Nafarroako Foru Komunitatean ezartzeko Arlo ekonomikoan, arlo fiskalean eta etxebizitza eskuratzearen arloan hartu beharreko presako neurriei buruzko azaroaren 28ko 1975/2008 Errege Dekretuko hamargarren xedapen iragankorreen ezarritako neurria; izan ere, haren bidez, 2010eko abenduaren 31ra arte luzatzen da ohiko etxebizitza erosteko edo zaharberritzeko epea etxebizitza-kontuaren epemuga 2008ko urtarrilaren 1etik 2010eko abenduaren 30era arte ezarrita zuten pertsonentzat, betiere kenkariak egiteko epea zabaltzeko eskubiderik eman gabe.

Iruñeko Udala

- Aparkatze mugatuko eta murriztuko eremuetan trakzio mekanikoko ibilgailuak aparkatzeko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala aldatzea, jaso dezan egoiliar txartela edukitzeari urte naturalean zehar utziz gero tasaren hainbanaketa egin ahal izateko aukera. **Onartua.**

Esako Udala

- Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko tasak arautzen dituen udal ordenantza egokitzea, zerbitzu horietan erabiltzaileei tratu desberdina eman ez dakien –eta horrekin, justifikatu gabeko bazterkeriaz jokatu–. **Onartua.**

6.2.7. ESKUBIDEEN SUSTAPENA – ADMINISTRAZIO PUBLIKOEKIKO HARREMANETAN HERRITARREN ESKUBIDEAK BERMATZEA

Oro har, Nafarroako administrazio publikoak

- Herritarrek eskatutako eskabide eta idazkiei arauetan ezarritako epean erantzuteko betebeharra betetzeko ahalegin guztiak egitea.
- Herritarrei zuzendutako egintza administratiboak motibatzea, bereziki egintza horiek herritarren kalterako izaten direnean.
- Bidea ematea herritarrek artxibo eta erregistro administratiboak begiratu ahal izateko, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako moduan.
- Errespetatzea administrazio publikoekiko harremanetan herritarrek dauzkaten eskubideak. Bereziki, ondokoak: alegazioak egitea, jardueretarako eskatzen diren baldintza juridiko edo teknikoei buruzko informazioa eta orientabidea jasotzea; agintariek eta funtzionarioek errespetuz eta begiramenez tratatzea, eta agintari eta funtzionarioek erraztasunak ematea beren eskubideez baliatu ahal izateko eta betebeharrak bete ahal izateko.
- Ondare erantzukizuneko prozeduretako tramiteak arintzea, haien ebazpena ez dadin beharrik gabe gerora.

- Bidea ematea herritarrek sarbidea izateko, interes jakin bat kreditatzea exijitu gabe, administrazio publikoen eskura dagoen lurralde- eta hirigintza-informaziora.
- Herritarrei laguntza emateko zerbitzuak eta bulegoak ezar daitezzen sustatzea, Administrazioaren esparru desberdinetan, bai eskatzen diren kudeaketak zuzenean egiteko, beharrik gabeko tramiteak eta geroratze administratiboak eskatu gabe, bai eskariak egiteko, errekurtsoak idazteko eta abarretarako ere.

Nafarroako toki entitateak

- Erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko posta-ontziak jartzea, herritarrek egokitzat jotzen dituzten gaiak planteatu ahal izan ditzaten.
- Herritarrei ahal den informazio zabalena ematea toki enteen jarduerari buruz, eta haiei tokiko bizitzan parte hartzeko bidea ematea.

6.2.8. BARNE ARLOA

Iruñeko Udala

- Herritarren kolektiboek jarduerak egite aldera bide publikoa erabiltzeko aurkezten dituzten eskabideei buruzko erabakiak behar beste motibatzea, batez ere funtsezko eskubide horri ezezkoa ematen zaion kasuetan.
Onartua.

Tuterako Udala

- Kaleen eta eremu publikoen zaintza eta kontrola

areagotzea. Horretarako, antolamendu juridikoak esleitzen dizkion ikuskapen eta zehapen ahalmenak erabiliko ditu, zaratek eta zikintasunak bizilagunei trabak eragiten dizkietenean. **Onartua.**

6.2.9. JUSTIZIA

Iruñeko Abokatuena Elkargoa

- Axolagabetasuna edo lanbide praxi okerra inplikatzeko duten inguruabar objektiboak gertatzen diren kasuetan, ofizioz esleitutako abokatuak eta prokuradorea aldatzeko aukera ematea. **Onartua.**

6.2.10. INGURUMENA

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentua

- Indargabetzea ekainaren 23ko 148/2003 Foru Dekretuak jasotzen duen aurreikuspena, abeltzaintza-instalazioak lehen graduko ahaideei esku-aldatzeko aukerari dagokionez; izan ere, hori ez baitator bat ez ingurumenaren babes egokiarekin, ez kutsadurarik gabeko inguruneaz gozatzeko eskubidearekin ere.
- Behar diren neurriak ezartzea abeltzaintza-ustiatzeko giza jarduerak garatzen diren lekuetan (etxebizitzak, lantegiak edo era guztietako instalazioak) sortzen duten enbarazua ahal den guztian gutxitzeko.
- Bermatzea herritarrek ingurumen-informazioa edukitzeko duten eskubidea, bai eta ingurumenaren eragina duten erabakiak hartzen parte hartzeko eskubidea ere.

- Nafarroako Foru Komunitatean kutsadura akustikoaren arazoari aurre egiteko berriazko foru lege proiektu bat egitea.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentua

- Beste departamentu batzuekin neurri koordinatuak sustatzea, fauna espezie batzuen gainpopulazioak AP-15ean eta A-68an eragiten dituzten kalteak arintzeko; bereziki animalia horiek bide horietara sartzen direlako.
Onartua.

Nafarroako toki entitateak

- Ingurumena babestearen eta osasungarritasun publikoaren arloan dauzkaten eskumenak modu eraginkorrean eta geroratu gabe baliatzea; bereziki, zaratak eta dardarak eragiten dituzten jarduera pribatuen gainean esku hartzeko ahalmenak. Horrekin, herritarren funtsezko eskubide batzuk bermatuko dituzte: osotasun fisiko eta moralerako eskubidea eta etxebizitzan intimitatea eta bortxaezintasuna izateko eskubidea.

6.2.11. HERRI LANAK

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako departamentuak

- Desjabetze prozeduretan bidegabeki ez geroratzea desjabetutako ondasunen prezio zuzenaren ordainketa,

eta nahitaezko desjabetzapenari buruzko legeari aurreikusitako epeak errespetatzea.

Nafarroako toki entitateak

- Ez jarduera sailkatuaren lizentzia, ez baimen administratiboak ez erabiltzea kulturako eta erlijio-askatasunerako funtsezko eskubideak kontrolatzeko bitarteko ez-legitimo gisa.
- Hirietako bide publikoak zaintzeko, mantentzeko eta zolaberritzeko legezko betebeharrak zorrotz betetzea.

6.2.12. OSASUNA

Osasun Departamentua

- Apirilaren 27ko 162/1992 Foru Dekretuaz sorturiko Organo Emateen eta Transplanteen Aholku Batzordea berrabiatzea, eta bereziki erregularatasunez biltzeko deia egitea. Hartara Nafarroako Giltzurruneko Gaixotasunen aurkako Elkarteari (ALCER) eta beste elkarte batzuei parte hartzeko aurreikusi zen bide erreal eta aktiboa emanen zaie, foru dekretuko 2.1 artikuluan ezarri zen bezala. **Onartua.**
- Aztertzea eta, kasua bada, Osasun Ministerioari helaraztea Haurren eta Gazteen Psikiatria espezialitatea sortzeko eskaria.

- Osasunbidea/Nafarroako Osasun Zerbitzuan aurkezturiko ondare-erantzukizuneko espedienteetan, herritarrari jakinaraztea osasun administrazioak ahalmena duela, erreklamazioa ebazteko beharrezkoa bada, eskatzailearen historia klinikoaren edukira jotzeko.
Onartua.
- TDA-H nahastea (arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahastea) prebenitzeko eta tratatzeko behar diren neurriak ezartzea. Ondokoak bereziki:
 - Hiperaktibitatearen nahastea duten haurren eta nerabeen laguntza psiko-sanitario eta farmakologikorako programa edo plan berezi bat egin dadin.
 - Iruñeko ospitale-sarean Neuropediatriako zerbitzu bat ezar dadin sustatzea, eta Tuterako eta Lizarrako ospitaleetako pediatria zerbitzuetan neuropediatraren postu bat jartzea.
 - Adimen osasuneko zentroetan haurrentzako psikiatrak eta psikologoak jartzea, bai eta behar adina profesional ere, diagnosiak kontuz egin daitezen eta jarraipena hurbilekoa eta jarraitua zian dadin, ukitutako pertsonarentzat zein familiarentzat.
 - TDA-Hrako medikazioa gaixotasun kroniko baten medikaziotzat hartzea, eta, horrenbestez, gaixoaren ekarpen ekonomikoa ahal den guztian gutxitzea.
- Nahaste psikikoak dituzten pertsonen beren borondatearen aurkako tratamendu ibiltaria emateko berariazko baldintzak erregulatzeko aukera aztertzea, eta, beharrezkoa bada horretarako behar diren lege-aldaketak egitea.

- Fibromialgiarako neke kronikoaren sindromerako tratamendua egiteko jarduerak hastea; bereziki:
 - Fibromialgia eta neke kronikoaren diagnosirako eta tratamendurako gida protokolo edo gida praktikoak egitea, osasun zentro eta zerbitzu guztietarako irizpide uniformeak izanen dituztenak, bai oinarrizko osasun laguntzan, bai laguntza espezializatuan.
 - Prestakuntza jarraituko programak garatzea, fibromialgiaren eta neke kronikoaren arretan inplikaturiko osasunaren arloko profesional guztientzat, gaixoei beren beharretarako erantzun egokia bermatze aldera.
 - Gutxienez ere ospitale-zentro batean erreferentziako-unitate bat ezartzea, eta hartan diziplina anitzeko ekipo batek jardutea, beren gaixotasunean izan duten bilakaerarengatik, terapiari erantzuten ez diotelako edo prozesu konplexua dutelako, erantzun berezi eta espezializatua behar duten gaixoentzat.
 - Min kronikoak ukitutako pertsonen elkarrekin – fibromialgiaren eta neke kronikoaren elkarrekin, besteak beste– komunikazioa, lankidetzeta eta parte-hartzea sustatzea.
- Osasun prestazioen katalogoa berrikusi eta gaurkotzea, pixkanaka eta aurrekontuko zuzkiduren arabera, herritarrek eskatutako prestazio eta zerbitzu berriak jartzeko, eta argi eta garbi eraginkortasunik, eragingarritasunik edo efizientziarik ez duten teknikak, teknologiak eta prozedurak kentzea.
- Herritarrek, gaixo gisa nahiz osasun publikoaren sistema-

ren balizko erabiltzaile gisa, erabili ahal dituzten osasun zerbitzuei eta haiek erabiltzeko baldintzei buruzko informazio ulergarria eta egokia jasotzeko eskubidea bermatzea.

- Osasun garraioaren laguntza-prestazioa hobetzea, bai berrazterketa eta tratamenduetan behar diren leku-aldatzeetarako, bai 112 telefonoaren bitartez larrialdiak kudeatzeko.
- Behar diren neurriak hartzea arnas aparatuko terapiak behar dituzten gaixoek ez dezaten fidantza bat ordaindu behar kasuko ekipoarekin Nafarroako Foru Komunitatetik kanpora bidaiatu nahi dutenean. **Ez da onartu.**
- Osasunbidea/Nafarroako Osasun Zerbitzuko emakume erabiltzaileak Nafarroatik kanpora dauden osasun zentroetara bidaltzen diren kasuetan, haurdunaldiaren borondatezko etetea egiteko, kalte-ordain bat ordaintzea, funtzionamendu administratibo horrek beren ondasun eta eskubideetan eragiten dizkien kalteengatik, horren barne direla, kasua bada, behar bezala justifikaturiko edo arrazoiz ondoriozta daitezkeen kalte moralak. **Ez da onartu.**
- Osasun prestaziorako eta Nafarroan bizitokia izateko eskubidea kreditatzen den kasuetan, banakak osasun txartela ematea, Osasunari buruzko Foru Legean aurreikusitakoez gainera beste baldintzarik jarri gabe. **Onartua.**
- Nafarroako Foru Komunitateko osasun laguntza publikoaren unibertsalizazio araubidean dauden pertsonen farmazia-laguntza hartzea Gizarte Segurantzaren Araubidean afiliaturiko pertsona bati dagokion modu berean. **Ez da onartu.**

- Osasun sistema publikoaren erabiltzaileei familiako medikuaren eta osasun etxeren aldaketa jakinaraztea, hautatzeko duten eskubideaz baliatu ahal izan daitezen.
Ez da onartu.

6.2.13. LANA

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua

- TDA-Ha (arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahastea) duten pertsonen hezkuntza-alderdiak, osasun alderdiak eta gizarteratze- eta laneratze-alderdiak hartuko dituen tratamendu integral bat eskaintze aldera, ondokoak egitea:

- Hezkuntza Departamentuarekin koordinatuta, esku hartzeko proposamen bat presta dadin, arreta-defizita eta hiperaktibitatea (TDA-Ha) duten pertsonen prestakuntzarako eta laneratzerako, gaur egun Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eskaintzen dituen programen bitartez, laneratzeko aukera hobetoagoak izan ditzaten.

- Egokitzen jotzen diren bitartekoen bitartez (jendaurreko kanpainak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren weba eta abar) informatzea Nafarroako Enplegu Zerbitzuak TDA-Ha duten pertsonen prestakuntzarako eta laneratzerako eskaintzen dituen baliabideei buruz.

- Laguntza ekonomikoen edo kenkari fiskalen lineak ezartzea ezgaitasun psikikoa duten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea bideratzeko lan-kontratuak egiten dituzten sektore pribatuko fundazio, elkarte edo enpresentzat.

6.2.14. TRAFIKOA

- Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua eta Iruñeko Udala
- Behar diren koordinazio mekanismoak ezartzea trafikoaren arloko zehapen espediente bikoitzak saihesteko, subjektua, egitatea eta oinarria bat datozenean. **Onartua.**

Iruñeko Udala

- Herritarren Segurtasunaren Arloak Nafarroako Arartekoaren Erakundearekin duen lankidetzaren handitu dezana, oinarritzko eskubideak urratzen direla antzematen denean egiten diren gomendioak onartzeari begira eta zehapen prozeduran herritarrari berme nagusiak emateari begira.
- Behar diren koordinazio tresnak ezartzea Barne Ministerioarekin ibilgailuen lapurretei buruzko salaketen gaineko informazioa eskuratu ahal izateko. **Onartua.**
- Salaketa buletinetan edo, kasua bada, zehapen prozedura abiarazten duen egintzan, ustezko arau-hausleei arau-haustearengatik galdutako puntuei buruzko informazioa ematea. **Onartua.**

6.2.15. TURISMOA

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentua

- Landa eremuko inbertsio proiektuen (landa etxeak) egokitasunari buruzko desadostasuna daudenean, estetika-rengatik edo ingurune arkitektonikoarengatik, txosten bat eskatzea Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoari, halako moduan non baimen horri ezezkoa ematea ez den oinarrituko funtzionario publiko baten irizpide subjektiboetan.

6.2.16. HIRIGINTZA

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua

- Legezkoatasuna babesteari eta hirigintzako diziplina ezari dagozkien kexen kopurua ikusita, hirigintzaren ikuskapenetarako zerbitzua sortu eta indartzea. Zerbitzu hori, hain zuzen ere, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko Foru Legeko 197 eta 198. artikuluetan aurreikusi zen.
- Herritarrek hirigintzaren plangintzan eta kudeaketan parte har dezaten indartzea.
- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen hurrengo aldaketan honako eskubidea sartzea: partikularrek sustaturiko lurralde- edo hirigintza-planeamenduari behar den hasierako onespena emateko eta gero jendaurrean jartzeko eskubidea, salbu eta administrazio eskudunak antzematen eta justifikatzen duenean antolamendu juridikoa urratu dela; hala eta guztiz ere, hori ez da eragozpena izanen administrazio eskudunak amaieran behar duen behin betiko ebazpena emateko.

Nafarroako toki entitateak

- Urbanizazio proiektuen kudeaketa arintzea.

6.2.17. ETXEBIZITZA

- Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua
- Etxebizitzari Babes Publikoa emateari buruzko ekainaren 24ko 8/2004 Foru Legeko 22. artikuluan gaur egun jasota dagoen baremoaren berrikuspena sustatzea, ez daitezen determinanteak izan erreserba bakoitzeko etxebizitzaren adjudikazioan bigarren mailako irizpideak; esate baterako, etxebizitza-kontu bat izatea, eskatzailearen adina, Nafarroako udaletan etenik gabe izandako antzinasuna edo guraso bakarreko familiaburua izatea; eta determinanteak izan daitezen, bai, oinarrizko bi irizpideak: etxebizitzaren premia kreditatua egotea eta eskatzailearen errenta. **Onartua.**
- Alokairuko araubideko etxebizitza babestuen adjudikazioa sustatzea. **Onartua.**
- Behar diren mekanismoak ezartzea gaurkotasunez argitaratzeko etxebizitza babestuaren adjudikatzailer suertatu ez diren eskatzaileen itxaron zerrenden egoera. **Onartua.**
- Behar diren koordinazio tresnak ezartzea toki entitateekin, herritarrek etxebizitza babestuaren adjudikazioari buruzko kanpainen gainean jasotzen duten informazioa ez dadin kontraesankorra izan. **Onartua.**
- Etxebizitzari Babes Publikoa emateari buruzko 8/2004

Foru Legea alda dadin sustatzea, puntuazioa lortzearen ondorioetarako jo dadin eskatzailearen familia-unitatearen parte direla guraso-agintearen –konpartitua bada ere– menpeko ondorengo adingabeak. **Onartua.**

- Etxebizitzari Babes Publikoa emateari buruzko 8/2004 Foru Legearen aldaketa sustatzea babestutako etxebizitza bat eskuratzeko baldintza gisa ezartzeko, etxebizitza-kontratua bisatu aurretik eta Administrazioari aurkeztu aurretik, etxebizitza babestuaren adjudikatzaileak kredita dezan daukan zati alikuotaren salmentaren eskaintza egin diela, eta hain zuzen ere Administrazioak ezarritako prezioan, etxebizitzaren titularitatea duten gainerako pertsoneri. **Onartua.**
- “Etenik gabeko antzinatasunaren” gaurko irizpidea malgutzea, saihesteko abaguneko inguruabarrengatik bizitokiz aldatu behar izateak –esate baterako ikastera joateko edo lanera joateko– etxebizitza babestuaren eskatzaileei kalte egin dakien. **Ez da onartu.**
- Baremoaren arabera puntuagarriak diren inguruabarrak kreditatzerakoan akatsak, okerrak edo gabeziak antzematen diren kasuetan, interesdunari ematea urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuko 43.6 artikuluan akatsak zuzentzeko ematen den epea. **Onartua.**
- Arauz finkatzea zein epe eta baldintzetan bidali behar dizkieten etxebizitza babestuen promotoreek eta udalek honako datu hauek etxebizitza babestuen zentsuko pertsoneri: sustapen bakoitzean prestaturiko erreserbak, eskabideak aurkezteko epea eta baldintzak, etxebizitzak adjudikatzeko aplikatu beharreko baremoa, eskatzaileen kopurua eta horiei buruz garrantzitsutzat jotzen diren

datuak. **Onartua.**

- Departamentuak babesturiko etxebizitzaren promotoreen gaineko egiaztaketa eta ikuskapen jarduerak areagotzea, herritarrekin egiten dituzten tramiteetan okerrak saihesteko. **Onartua.**
- Departamentuak arintasunez eta eraginkortasunez egitea babes publikoko etxebizitzaren eta babesturiko gainerako etxebizitzaren buruzko bizigarritasun baldintzei buruzko ikuskapena, eta esku hartzeko ahalmenaz balia dadin, eraikuntza-akatsak edo bestelakoak daudela egiaztatzen duenean. **Onartua.**

6.2.18. BESTELAKOAK

Nafarroako Erizainen Elkargo Ofiziala.

- Elkargoko kideek ondorengoan edo aurrekoan zainketarako lanaldi murriztua eskatua duten kasuetan, elkargoari ordaindu beharreko kuotaren gutxitzea aurreikustea. **Ez da onartu.**


7 _ nafarroako administrazio
publiokoek arartekoarekin
egindako elkarlana

erakunde eta entitate
ez-laguntzaileak

2008

7 _ nafarroako administrazio
publiokoek arartekoarekin
egindako elkarlana

erakunde eta entitate
ez-laguntzaileak



2008

VII KAPITULUA

NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARARTEKOAREKIN EGINDAKO ELKARLANA.

ERAKUNDE ETA ENTITAE EZ-LAGUNTZAILEAK

7.1. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARARTEKOARI LAGUNTZEKO DUTEN BETEBEHARRA

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren funtzioa da Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babestutako herritarren eskubide eta askatasunak defendatzea eta hobetzea. Berme funtzio hori gauzatzeko, norbanakoen eskubideen administrazio egokia eta errespetua bultzatzen ditu erakundeak, eta, horretarako, beharrezkoa da Nafarroako Foru Komunitateko botere publiko eta erakunde guztiek laguntzea. Hala, erakunde horiek obligazioa dute, lehenetsunez eta presaz Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari laguntzeko eta hark egindako oharpen, gomendio, lege-betebeharren gogorarazpen eta iradokizun oro betetzeko hartutako neurrien berri emateko edo, neurri horiek hartu ezean, jokaera horren arrazoiak azaltzeko.

241

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari laguntzeko legezko betebeharra betetzen ez bada, informazioa bidaltzean arrazoirik gabeko atzerapenik gertatzen bada, jarduerak justifikatzen ez badira edo, beste edozein motiborengatik azken finean erakundeen arteko harremanak behar bezalakoak ez badira, murriztu egiten da herritarrek erakunde parlamentario hori erabiltzeko duten eskubidea —erakundearengandik erantzun azkar eta eraginkor bat jasotzeko eskubidea—, eta, horrekin, ordenamendu juridikoa urratzen da

Laguntza emateko betebeharra ez betetzeak administrazio-
arloan dituen ondorioei dagokienez, honela dio Nafarroako Foru
Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru
Legeak: hasierako informazioa edo dokumentazioa bidaltzeko
edo horiek eskuratzeko eskaera egin ondoren, administrazio
publikoko langileek edo haien nagusi edo arduradunek jarrera
negatiboa edo zabarra agertzen badute, Nafarroako Arartekoak
oztopotzat har dezake jarrera hori. Hala, Arartekoak berehala
publiko egin dezake gertatutakoa, eta kalifikazio hori ezar dezake
Nafarroako Parlamentuari bidaltzen dion urteko txostenean.

Horrez gain, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 34.2 artikularen
arabera, neurri berriak hartzeko oharpenak, gomendioak, lege-
betebeharren gogorarazpenak edo iradokizunak jaso ondoren, bi
hilabete baino gutxiagoko epean, dagokion administrazio-
agintaritzak Arartekoak adierazitako neurria hartzen ez badu,
Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari jarrera horren arrazoiak
azaltzen ez badizkio edo jarrera hori azaltzeko justifikazio egokirik
ez badu, Arartekoak urteko txostenean edo txosten berezian jasoko
du gertatutakoa. Txosten horretan, Arartekoaren ustez arazoa
konpon zitekeen baina jarrera txarragatik konpondu ez den
kasuetan, espresuki aipatuko dira jarrera hori izan duten
administrazio publikoko agintari edo langileen izenak.

Halaber, aipatutako Foru Legeko 16 e) artikularen arabera,
Arartekoak egindako lan, ikerketa eta urteko txostenen berri eman
behar da, oro har, Arartekoaren beraren bitartekoen bidez eta,
bereziki, komunikabide publikoen bidez.

Horregatik guztiagatik, azaroaren 9ko 43/2007 Ebazpenaren
bidez, Nafarroako Arartekoari laguntzen ez dioten administrazio
eta erakundeen erregistroa sortu zuen erakundeak. 2008ko
urtarrilaren 1etik aurrera, erregistro horretan argitaratuko da oso
modu nabarmenean Arartekoari laguntzarik eman ez dioten
administrazio eta entitateei buruzko informazioa, eta hori kasu
bakar batean baino ez da gertatu.

7.2. LAGUNTZEKO BETEBEHARRAREN BETETZE-MAILA

Nafarroako administrazio publikoek 2008an Arartekoaren erakundearekiko “oso positibotzat” hartu behar den lankidetzamaila bat izan zuten; izan ere, egindako gomendio, iradokizun eta legezko betebeharren gogorazpenetatik ehuneko handi bat onartzeaz gainera, ia kasu guztietan ikerketa-espdianteetan eskatutako informazioa igorri zuten, arinago eta eraginkortasun handiagoz igorri ere; horrek aukera eman digu kexak tramitatzeko batez besteko epeak erdira gutxitzeko.

Hala eta guztiz ere, kasu batzuetan laguntza emateko betebeharra urratu zen , eta, kasu horietan, kexa-espdianteak ebazteko zailtasunak izan ziren.

2008an laguntza emateko betebeharra bete ez zuten erakundeei erreparatuta, 2007ko ekitaldikoekin alderatuta, esan beharra dago laguntza eman ez zuten administrazioen kasuak % 3,4 izan direla, ekitaldi honetan kudeaturiko kexen kopuruarekin alderatuta (ia 2007ko zenbateko bera, orduan % 3,3 izan baitziren).

243

Horrenbestez, ehuneko txiki bat dela jota ere, nabarmendu beharra daukagu zeinen garrantzitsua den lankidetz hori Nafarroako Arartekoarentzat, bere eginkizunak ahal den mailarik onenean bete ahal izateko.

Urteko txostenari kapitulu hori gaineratuz, Nafarroako Parlamentuari eta, beraz, iritzi publikoari, jakinarazi nahi zaio zer erakundek jokatu duten zabarkeriaz Arartekoaren erakundearekin, eta, ondorioz, Arartekoaren jarduera galarazi edo atzeratu duten eta herritarrek egindako kexak dagokion epean konpontzea oztopatu duten zaio.

Hain da handia ordenamendu juridikoak administrazioen laguntza-betebehar horri ematen dion garrantzia, non obligazio horren muturreko ez-betetzeak ondorio penalak baititu. Hala,

batere laguntzarik ez ematea Estatuaren erakundeek eta botere-banaketaaren aurkako delitutzat jotzen da Zigor Kodeko 502.2 artikuluan. Artikulu horren arabera, enplegua edo kargu publikoa sei hilabetetik bi urtera bitarteko epean kentzeko zigorra ezar dakieke “Arartekoaren, kontu-auzitegiaren edo autonomia-erkidegoetako erakunde baliokideen ikerketak” oztopatzen dituzten agintari edo funtzionarioei, “*erakunde horiek eskatutako informazioa bidaltzea ukatuz, informazio hori bidaltzeko denbora bidezkoa ez den moduan luzatuz edo ikerketa horiek egiteko behar diren espedienteak edo administrazio-agiriak lortzeko zailtasunak jarritz*”.

Bistan denez, muturreko egoeretan bakarrik jotzen da Zigor Koderak; alegia, gainerako aukera guztiek porrot egin dutenean eta egoerak benetan hala eskatzen duenean.

Kasu batzuetan, gomendio edo iradokizun jakin bat ez onartzeko arrazoiak ematen dituzte administrazio publikoek. Horrelakoetan, ebazpena ez dela onartu aipatzen da III. kapituluan, baina horrek ez du esan nahi administrazio hori ez-laguntzailezat hartzen denik.

7.2.1. Ikerketa-fasean Arartekoaren eskakizunei erantzun ez dieten administrazioak eta oztopotzat hartzen direnak

Atal honetan, Arartekoak ikerketetarako informazioa emateko eskakizunei erantzun ez dieten administrazioen organo eta unitateak zerrendatzen dira. Arrazoi horrengatik lankidetzat falta ia ez da existitzen, kasu bakarrean eman baita. Izan ere, Administrazio eta Entitate Ez-Kolaboratzaileen Erregistroan inskribatu zen.

Larragako Udala

Espedientea 07/407

Gaia: Hirigintza

Mota: Gomendioa

